



Etxeko lanak eta zaintza, lehen mailara

Junkal Gutierrez, hizkuntza jabekuntzaz

UDALDIA

Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak:

GOIENA: Irailaren 2an.
'Puntua': Irailaren 2an.

Ondo ibili!



URBIAKO FONDA BERRIRO ZABALTZEKO GERTU

Peio Bilbao —argazkian— eta Naiara Romatet elgetarrek irekiko dute datorren astean Urbiako fonda ezaguna. "Gogo handiz gaude, lorik ere egin gabe; oso gustura", adierazi dute / 2

Peio Bilbao, Urbian, fondaren aurrean, martitzenean.

JON IRIZAR

Danbaka Musika Lehiaketa abiatu du Goienak, Bergarako Udalarekin

Begarako Seminarixoan izango dira zuzeneko kontzertuak, hoguei talderekin. Parte hartzeko izen-ematea zabalik dago / 40



Goienako eta Bergarako Udaleko ordezkariak aurkezpenean. XABIER URZELAI

Hemen
garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



Peio Bilbao, martitzenean, fondako atearen aurrean. JON IRIZAR

Erreleboa gogoz hartuta, datorren astean irekiko dute fonda bi elgetarrek

Peio Bilbao eta Naiara Romatet elgetarrak arduratuko dira hemendik aurrera Urbiako fonda ezaguna kudeatzeaz. Azaldu dute "gogotsu" daudela eta "gauzak ondo egitea" espero dutela. Buru-belarri ari dira lanean, datorren astean zabaldu ahal izateko

Uxue Igarza OÑATI

Urbiako fonda 1999tik kudeatzen zuen lantaldeak maiatzean erabaki zuen ateak ixtea, eta, hila-beteetako prozesuaren ostean, aukeratu dituzte gidari berriak. Aste honetan jakinarazi dute Elgetako bikote batek –Peio Bilbao eta Naiara Romatet– San Inazio eguna baino lehen zabalduko duela fonda.

Peio Bilbaok kontatu du Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoak egindako deialdia ikusi eta izena ematea erabaki zutela: "Bertara, Urbiara, etorri ginen negozioa gertutik ezagutzera". Behin aukeratuak izan zirela jakindakoan, berria "ilusioz" hartu zutela azaldu du: "Gogo handiarekin gaude; lorik ere egin gabe. Oso gustura". Beste-tik, inguruko lagun, senide eta ezagunek ere pozik erreakzio-natu dutela esan dute.

Datorren astean zabaltzea da bikotearen asmoa: "Denboraz estu samar gabilta, baina emango du astia dena prestatzeko (...) Astelehenak salbu, egunero egongo da irekita Santu Guztien Eguna arte. Hortik aurrera, asteburuetan bakarrik".

50 hautagairen artean

Altube eta Altxelai sendietako kideek maiatzean itxi zituzten fondako ateak. Gerora adierazi zuten osasun arazoan ondorioz hartutako erabakia zela; hots, ez zela aldi baterakoa eta fondaren kudeaketarako beste lan-

DATORREN ASTETIK SANTU GUZTIEN EGUNERA BITARTEAN, FONDA ZABALIK EGONGO DA EGUNERO

talde bat beharko zela. Hala, deialdia egin zuen Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoak, eta establezimenduaren kudeaketarekin jarraitzeko interesa zutenek Segurako Udalera jo zuten. Guztira, 50 bat lagun aurkeztu ziren fonda hartzeko.

Orain arte fondaz arduratu den Aritz Altubek azaldu du haiek 50 urtetarako esleipena dutela eta deialdia partzuergoak zabaldu duen arren haiek egin dutela lantalde berriaren aukeraketa: "Partzuergoak datuak bidaltzeko eskatu zien interes-dunei, eta, ondoren, guri bidali dizkigu. Geu jarri gara harremanetan izena eman duten guztiekin; azalpenak eman, eta apurka-apurka joan gara aukeraketa egiten".

Altubek adierazi du, bidean, izena eman zuten askok "albo batera" utzi zutela asmoa: "Hona

etorri eta argi ikusi zuten ez zela haiek pentsatzen zutena. Beste batzuek, baina, aurrera egin dute. Azkenik, Elgetakoak izan dira aukeratutakoak; haiek erakutsi dute gogo gehien eta aurrera egiteko asmo irmoena".

Peio Bilbao bera ere jakitun da fondak eskatzen duen "esfortzua" ez dela edozeinendako: "Jende asko egon da prest, baina baldintza gogorrak ditu. Materiala eta bitartekoak behar dira hona iristeko".

Erronkari heltzeko laguntza

Erreleboa eman diete altubetarrak eta altzelaitarrek Bilbaori eta Romateti. Bi aldeek dakite fonda kudeatzea ez dela beste edozein ostalaritza establezimendu eramatea bezala, eta "hasierako pausoak" elkarrekin ematea adostu dute. "Etapaberrian laguntzeko prest gaude. Guk dakigun guztia erakutsiko diegu, gure esperientzia partekatu eta erraztasun guztiak eman. Ahalik eta ondoen bideratuta utzi nahi dugu fonda", azaldu du Altubek.

Gomendio bat ere eman die Altubek arduradun berriei: "Hemen, lana dagoenean, buru-belarri egin behar da –gero ez baitakizu noiz egongo den aukera–, eta, era berean, eta deskantsatu ahal denean, ondo hartu behar da atseden. Biak dira ezinbestekoak".

25 urterako esleipena dute Bilbaok eta Romatetek, eta onartu dute muga goian utzi dutela aurreko maizterrek: "Ez da erronka makala honi jarraipena ematea, baina uste dugu aurrera egingo dugula".

Berrikuntzekin datoz

Elgetarrek aurreratu dute fondaren funtzionamendua lehen-goaren antzekoa izango dela: "Hemen beti egongo da jatekoa eta edatekoa, lehen bezala. Alde horretatik, lasai etor daiteke jendea". Halere, berrikuntza bat ere gehituko dute: haien baserriko txerrien produktuak salduko dituzte. Bilbaok duela hiru urte erosi zuen baserria eta txerri-haztegia du Elgetan.

ELGETAN DUTEN BASERRIKO TXERRIEN PRODUKTUAK ERE ESKAINIKO DITUZTE MAIZTER BERRIEK

Arantzazukoak ere, pozik

Arantzazuko Sindika eta Goiko Benta ostatuetan ere sumatu dute fonda itxita egon dela azken hiru hilabeteetan, eta pozik hartu dute aste honetako berria. Sindikako Pili Otxoak azaldu du "jende gutxiago" igo dela Urbiara azken boladan, eta uste du fonda itxita egoteak izan duela eragina; baita bero-boladek ere. "Urbiara jendea joaten bada, jaisterakoan gurean geratzen dira (...) Arantzazu zaila da eramateko, baina Urbia gehiago. Ea ondo moldatzen diren!", animatu ditu. Goiko Bentako Miren Maiztegi ere antzera jardun du: "Zorte ona opa diet. Arantzazurako oso berri ona da; izan ere, domeka batzuetan asko igarri dugu mendizale gutxi zebiltzala (...) Tradizio handiko egunak datoz abuztuan, eta poztekoa da fonda zabalik izatea".

Altubek eta Bilbaok ere badakite egun garrantzitsuak datozela berehala; adibidez, San Inazio eguna, datorren asteko domeka. "Momentu ona da zabaltzeko. Jende asko etortzea espero dugu hilaren 31an", esan du Bilbaok.

Ospakizuna, San Inazio egunerako

Pandemiak baldintzatuta, azken bi urteetan ez da San Inazio eguneko ospakizunik izan Urbian, eta 2019an ere ezin izan zuten eguna ohi bezala ospatu; izan ere, autoan joateko pista itxita zegoen. Aurten, baina, partzuergoko ordezkariak gogotsu ari dira eguna prestatzen. Dagoeneko aurreratu dute egitarauaren zati bat. Maria Eugenia Amenabar teknikariak adierazi du meza eta artzain txakur txapelketa egongo direla hilaren 31n. Eguraldiak laguntzen badu lagun asko batuko direla uste du Amenabarrek: "Egun polita izango da; besteak beste, urtean zehar oinez igotzeko ezintasuna dutenek aukera dutelako autoan joateko".

la 43 gradura iritsi da termometroa Arrasaten

Aste honetan bukatu den bero boladak 42 graduen gainetik kokatu ditu bailarako termometroak. Euskalmetek azaldu du astelehenean eta martitzenean EAEko txoko beroena zela Debagoiena; haizeak eta eskualdearen kokapenak izan dute eragina

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Euskalmeten neurgailuak 42,9 gradu markatu zituen Arrasaten astelehenean; Euskal Autonomia Erkidego osoan erregistratu den temperatura altuena izan da bero-bolada honetan. Hilaren 10ean hasi zen olatua eta 18an jo zuten goia termometroek. Elorregin 42,4 markatu zuen termometroak asteko lehenengo egunean, eta gertu izan ziren Urkulukoa (41,2 gradu) eta Oñatikoa (40,9 gradu).

Hilabete aurretik ere, 40 graduren gainetik egon ziren termometroak. Urteko lehenengo bero-olatua izan zen ekainaren 16an hasi zena. Orduan, ekai-



Arrasateko Portaloian dagoen termometroa, bero handiko egun batean. JON IRIZAR

naren 18an, hain justu, 41,7 gradu erregistratu ziren Elorregiko neurgailuan. Arrasaten 41,3 markatu zituen egun hartan, Oñatin 40,7 eta Urkulun 39,5.

Iazko uztailan, batez besteko temperaturak 19 eta 20 graduren bueltan ibili ziren EAEan, eta eskualdean, uztailaren 5ean erregistratu zen hilabeteko temperatura altuena: 35,6 gradu.

Orientazioak eragindako beroa

Debagoienak ipar-ekialde eta hego-mendebaldeko orientazioa duela azaldu du Euskalmeteko Javier Oribe komunikazio arduradunak; eta hori da, hain zuzen ere, azken astean eskualdean erregistratu diren tenperaturen erantzuleetako bat. Haize-bolada beroak hego-mendebaldetik iritsi dira eta bete-betean sartu dira bailarara. "Gipuzkoako gainerako eremuetan tenperaturak jaisten hasi zirenean, Debagoiengan oraindik goian jarraitzen zuten", azaldu du Oribe.

Nolanahi ere, Euskalmetek egindako neurketek erakusten dute ez dagoela alde nabarmenik Debagoienaren eta gainerako

eskualdeen artean; temperaturak antzera ibili dira barrualdeko eremu guztietan. "Debagoienaren kasuan, barrualdeko eragina handiagoa da kostakoa baino; horrek ere, zalantzarik gabe, badu eragina erregistratutako temperatura altuetan".

Beroaren isla ospitaleetan

Ondorio gogorak utzi ditu muturreko eguraldiak; pertsonen nahiz lurraren osasunean eragin du beroak.

Osakidetzak emandako datuen arabera, hilaren 10etik astelehenera bitartean, 184 larrialdi artatu zituzten: 27 Araban, 104 Bizkaian eta 53 Gipuzkoan. Gainera, Osasun Sailak azpimarratu du 83 lagun ospitaleratu behar izan zituztela. Bestetik, Amorton (Bizkaia) pertsona bat hil zen bero-kolpe baten ondorioz.

Naturari erreparatuta, Oribek azaldu du "oso lehor" dagoela lurra; batez ere, Debagoiengan. "Muturreko tenperaturek lurra lehortzea eragiten dute, eta lurra lehor badago, begetazioan eragiten du. Lehortek jarraituz gero, landareek ez dute izango elikagairik", azaldu du.



Gipuzkoa asko aurkitzeke.

Udaz ahalik eta gehien goatzeko plan guztiak Gipuzkoako pasaportean daude.

Gipuzkoa Passport aplikazioa lurralde zoragarri honetaz goatzeko eta edozein urte sasotian une magikoak bizitzeko gida bat da.



Apple Store Google Play

gipuzkoaturismoa.eus



Arrasate hoteleko kanpoaldea. U.I.L.

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Debagoieneko hotel, landetxe eta gainerako turismo-establezimenduek uda "ekonomikoki ona" izatea espero espero dute. Momentuz, behintzat, itxaropentsu daude; izan ere, uztaila ondo joan dela adierazi dute. Pandemiak sektorea gogor kolpatu arren, abuztuan ere 2019ko okupazio mailetara iritsiko direla diote ostatueta jabeek.

Datorren hilabeteko lehenengo hamabostaldia ia beteta dago eskualdeko ostatueta; batez ere, landetxe eta nekazaritza turismoetan. Apartamentuak ere arrakasta izaten ari dira bidaiarient artean, eta bailaran dauden hirurak beteta daude abuzturako. Halere, guztiek onartu dute erresebak inoiz baino "motelago" egin direla; beste modu batera esanda, jendeak "azken momentura arte" itxaron duela ostatu hartzeko. "Uztailean ia beteta egon dira bi apartamentuak une oro, eta abuztua erabat beteta dugu", azaldu dute Arantzazuko bordako kideek. Eskoriatzako Areano apartamentuan ere hila bete ona izaten ari da: "Uztaila nahiko ondo ari da joaten, eta, abuztura begira, jendea mantsoago ari da erresebak egiten. Nolanahi ere, bidaiari internazionalak itzuli dira eta berri ona da hori". Gorosarrikoek –eskoriatzarrak horiek ere– antzera jardun dute: "Beteta daukagu dena; Europatik datozen turistak ditugu, eta baita penintsulakoak ere".

Bi eratako bidaiariak

Debagoienean bi eratako turismoa dagoela azaldu dute establezimenduetako langileek: oportetara bailarara etortzen

Eskualdeko hotelak eta landetxeak "uda ona" egingo dutelakoan daude

Debagoieneko 30 bat ostatueta jabeekin egon ostean, erresebak pandemia aurreko garaietara itzuli direla diote gehienek. Gainera, aurtengo udan –iaz ez bezala–, Europatik etorritako bidaiariak ere bueltatuko direla azaldu dute

direnak –gehienak Katalunia, Madril edo Andaluziatik– eta, bestetik, geldialdia egiteko igarotzen direnak. Azken horiek Europatik datozen bidaiariak izan ohi direla zehaztu dute ostalariek –Frantzia, Alemania, Suitza, Belgika, Herbehereak–, eta, normalean, Portugalera –eta baita Andaluziara ere– joateko hartzen dutela atseden Debagoienean.

Arrasate hoteleko Esteban Sanchezek adierazi du desbeldina izaten dela bi bidaiari moten egonaldia. "Penintsulatik eskualdera oportetara datozenak aste barruan etortzen dira, eta gehienek lauzpabost eguneko egonaldia egiten dute. Bestetik, geldialdia egitera bakarrik etortzen direnek gau bat –edo bi, asko jota– egiten dute".

Uztaila "ona" izan dela adierazi du Sanchezek. "Okupazioa %85ekoa izan da, eta, une honetan, abuztuko lehenengo bi asteetarako %75ekoa dugu. Beste hainbat lekutan bezala, guk ere igarri dugu bezeroak

azken momentuan ari direla erresebak egiten. Faktore ekonomikoengatik izan daiteke, edo, besterik gabe, zain daudelako".

Oñatiko Ongi Etorri hotelean ere hilabete honetan %96ko okupazioa dute, eta baita Etxe Aundi hotelean ere: "Portzentaje altuekin gabiltza. Oraindik zulo txikiren batzuk baditugu abuztuan, baina oso aurreikuspen ona dugu".

"UZTAILEAN %85EKO OKUPAZIOA IZAN DUGU. ABUZTUA ERE ONA IZANGO DA"

ESTEBAN SANCHEZ, ARRASATE HOTELA

"EUROPATIK DATOZEN BISITARIAK BERRESKURATU DITUGU AURTEN"

MAIDER ETXAIDE, TURISMO TEKNIKARIA

Bailarako turismoa, indartsu

Maidar Etxaide Debagoieneko Mankomunitateko Turismo teknikariak ere ostalariek esandakoa berretsi du: "Orain arte, motel samar joan da dena, baina orain ari gara denboraldiaren unerik indartsuenean sartzen, eta bisitari-kopurua handitzen ari dela sumatzen dugu".

Pandemiaren eraginengatik inguruan galdetuta, Etxaidek uste du "zaila" izango dela sektorea

"TABERNETAN ERE IGARTZEN DUGU TURISTA GEHIAGO DABILELA HERRIAN"

FERNANDO ETXABARRI, ERUAN TABERNA

"URRUTI JOAN GABE, HEMEN ERE BADAUDE LEKU POLITAK ETA INTERESGARRIAK"

IEKRNE ALTUBE, TURISMO TEKNIKARIA

errekuperatzea: "Aste Santuaren ostean, eskualdeko turismo-eragileak elkartu egin ginen oportetaren emaitzen analisia egiteko. Orduan ondorioztatu genuen uda garaian pandemiaren aurreko zifrak erdiestea zaila izango zela. Nolanahi ere, ematen du bide zuzenetik ari garela marka lortzeko. Gainera, aurtun atzeritar gehiago etortzen ari dira. Abuztuan gertatzen dena ikusi beharko da".

Bergara eta Oñati, izarrak

Mankomunitateko Turismo teknikariaren esanetan, paisaia, gastronomia eta ondarea dira eskualdearen indarguneak. Eta ondareari lotuta, Oñati eta Bergara azpimarratu ditu Etxaidek. "Guregana etortzen diren bisitariak natura bilatzen dute, batez ere. Horietariko askok ondarean ere interesa erakusten dute; batez ere, Arantzazuko Santutegia ezagutu nahi izaten dute. Eta, jakina, badaude beste batzuk beren-beregi ondarea ikustera etortzen direnak ere; Inaziotar Lurraldeko beste santutegien ibilbidea egiten dutenak, esaterako".

Bidaiariak taldeka ere etortzen dira, eta Etxaidek azaldu du Arantzazuko Santutegia bisitatu eta inguruko jatetxeetan bazkaltzea izaten dela taldeen ohiko plana. "Eskualdeko ostalaritzaren eskaintza bilatzen dute askok. Esan behar da denak oso gustura geratzen direla tabernen eta jatetxeen eskaintza gastronomikoarekin", gehitu du.

Debagoieneko Mankomunitateak gomendatzen dituen planei dagokienez –Santutegiko eremuaren bisita, Arrikrutzeko kobak eta Arantzazutik abiatzen diren mendi ibilbide zirkularrez gain–, Leintz Gatzaga, Urkulu eta Bergara bisitatzea daude, besteak beste. "Jendea denborarekin badator, hainbat txokotara joateko esaten diegu", kontatu du Etxaidek.

Bisiten %43, penintsulatik

Uztaileko lehenengo hamabostaldiko turisten joan-etorriak aztertu dituzte Oñatiko Turismo Bulegoko kideek. Ikerne Altube Udaleko Turismo teknikariak azaldu du aurtun Oñati bisitatu duten pertsonen profila zein izan den: "Hileko lehen bi asteetan etorri direnen %43 Espainiatik etorri da; horietatik %11 Madrilatik, esate baterako. Katalu-

niako eta Andaluziako bisitak ere nabarmendu ditu Ikerne Altubek; horiek baitira eskualdera gehien etortzen direnak.

Bestetik, Oñatik euskaldunen bisitak ere jaso dituela adierazi du teknikariak –turisten %23 inguru dira bertakoak–, eta gehienak bizkaitarrak direla. Bukatzeko, Europatik etorritako bisitariak ere ugaritu egin direla sumatu dute Turismo Bulegoan: "Frantziatik datozen bisitariak areagotu egin dira; besteak beste, erdigune historikoan frantsesez ere eskaintzen ditugulako bisita gidatuak. Turisten %8 da Frantziatik etorritakoak; %5 herbeheretarrek

dira; %2 Belgikakoak; beste %2 Erresuma Batukoak; eta, bukaizteko, beste %2 Alemaniakoak.

Abiapuntuak askotarikoak izan arren, Oñatira etortzeko interesa "handia" dela adierazi du teknikariak: "Erreserba asko egin dira ostatueta. Turistek asmo garbia erakutsi dute gura etortzeko. Nolanahi ere, azken astean, beroarengatik edo arrazoi ekonomikoengatik, beste urte batzuetan baino apalagoa izaten ari da okupazioa".

Oraindik uda osoko balantzea zein izango den jakiteko "goizegi" dela onartu du Altubek ere, eta gonbidapena egiteko baliatu du testuingurua: "Urrutiegia joan

gabe, hemen bertan badaude ezagutzeko hainbat txoko interesgarri. Gainera, bertako ogia, gazta eta txakolina dastatzea ere plan bikaina da. Sarri, ahaztu egiten zaigu".

Udan Oñatin egiteko zazpi plan proposatu dituzte Turismo Bulegoko kideek. "Gehienak egunero egin daitezke eta oso interesgarriak dira. Hemengo kultura euskaraz ezagutzeko aukera dago. Adibidez, erdigune historikoan dagoen San Migel errota ikusteko bisita gidatuak daude egunero, eta Ezkutuko Altxorrek izeneko bisitak ere egiten ditugu, 13:00etan, gune berriak ezagutzeko". Teknikariak

azpimarratu du errotaren inguruko zehaztasun guztiak ezagutzeko abuztuaren 20an bisita berezia egingo dutela.

Bestalde, Txokolateixia ezagutzeko ere "aukera polita" dela dio Altubek: "Asteleheneetik zafura bitartean zabalik dago, eta Oñatiko txokolatearen historia ezagutzeko aukera ezin hobea ematen du interpretazio zentroak, ikus-entzunezko edukiekin". Horrez gain, Gomiztegi baserria, Arantzazu inguruak, Jon Elortzaren Pottokaleku, parketxea eta Aizkorri-Aratzeko eremu zabala gomendatu dituzte bulegoko kideek. "200 kilometro bidezidor daude, eta herria ere goitik behera eta behetik gora zeharkatzeko modukoa da", gehitu du Altubek.



Aurkezpenaren une bat. GOIENA

Lehen sektorea modernitzatzeko prest agertu dira 26 gazte

Gaztenek Berri programa aurkeztu zuten astelehenean, Oñatiko Enpresagintza fakultatean

U.I.L. OÑATI

Gazteak lehenengo sektorerako batzeko proposamena egiten du Gaztenek programak 2004az geroztik. Aurten, baina, programa berria aurkeztu dute Jaurilaritzak eta hiru foru aldundiek, Mondragon Unibertsitatearen ekarpenarekin.

26 gazte batu ziren astelehenean Oñatiko fakultatean, eta haiek izango dira Gaztenek Berri programan parte hartuko dutenak; eta horrenbestez, lehen sektorea modernizatzeko ekarpena egiten ahaleginduko direnak.

Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak azaldu du gazteak sektorerako erakartzeaz gain, sektorea bera ere egokitu egin behar dela eskakizun berrietara: "Errentagarritasuna eta aitorpen soziala ere behar ditu sektoreak. Eta, gainera, ahalegina egin behar dugu klima aldatetari aurre egiteko. Beti egin den ahalegina da, gehiago egin behar dugu. Horretarako, gero eta prestatuago egon behar dugu".

Mondragon Unibertsitateak MTA metodologia erabiliko du erronkari heltzeko; hots, eginez ikastea oinarri duen prozedura. Gazteek euren proiektuak aurkeztuko dituzte, sektorearen egoera aztertu bitartean.

Hamaika proposamen abuzturako

Besteak beste, honako hauek izango dira bailaran datorren hilabetean:

ANTZUOLA
Andra Mari eguna
Abuztuaren 15ean, Antigua auzoko ermitan.

ARETXABALETA
Andramaixak Abuztuaren 13tik 17ra. *Ikus. 19. or.*

ARRASATE
Udalara igoera
Abuztuaren 7an, herriko plazatik

BERGARA
Amair 1922-1936
Erakusketa, Laboratorium museoa.

ESKORIATZA
San Bartolome bazkaria
Abuztuaren 27an, Mazmelako Basauria elkartean.

LEINTZ GATZAGA
Gatz Museoa Bisita gidatuak, asteazkenetik igandera.

OÑATI
Ganbararen kontzertua
Abuztuaren 28an, Arantzazun.

Debagoieneko ostatuak

NEKAZARITZA TURISMOAK	HERRIA	EDUKIERA
Ibarre	Antzuola	16
Lamaino Etxebarri	Bergara	12
Barrenengua	Elgeta	12
Arregi	Oñati	18
Uxarte	Aramaio	10
Aterbe	Gatzaga	8
LANDETXEAK		
Urkulu landetxea	Aretxabaleta	17
Izal landetxea	Bergara	12
Eguzkitza landetxea	Elgeta	16
Maialde landetxea	Elgeta	12
PENTSIOAK 1*		
Jausoro ostatua	Aretxabaleta	10
Goiko Benta	Oñati	20
PENTSIOAK 2*		
Uxarte	Arrasate	10
Urizar	Arrasate	14
APARTAMENTUAK		
Gorosarri	Eskoriatza	21
Areano	Eskoriatza	13
Arantzazuko borda	Oñati	8
HOTELAK 1*		
Ormazabal	Bergara	28
Ongi Etorri	Oñati	38
Sindika	Oñati	67
HOTELAK 2*		
Arrasate	Arrasate	22
Soraluze	Oñati	32
Etxe Aundi	Oñati	42
HOTELAK 3*		
Hotel Mondragon	Arrasate	47
Torre Zumeltzegi	Oñati	24
Santa Ana	Arrasate	24
AUTOKARABANEN GUNEA		
Asentzio	Elgeta	10
San Martin	Oñati	18
Labegarieta	Bergara	20
Ibarra	Aretxabaleta	20

Tabernetan ere igartzen da

Turismoak, baina, ez du bakarrik turismo bulego eta ostatueta eragiten; herriko denda eta tabernetan ere igartzen dituzte bisitarien joan-etorriak. Bergarako Eruan tabernako Fernando Etxabarririk ondo daki herriak turistak jasotzen baditu, aukera ona izaten dela ostalarientzako ere. "Guk asko igartzen dugu turismoa. Harremana dugu herriko hotel eta landetxeekin, eta aurten igartzen dugu jende gehiago dabilela; batez ere, arratsaldeetan. Gure kasuan ere, Katoluniatik eta Madrilatik datoz gehienak, eta baita Frantziatik eta Herbehereetatik ere, geldialdia egitera".

Etxabarririk esan du kostako edo Debagoienetik kanpoko beste zenbait herrirekin alderatuta Bergara ez dela "bereziki leku turistikoa" udan, baina, halere, uste du aukera ona dela. "Ostatuen kalitatea oso ona da, eta horren erakusle da bisitari askok errepikatu egiten dutela; berriz etortzen dira Bergarara.

Askotariko planak abuzturako

Abuztuan Debagoienean geratzen direnak aukera ugari izango dute aisiaz, kulturaz eta naturaz gozatzeko. Herri, museo nahiz mendietako txokoak ezagutzeko bisita gidatu ugari egongo dira egunero, eta jaiak ere protagonista izango dira zenbaitetan; adibidez, Aretxabaletan. Bost eguneko egitaraua prestatu dute Aretxabaletako Udalak eta Gazte Mugimenduak; kontzertu, bazkari, txapelketa eta ikuskizun ugari egingo dituzte.



Elgeta eta Kanpanzar arteko errepidean zabalduko duten bihurtuneetako bat. ENEKO AZKARATE

Elgeta-Kanpanzar bidea konponduko dute 2023an

Hamar bihurtuneetan errepidea sei metroraino zabalduko dute, ezpondak handituz edota betelanak eginez eta errepide bazterrean dauden euste elementuak atzeratuz. Horretaz gain, Kanpanzar gainean ere lanak egingo dituzte, Elgetarako bidegurutzean

Eneko Azkarate Laspiur ELGETA

Elgeta eta Kanpanzar arteko GI-2639 errepidea zabaldu eta egokitu egingo duela iragarri du Gipuzkoako Foru Aldundiak, bi ibilgailu gurutzatzerakoan sortzen diren arazoei konponbidea emateko. Gune gatazkatsuenetan, bihurtuneetan, batez ere, errepidea zabaldu egingo dute, ikuspena eta segurtasuna hobetzeko. Iragarpena Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretakoa diputatuak egin du Elgetako udaletxean. "Elgeta eta Kanpanzar arteko errepideak 6,5 kilometro ditu eta bidearen zabalera zenbait puntutan estua denez arazoak sortzen dira bi ibilgailu gurutzatzerakoan, bietako bat ibilgailu astuna denean, batez ere", adierazi du Oiarbidek, eta gogoratu du eguneke batez beste 800 ibilgailu igarotzen dela bertatik.

Modu horretan, GI-2639 errepidearen puntu kritikoak identifikatu dituzte; batez ere, sei metro baino gutxiagoko zabalera daukaten bihurtuneak.

Hala, hamar dira hobetu beharreko bihurtuneak eta bi hobekuntza mota aurreikusi dituzte: alde batetik, sei bihurtuneetan sei metroko plataforma lortzeko jardunak egingo dira, ezponda handituz edota betelanak eginez. Beste lau bihurtuneetan errepide bazterrean dauden euste elementuak atzeratuko dira, errepideari zabalera gehiago emanez. Bide Azpiegituretakoa diputatuak azpimarratu du lanen ondoren "Elgeta eta Kanpanzar arteko errepideak segurtasunean nabarmen" irabaziko duela.

Kanpanzarko bidegurutzea

Bestetik, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiak egiten ari

HAMAR BIHURGUNETAN ERREPIDEA SEI METRORAINO ZABALDUKO DUTE

diren "lankidetzaren ondorioz", Kanpanzar gaineko bidegurutzea konpontzeko proiektua ere aurki bukatuta egongo dela adierazi du Oiarbidek, modu horretan, "ahalik eta lasterren obrak has-teko". Gogorarazi du arrisku-gune berezia dela Bizkaiko lurretan dagoen Kanpanzar eta Elgeta lotzen dituen bidegurutzea. "Elgetar askok Arrasatera joateko erabiltzen duten errepidean, bidegurutze horri ikusgaitasun eta segurtasun handiagoa emateko egingo dira obrak", adierazi du diputatuak.

Proiektua amaitu ostean, urrian herritarren aurrean jartzea da asmoa eta alegazioak egiteko tarte egongo da ondoren. Lanei dagokienez, 2023 urte hasieran hastea aurreikusten dute.

Bereziki, Elgetatik -Pagataz industrialdetik- Bizkaira doazen ibilgailu astunei alternatiba bat eskaini nahi zaie obra hauekin. Gaur egun, Eibarrera edo Bergarara jaitsi behar dute, Bizkaira egiteko.



Bergarako bus geltokia, atzo. ENEKO AZKARATE

Bus zerbitzu ona bermatzeko sinadura bilketa abiatu dute

Udan, erabiltzaile gehiagorekin, zerbitzua txartu egin dela dio Jon Montiel bergararrak: "Urteroko kontua da"

E.A.L. BERGARA

Pesa-Lurraldebus, zuen zerbitzuak bermatu. Eskari hori egin du Jon Montiel bergararrak sinadura bilketak egiten diren Interneteko plataforma batean. Bost egunera, ia laurehun atxikimendu jaso ditu. 500 lortzea du helburu. Berriki bizitako esperientzia bat izan zen ekimena bultzatzera animatu duena. "Ohiko erabiltzailea naiz, baina bereziki udan hondartzara joateko erabiltzen dut. Aurreko astean, Debara joateko asmotan joan nintzen bus geralekura eta busa ez zen bertatik igaro. Urteroko kontua da", dio.

Beste hainbat egoera ere salatzen ditu Montielek. Esaterako, autobusa geltoki batera beteta heldu, eta itxaroten daudenak ezin sartu izatea. "Eskoriatza-Deba linean, esaterako, ez dago aukerarik txartelik erosteko Bergarako bus geltoki

zein geralekuetan, eta oso ohikoa da Arrasatetik busa beteta etorri eta jendea kalean geratzea. Lurraldebusak eta Pesak ez dute zerbitzua bermatzen".

Internetetik ere arazoak

Bergararraren esanetan, gainera, txartela Internetetik erosteko aukera ematen duten ibilbideetan ere egoten da arazorik. "Eskoriatza-Donostia linean, Zarautzen gelditzean ere arazoak izaten dira; Internetetik hartu, baina txartela erosita ere kanpoan gera zaitezke. Bestetik, bada jendea arazoak dituen Internetetik erosteko, adinekoa delako edo beste arrazoiaren bat tarteko". Dio sinadura bilketak izandako erantzunak erakusten duela jendea nazkatuta dagoela egoerarekin, eta gaineratzen du erantzun horrek arduradunen erreakzio bat ekartzea espero duela.

Metastasi hepatikoa saihesteko ikerketa bat, AEBetara

Euskal Herriko Unibertsitateko Signaling Lab taldeko minbizia- ren dibisioak metastasi hepatikoa txikitzeko nanopartikula bat garatu du, eta Ameriketako Estatu Batuetako Osasun Institutu Nazionalak azterketa arreriklinikoaren programan probatuko du. Saguekin egindako probetan, %80ko eraginkortasuna erakutsi du.

Bergaran bizi den Iker Badiola EHUko Medikuntza eta Eri- zaintza Fakultateko irakasle ondarroarra da ikerketaren zuzendaria. Nanopartikula EHUK patentatu ostean, Nanokide Therapeutics SL enpresari transferritu zitzaion formulazioa -Badiola bertako bazkide sortzaile da-, eta, hain zuzen ere, AEBetako Osasun Institutu Nazionalaren Minbiziaren Institutu Nazionalak hautatu du laborategi homologatuetan proba arreriklinikoak egiteko.

HEMEN

DA

DANIBAKA))))))

M U S I K A L E H I A K E T A

5.
ALDIA

BERRIZ!

- Ⓜ Bergarako Seminarixoan jokatuko da **urritik urtarrilera arte**.
- Ⓜ Debagoieneko musikari eta taldeei zuzenduta.
- Ⓜ Zuzeneko kontzertuak.
- Ⓜ **Izen-ematea zabalik Irailaren 18ra arte: *www.danbaka.eus***

ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

BABESLEA



Bergarako Udala



ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR

Amaiur

Napar askatasunaren alde Amayurko echarrian borroka egin zuten gizonai, Betiko Argia.

Horrela dio duela 500 urte Amaiurko gaztelua defendatuz gure herriaren independentziaren alde borrokatu ziren gudarien oroimenez eraikitako monolitoko idazkiak.

Amaiurko gaztelua zegoen tokian eraiki zuten monolitoa, duela 100 urte. Baina 1931ko uztaillean dinamitaz suntsitu zuten, euskal-nafarron Lizarrako estatutua eztabaidatzen ari zen garaian. Monolitoa suntsitu zuten horiek beraiek handik 5 urtera estatu-kolpea burutuko zuten.

1982an monolitoa berreraikia izan zen Amaiurko Udalaren ekimenez, eta Nafarroa Garaiko, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Tamalez, duela 40 urteko batasun hori ez da irudikatu gure bailarako udaletan. Amaiurko erresistentzia

TAMALEZ, DUELA 40 URTEKO BATASUN HORI EZ DA IRUDIKATU GURE BAILARAKO UDALETAN

gogoratzeko, mozioak aurkeztu dira ikurrinaren alboan Nafarroako bandera jartzea eskatuz, bi ikurrak euskal-nafar guztionak baitira. Modu honetan, gogoratu nahi da 1200. urtean bortxaz

konkistatu gintuzten arte gure bailara Nafarroako estatuaren baitan zegoela.

Gaur egun, ofizialki, ikur bat EAEkoa da eta bestea Nafarroa Garaikoa. Gainera, ikurrina Nafarroa Garaiko instituzioetan eta bandera nafarra EAEkoetan jartzea debekatuta dago. Espainiarrek argi daukate: *"Divide y vencerás"*. Horregatik, espero bezala, Antzuolako udalbatzarrean PSEk mozioaren kontra bozkatu zuen.

Baina EAJren kontrakotasunak harridura sortu du. Beraien esanetan, Nafarroako banderak ez du gure aberria errepresentatzen... Atxorrotzeko gaztelu nafarraren magalekoa den zinegotziari horrelakoak entzutea tristea da benetan.

"Guk bandera bakarra dugu eta hori ikurrina da", zioen Aitor Urrutia eskoriatzarrak, baina haren herriko udaletxeko balkoiaren erdi-erdian tente asko jarrita duten bandera Atxorrotx eta Amaiur konkistatu zutenena da.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

'Aita Mari': zifren atzeko istorioak

ISA EGIGUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Aita Mari erreskate itsasontziaren misiorik zailena izan da.

Lau erreskate egin dituzte jarraian, eta 112 lagun jada Europako lurra zapaltzen ari dira, minez betetako hilabete edo urteetako bidaiak jasan ondoren.

Eta zifra bakoitzaren atzean, historia urratzaile bat.

Hamzarena bezalakoa, 15 urteko mutil etiopiarra, ur azpian zegoela erreskatatu zutena.

Heriotza hurbiletik igaro zen, baina ez zen geratu.

Hori bai, kasuaren larritasuna zela eta, beste itsasontzi batek lehorrera eramanean zuten ospitaleratzeko.

Suzanarena bezalako istorioak, Eritreatik 13 urterekin ihes egin zuen neska. Suzanaren bidaiak hiru urte iraun zuen patera batetik Aita Mari-k erreskatatu zuen arte.

Denbora horretan guztian, behin baino gehiagotan bortxatu zuten, eta Libian bi aldiz espetxeratu zuten.

Familiak zuen guztia saldu zuen patera ordaindu ahal izateko, neska gazteak Europatik lagundu ahal izango direlakoan.

Edo 61 urteko erizain libiarrak bezala, 8.000 euro

–haren aurrezki guztiak– gastatu zituen trafikatzailerei ordaintzen, semearekin Mediterraneoan gurutzatzeko.

Edo ama hiru seme-alabarekin, horietako bat autista, pateran hiru aldiz konortea galdu zuena.

Istorio hauek gertatzen jarraituko dute gure agintariek hala erabakitzen duten bitartean, borondate politiko kontua delako.

Hala erakutsi dute errefuxiatu ukrainarrei egindako harrera bikainarekin –eta zein ondo egina!–, Mediterraneoan edo Ceuta eta Melillako hesietan pertsonak hiltzen uzten jarraitzen duten bitartean.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Udalekuak

AMAIA CALLEJA

ARRASATE

Uztaila, udaleku garaia. Motxilak ilusioz bete eta abentura eta bizipen berrien bila Berarantz abiatu ziren gure seme-alaba gaztetxoak. Astebete, 24 ordu beren gau eta egunekin. Zenbat abentura, Kixmi, Koxme, Nika, Txomine eta Fagusen konpainian, mendian, errekan, herrian, hondartzan, basoan... hezitzaile eta monitore zoragarrien eskuetan!

Mila esker, bihotzez, gure seme-alaben onena ateratzeagatik, egun hauek magiko bihurtzeagatik, sorrazarizako irribarre guztiengatik, antolatutako jolas eta ekintzengatik, erakutsitako umore eta goxotasunarengatik... Laburbilduz, udalekuak posible eta gure gaztetxoentzat ahaztezin egiteagatik.

Biba zuek eta gora udalekuak!

Antzuolako Udalari eskerrak

JESUS MARIA MATA ETA AMAIA ETXANIZ APAOLATZA

NIGAN-EKO SUSTATZAILEAK
ANTZUOLA

Antzuolako Udalari eta eskolari gure esker ona adierazi nahi diegu, aurten ere NIGANeko ekintzek aurrera egitea ahalbidetzeagatik eta urte osoan emandako babes eta

laguntzagatik ondoren aipatuko ditugun ekintzetan.

Honi guztiari esker, seigarren mailako eta DBH-leko neska-mutilen lana garatzea posible izan zaigu, helduekin bi tailer emankor egin ditugu eta eskolako irakasleekin beste tailer bat egin dugu.

-Oso pozik gaude seigarren mailako gazteekin bi astean behin egindako ekintzen jarraipenarekin, urritik apirilera. Zenbait saiotan Antzuolako kinta horretako gehienek parte hartu zuten, eta ekimen hau ezagutu.

-DBH-leko mailakoekin hiru tailer egin ditugu; formatu desberdina erabili dugu, tailerrak igande arratsaldeetan egin ditugu, agendek ez zutelako ahalbidetzen astean zehar egitea, eta pozik gaude! 45 gazte inguru ibili dira formakuntza eta dinamika hau jasotzen.

-Helduekin bi tailer mota egin ditugu: barnekotasunerako hastapenetan, hilean behin elkartzen egon gara eta, batez beste, hogeitaz lagun etorri dira; eta beste tailer batean, ostiraletan, hiru astean behin, 40 pertsona inguru egon dira. 60 helduk jaso dute formakuntza hau.

Harritzeko eta zoriontzeko moduan gaudela uste dugu; izan ere, Antzuola herri txikia izanik, hainbeste aipatzen den *osasun mentala*-ren arloan pertsona askok interesa erakutsi eta aktiboki parte hartu du.

Gauzak horrela, bi ondorio atera ditugu: alde batetik, jorratutako gaia zeinen beharrezko eta garrantzitsua den; eta bestetik, gure herriari buruz oso ongi hitz egiten duen sintoma bat dela interpretatzen dugu, erakutsitako parte hartzea, herritarron ausardia, malgutasuna eta konpromisoa bikaina izan direlako.

Horrenbestez, honek guztionek hurrengo kurtsoan ere lanean jarraitzea animatzen gaitu eta beste ekimen batzuk martxan jartzeko prest gaude.

Hasi garen bezala amaituko dugu gutuna: eskerrik beroenak Udaletik eta eskolatik jaso dugun harrera eta inplikazioagatik; bereziki, Mikel Bargielari, Bernardori eta eskolako zuzendaritzakoei.

Zaldibartik Iñaki Arregiren 'fake'-a argituz

ENERITZ AZPITARTE ARANZABAL

ZALDIBARKO EH BILDUREN IZENEAN
ZALDIBAR

Uztailaren 1eko GOIENAK Bergarako PNVko Iñaki Arregiren gutun bat argitaratu zuen, eta bertan egileak egiten zuen baieztapen bat zuzentzera gatoz.

Gutunaren bosgarren paragrafoak hauxe dio, hitzez hitz: *Zaldibarko zabortegia zabaltzeko baimena ere Bilduko alkateak eman zuen eta argi dago zabortegi horien eredua amaitu dela betirako.*

Verter Recycling enpresari PNV-PSOEk udal gobernuek

eta PNVko alkateek eman zizkieten baimen guztiak. Artean, Bildu ez zegoen inongo udaletan; ez egoteagatik, legeztatuta ere ez zegoen.

Obra-baimena 2007ko maiatzaren 17an eman zion udal gobernua, Igor Barrenetxea-Arando jeltzalea alkate zela. Agindutako epean ez zituztenez zabortegia eraikitzeko lanak hasi, 2008ko irailaren 4an berriro eman zion baimena udal gobernu berak.

Jarduera-baimena 2011ko maiatzaren 6an eman zion udal gobernua, Idoia Mendiolagarai (PNV) zena alkate zela. Ordu batzuk lehenago legeztatu zuten Bildu. Hamasei egun geroago egin ziren udal hauteskundeak eta Bilduk gehiengo osoz irabazi zituen. Sekuentzia hori ikusita, edonork atera ditzake ondorioak.

Behin Bildu udal gobernuan, 2015eko uztailaren 10ean, udalak ezetza eman zion Verter Recyclingen zabortegia handitzeko asmoari. Eta 2017ko ekainaren 29an udalbatzak ezetza eman zion berriro Verter Recyclingen asmo berari, Bilduren botoekin. PNVk eta PSOEk alde bozkatu zuten.

2020ko otsailean, zabortegia amildu zenean, PNVko eta PSOEk hainbat kide, Anasagasti eta Pastor tartean, saiatu ziren Iñaki Arregik urte bi eta erdi geroago dakarren *fake* zahar hori zabaltzen.

Eskatu nahi diegu Iñaki Arregiri eta bere alderdiari, erraustegien alde ekiterakoan

eta, oro har, hondakinen trataeraren beren politika defendatzerakoan, ez dezatela gezurrik erabili. Ez da erraza izango, baina esperientzia berriek badute xarma.

Munduko ibai kutsatuena

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Sasoi batean, bailarako industriek nahi zutena isurtzen zuten Deba ibaira eta kolorez tindatzen zuten; legeak gogortu ahala, industriek ekoizpena kanpora atera zuten.

Ibaia berreskuratzen ari da, baina gorabeherekin; duela 11 urte, ahateak eta arrainak hilik azaldu ziren; zianuroarekin hildako arrainak... Arduradunik ez dute aurkitu.

Indonesian, Java uhartean, Citarum ibaia da kutsatuena; askok nekazaritzarako eta etxerako erabiltzen dute ura, eta gaixotasun arraroak ugaritu dira. Kolore *normalarekin* doanean, janaria garbitzen dute, ez baitute ura lortzeko beste aukerarik.

Munduko beste bazter batzuk kutsatuta, berriz ekoizpena Europarantz ekartzen hasi dira; arropen kasuan, Europan gelditu diren ehungintza-lantegi apurrak topean dabilta.

Bi gauza egin ditzakegu: inguruan ekoiztutakoak erosi; eta zerbait arraroa sumatuz gero Deba ibaian, 112ra deitu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



Eneko Azurmendi ARRASATE

Enpresako ordezkariaren esanetan, pandemiak mundu osoko produkzio kateak eten ditu, eta Ukrainako gerrak "areagotu" egin du egoera ezegonkorra. "Horrek eragin zuzena izan du kontratuan eta izugarri zaildu du edozein obra egitea. Era berean, exekuzioaren azken hila-beteetan zenbait aldaketa egin behar izan dira eta epean eragin zuzena izan dute horiek".

Orain arte ez moduan, ia aho batez onartu zuten puntua, EH Bilduren babesarekin. "Ezberdintasun bat dago kasu honetan, guk betidanik eskatu izan duguna kontuan hartzen baita; hau da, enpresari erantzukizuna eskatzea eta diru publikoaren zaintza", zioen Maider Morras EH Bilduko bozeramaileak.

Izan ere, esan moduan, oraingoan, diktamenak jasotzen du enpresari penalizazioak eskatzea, hala badagokio; atzerapen egun bakoitzarengatik, 3.298,68 euro.

Anuska Ezkurra Udal Gobernuaren bozeramaileak azpimarratu zuen guztien nahia dela musika etxea bukatzea. "Orain arte, udal zerbitzu teknikoek beti egin izan dute luzatzearen alde, eta horregatik egin dugu aurrera. Oraingoan, zalantza gehiago agertu dira. Beraz, aurrerantzean, goazen aztertzeraz e luzapen eta ze erantzukizun egongo diren. Enpresak erantzukizunak bere gain hartu behar baditu, hartu egingo ditu, baina azken luzapenarekiko".

EH Bilduk, bilkura amaitu ostean, ohar bidez azaldu zuen diru publikoaren kudeaketa arduratsua egiteko "konpromiso sendoa" dutela. "Gestio ardurasua egiten denean, Arrasateko EH Bilduk bidea errazteko duen jarrera argi geratu da".

TAOn aldaketak datoz irailean

Alegazio epea amaituta, TAOn behin betiko aldaketak onartuta geratu ziren eta irailaren 1ean jarriko dira indarrean. Hala, Zerrajeran, Jose Luis Iñarran eta Erguingo kale batzuetan sistema ezarriko dute eta edozein gunetan doakoak izango dira lehen bi orduak. Aldaketak indarrean jartzearekin batera, sentsibilizazio kanpaina txiki bat egingo du Gobernuak, herriarrak ohitzen joan daitezen.

Podemos Arrasatek Gobernuari leporatu zion alegazioei kasurik egin ez izana, eta aldaketak



Juan Arzamendi Musika Etxea, uztailako bigarren astean. E.A.

Abuztuaren 16ra luzatu dute epea

Juan Arzamendi Musika Etxea bukatzeko epea hirugarrenez luzatzea onartu zuen udalbatzak martitzenean: abuztuaren 16ra arte. Jakoba Korta Construcciones Moyua SL enpresako ordezkariak hitza hartu zuen saioan, atzerapenaren arrazoiak azaltzeko

lehenesteko irizpide argirik ez dagoela gaineratu zuen. EH Bilduk bat egin zuen horrekin, eta kontra bozkatu zuen. "4.000 sinadura jaso zituzten erreferendum bat egiteko eta ez zuten onartu. Baina 2.200 pertsona bizi diren auzo batean, Erguinen, 300ek bozkatu zuten, horietatik erdiek eman zuten baiezkkoa, eta hori onartu egin zuen Gobernuak". Ezkurak zera erantzun zuen: "Alegazio asko jaso ditugu, zortzi multzotan banatuta, eta guztiak landu dira Hirigintza batzordean".

Ermita eta dirulaguntzak

2022ko aurrekontuaren kredituak aldatzea ere onartu zuten. Aldaketa horietako bat da San Juan Bataiatzailea parrokiari 24.000 euroko dirulaguntza ematea, San Isidro ermitaren teilatua konpontzeko, eta hori ez du begi onez ikusi EH Bilduk. "Ger-

TAO-REN BEHIN BETIKO ALDAKETAK IRAILAREN 1EAN SARTUKO DIRA INDARREAN

tatzen ari dena da Elizak ez duela Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzen, Udalak hamar urtean 164.000 euro eman behar dizkiola, eta inoiz ez duela edukiko ermitaren jabetza. Gu horren aurka gaude".

Maria Ubarretxena alkateak adierazi duenez, 2007an sinatutako hitzarmena agortu egin da eta Elizarekin berritua egin ditzute negoziaketak. "Beste hamar urterako hitzarmen bat lortu dugu. Kasu honetan, Udalak alokairu bat ordainduko dio Elizari, baina Eliza konprometitu da ermitari dagokion teilatua berak konpontzeko. Horretarako, 150.000 euroko aurrekontua dute, gutxi gorabehera". Era berean, esan du auzotarrek behin eta berriz eskatu izan diotela ermitako teilatua konpontzeko, "oso ermita maitatua" delako auzoan. "Hori dela eta, diruz laguntzea erabaki dugu, erretiratuak han jarraitzea bermatzearekin batera".

Hainbat mozio mahai gainean
Zortzi mozio eztabaidatu zituzten. Horietako bat Pertsona Errefuxiatuen Nazioarteko Egu-

nari buruzkoa izan zen, eta onartuta geratu zen, EH Bilduren eta Podemos Arrasateren baiezkorekin eta EAJ eta PSE-EEren abstentzioarekin.

Horrez gain, Zuztarrak Errotuz Elkartek Alfontso VIII kalea kale-izendegitik kentzeko aurkeztutako mozioak ez zuten aurrera egin, EAJk eta PSE-EEK ez zutelako babestu. "Horrelako eskaeretan, ikusten dugu falta dela prozedura bat, nola landu jakiteko", azaldu zuen Ezkurak. "Hala ere, espero dugu aurrera begira bide bat sortzea horrelako mozioak landu ahal izateko".

Hain zuzen, "herriko kaleen izenak aldatu aurretik lanketa berezia egiteko", beste mozio bat aurkeztu zuten Udal Gobernuak bi alderdiek, eta hori onartu egin zen.

Oposizioiko bi alderdiek Gobernuari leporatu diote behin

UDAL LOREZAINAK GREBAN DAUDE ETA ZERBITZUKO PLEGUEN ONARPENA IRAILERA ATZERATU DUTE

eta berriz "kontramozioak" aurkeztu izana: "Gurea ez onartu eta haiena onartzeko". Nabarmendu dute aipatutako "kontramozio" horien adibide dela, esaterako, osasun sistema publikoaren gainean bi mozio aurkeztu izana.

Aretoko erretratuak berbagai

Podemos Arrasatek, era berean, beste mozio bat aurkeztu zuen, "Arrasatek parekidetasunarekin daukan zor historikoaren hausnarketa amaitu arte osoko bilkuren aretoko erretratu guztiak kentzeko" eskatuz. Izan ere, gaur egun dauden laurak gizonezkoenak dira. "Aurreko agintalditik dator gaia. Orduko hartan, EAJk akordioa hautsi egin zuen. Orain, hausnarketa berdintasun egotira batetik hasi ahal izateko, koadro guztiak kentzea eskatzen dugu", zioen Eva Abuinek.

Johanna Sanchez Berdintasun Saileko zinegotziak proposatu zuen orain arte landutakoa jaso eta lanean jarraitzea. "Aurrekontuan diru partida bat jarri eta goazen parekidetasuna bilatzera. Hala ere, ez dugu uste gizonak kriminalizatu behar direnik, hori alderantzizko matxismoa delako. Beraz, parekidetasuna bilatu behar dugu, eta ez alderantzizko matxismoa".

Ezkurak zera gaineratu zuen: "Heldu diezaiozun gaiari. Berandu gatoz, bai, baina lanke-tarako prest gaude".

Udal lorezainak, greban

Udal lorezainak greba mugagabea daude astelehenetik, hitzarmen estatuala dutelako eta, hori hobetzeko ahalegina egin arren, ez dutelako akordiorik lortu enpresarekin. Osoko bilkuran egon ziren eta udal ordezkariak eskatu zieten bitartekari lanak egin ditzaten langatazka konpontzeko.

Arrasateko udal lorategien eta berdeguneen mantentze zerbitzua emateko kontratuko pleguak ziren onartzekoak, baina langileek eskaera egin zuten plegu horiek ez onartzeko enpresarekin akordio bat lortu arte, eta puntua erretiratu egin zuten, eta iraileko atzeratu. Gobernuak zein oposizioiko udal ordezkariak laguntzeko prest azaldu ziren eta EH Bildu harago joan zen: lanpostu horien publikazioa aldarrikatu zuen (Osoko bilkuran emandakoaren kronika zabalagoa, *Goiena.eus* webgunean).

Udala auzoa udan autoz betetzen dela salatu dute

Udalako hainbat gaztek haserre erakutsi dute, eta udan auzoa ibilgailuz betetzen zaiela salatu; hori dela eta, irtenbideak eskatu dizkiote Arrasateko Udalarari: "Kalean ezartzen diren errespetu politikak guretzat ere izatea eskatzen dugu, ez gehiago"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Koldo Zubia, Egokiñe Bolibar, Ion Bolibar, Igor Murgoitio, Eider Murgoitio eta Mirari Plazaola Udala auzoko bizilagunak dira, eta, aitortu dutenez, Udala auzoak eskaintzen dituen aisialdi aukerak "preziatu" bihurtzen dira guztientzat uda sasoian: "Paraje ederrak, mendi buelta eleganteak, lasai egoteko belardiak... Auzo ederra da eta Udala gazteok ere gustura jasotzen ditugu bisitari eta lagunak", adierazi dute.

Edozelan ere, kezkatuta azaldu dira jendeak joan-etorri guztiak autoz egin eta "auzoa autoz betetzen" delako. "Bazter guztietan edozein modutan aparkatuta egoten dira auto horietako asko: baserri eta baso bideetan, belardian, etxe atarian, bide bazterrean, iturrian eta abar".

Urtero errepikatzen den arazoa

Nabarmendu dutenez, urte urte errepikatzen den egoera da autoen masifikazioa. "Ez da arazo puntuala, eta hemen ez da ezer aldatzen", diote. "Pentsa zein den gure ezinegona, Udaltzaingoari ordena jartzeko hainbat dei egin behar izan diogu. 'Guk ezin dugu ezer egin' erantzun digute, arazoa 'koiunturala' dela diote. Nola da posible, baina?", diote, haserre.

Arrasateko Udalarari bi eskaera

Erdiguneko egoera "erabat ezberdina" dela adierazi dute: "TAO sistemak bermatzen omen du aparkalekuak erantzukizunez erabiltzea, baina erantzukizuna auzoetarako ez da iristen. Auzoetara iristen dena da TAOtik ihesean datozen auto pila. Hemen ez dago ez erantzukizunik, ez trafikoarekiko kontzientziarik, ez garraiobide berdeen aldeko apusturik".

Hala, "duintasuna eta soluzio azkarra" eskatu diote Arrasateko Udalarari: "Auzotarrok bigarren



Udala auzoan, autoak bide bazterretan aparkatuta. E.M.



Autoa eta furgoneta, etxerako sarrera oztopatzen. E.M.

Ibilgailuak etxeko sarreran, traban

Bizilagunek azpimarratu dute eskaera horiek ez dituztela "kapritxo" egiten. "Kontua da etxetik irten ere ezin garela egin batzuetan; are gutxiago, traktorearekin baserriko lanak egin. Horrekin guztiarekin, gure auzoko bidea arriskuz betetzen zaigu".

mailako herritar sentitu ez gaitetzen". Bi eskaera zuzen egin dituzte: "Udan bada ere, herri autobus linea bat Udala auzora bideratzea eta egun dauden aparkalekuen erabilera zuzena bermatzea eta gure baserrietako

irteerak, baserriko lanak egiteko traktoreak pasatzeko bideak eta abar libre egoteko neurriak hartzea".

Udal Gobernuak, azkenik, adierazi du Hirigintza batzordean lantzen ari direla gaia.



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Bidean, aurrera begira

Nire pasio handienetakoa da historia, Antzinarotik hasita gaur egunera arte. Unibertsitatean ere historiaz eta diakroniaz ziharduten gaiak ikasi nituen gogo bizienaz.

Halere, beti iruditzen zaizkit xeble samarrak iraganaren mitifikazioak, eta historian zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta arrotzago bihurtu zaizkit. Uste dut, gainera, itxaropen txikiko garaietan direla erabiliak iraganeko gertakarien inguruko kondaira epikoak. Nolabait, gaurkotasan zatarretik ihes egiteko lo-belarra dirudite gehiago, oroimen ariketa baino.

Horregatik, aspaldiko erresumen inguruko nostalgia politikoak apur bat kezkatzen nau. Historian, gaurkoak bezalako erronkak inoiz ez ditugu izan: kapitalismoaren gainbehera, suntsipen ekologikoa, Hirugarren Mundu Gerraren itzala, Euskal Herriaren gainbehera politikoa... eta soilik gazteria kementsua buru duen proiektu batek erantzun diezaieke, paradigma aldaketarako abagune historikoaren haseran gaudelako, eta ezin garelako geratu Erdi Aroko aurrirromantikoei begira, gure aurririak izan arren.

Horazio Argarate Arrasateko parrokiara itzuliko da irailean

2019az geroztik, Oñatiko parrokoa da; irailaren 4tik aurrera Arrasatekoa ere izango da, biak uztartuko ditu

E.A. ARRASATE

Bi parrokien ardura Horazio Argaratek izango badu ere, ez dela bakarrik egongo argitu nahi izan du: "Ardura nik izango dut, baina Arrasateko Pako Etxebeste eta Soraluzeko Jon Loiola ere hor egongo dira, hiruron artean egingo dugu". Azaldu duenez, Etxebestek dagoeneko 75 urte ditu eta adin horretan "ez da ohikoa parroko izendatzea". Horrek eragin du, hein batean, erabakia. Era berean, Loiolak "partzialki" lagunduko duela ere zehaztu du. "Baina oraindik

Bartzelonan ikasketak amaitu behar ditu eta batzuetan hara joan beharko du".

Lan banaketari dagokionez, oraindik zehazteko daukate, oraindik ezin izan direlako elkartu, baina uztail amaierarako zehaztuta egongo dela azaldu du Argaratek. "Egunak, goiz, arratsalde edo dena delakoa, nola egingo dugun banaketa".

Bestalde, azken hiru urteetan Arrasateko parrokoa izan den Victoriano Etxabek Elgoibarko eta Soraluzeko parrokien ardur hartuko du.



"Eskerrak eman nahi dizkiet bezero guztiei"

MAITE AGIRRE AMAGARA ESTETIKA ZENTROA

Erretiroa hartzeko ordua heldu zaio Amagarako Maite Agirreri, eta uztailaren 29an irekiko ditu zentroko ateak azken aldiz; ilusioz eta gustura dago etapa berria hasteko

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE

Urte askotako esperientzia du Maite Agirrek estetika munduan. Zerkaosteta kalean zegoen Esleu ile-apaindegian estetika zerbitzua eskaini zuen hamar urte baino gehiagoz, baina 1991ko urriaren 10ean zabaldu zuen Amagara estetika zentroa. Ordutik, aurpegi nahiz gorputzeko tratamenduak, depilazioa eta solarium zerbitzua eskaini dizkie arrasatearrei. Orain, uztailaren 29an, erretiroa hartuko du Agirrek, eta, horrekin batera, ateak itxi-ko ditu zentroak.

Datorren egubakoitzean jubilatuko zara. Nola sentitzen zara?

Burua gainezka daukat. Fronte asko ditut zabalik, baina gustura eta ilusioz nago. Gogo handia dut amaitu, etapa berri bat hasi eta horretaz gozatzeko.

Etap berriaz hitz egin duzu. Zer dator orain?

Ziurrenik, denbora libreaz gozatzeko unea izango da, orain arte ez baitut askorik izan. Bestetik, lana dela-eta egin ezin izan ditudan ekintzetan zentratuko naiz; esaterako, kirolean eta zaletasunetan. Baina, batez ere, familiarekin egongo naiz. Bi alaba eta bi biloba ditut Bartzelonan, eta familia-etapa horretaz disfrutatuta nahi dut.

Zer da lanean gehien egitea gustatu zaizuna?

Aurpegiko tratamenduak. Bezero asko fidelak direnez, urtero egin dituzte tratamenduak eta emaitzak ikusten dituzte. Gainera, euren poztasuna ikusten duzu. Bakoitzaren genetika ezberdina da, baina, eskainitako zainketari eta aholkuei esker, erantzun oso onak jaso ditut.

Urte hauetan denetik bizi izan duzu.

Urte onak bai, baina gogorrak ere pasa ditugu: 2008ko krisi ekonomiko eta finantzarioa, Fagorren erorketak herrian eragindako krisia, eta azken bi urteetan pandemia. Garai zailak izan dira; emozionalki guztion-



Maite Agirre, Amagara estetika zentroaren parean, Erdiko kaleko 54. zenbakian. I.A.

"BEZEROEKIN DUDAN HARREMAN ESTUA FALTAN IGARRIKO DUT, BAINA MANTENTZEA ESPERO DUT"

tzat gogorrak eta lan arloan ziurgabetasunez beteak. Zorionez, aurrera egin dugu eta duela gutxi bezero batek esan zidan bezala, "gutxienez, agenda bete daukan negozio bat izateaz harro".

Zerbait faltan botatzekotan, zein izango da?

Bezeroekin sortutako harreman hori. Hala ere, espero dut harremana mantentzen jarraitzea, oso harreman estuak bihurtu baitira asko.

Nola aldatu da estetikaren sektorea urte hauetan guztietan?

Ia dena idatzirik dago. Baliteke lehen, norbera une jakin batzuetan zaintzea soilik, adibidez, ospakizun bat zeukanean. Orain, hori aldatu egin da eta jendeak badauka ohitura zainketa horri jarraipena emateko. Aurrerapen asko egon dira. Depilazioan, esaterako, laser depilazioa asko

igo da. Makillaje eta manikura sektorea ere asko aldatu da.

Edertasunari garrantzi handiagoa ematen zaio orain?

Lehen, agian, zainketak noiz-behinka egiten ziren; orokorrean, momentu berezietan. Gaur egun, kontzeptua aldatu egin da, iruditzen baitzait hobeto sentitzeko eta zaintzeko egiten direla.

Nola ikusten duzu saltoki txikien egoera?

Uste dut ondo lan egin daitekeen sektorea dela, baina egia da oso sakrifkatua dela. Korrontearen kontra egiten da lan eta gainontzekoak libre daudenean, lan gehiago egitea tokatzen zaizu. Gainera, orduak luzatzen badi-ra, konplikatu da lana eta bizi-tza pertsonala uztartzea. Benetan gustatu behar zaizu egiten duzuna, eta askok ordutegiari eta egutegiari erreparatzen diote. Zerbitzuen sektorean zaila da hori.

Nola agurtu nahi dituzu herritarrek?

Eskerrak eman nahi dizkiet, bihotzez, oso urte ederrak izan direlako bai profesionalki, baita pertsonalki ere. Bezero asko pasatu dira urte hauetan, guztiak apartak, eta asko eta asko lagunak dira jada.

Argazki lehiaketa antolatu du Besaide Mendizale Elkarteak

Irailaren 20ra arte hartu daiteke parte lehiaketan eta mendiari lotutako bi lan aurkeztu ditzake bakoitzak

I.A.A. ARRASATE

Besaide Mendizale Elkarteak argazki lehiaketa jarri du martxan, eta dagoeneko lanak aurkeztu daitezke, besaide@besaide.eus helbidera bidalita; irailaren 20a izango da parte hartzeko azken eguna. Gaia *mendia* izango da, eta, Euskal Herriko mendi inguruak ikusarazteaz gain, elkartearen lokaleko irudia eraldatu nahi dute lehiaketa honen bidez.

Besaide Mendi Elkarteko ki-deen argazkiak, Arrasateko herritarren argazkiak, beste guztiak eta herri bozketa mailetan banatu dute lehiaketa, eta kategoria bakoitzeko lehenak 50 euroko saria eskuratuko du; bigarrenak, berriz, 25 eurokoa. Era berean, lehiakide bakar batek bi obra aurkeztu ditzake, baina ezin izango ditu bi sari edo gehiago irabazi.



Ahuntzak, Kurtzebarrin. GOIENA

Lehen hiru kategorietan, epai-mahaiak aukeratuko ditu irabazleak, kalitate artistikoa, teknikoa eta gaiarekiko lotura kontuan hartuta. Herri bozketan, ordea, argazkiak lokalean jarriko dituzte ikusgai eta herritarrek bozkatu ahal izango dute.

Festan murgildu dira Maalako Errebaleko auzotarrak

Uztailaren 26an, Ferrerías kaleko jaiak ospatuko dituzte eta abuztuaren 27an, berriz, Zarugaldekoak

I.A.A. ARRASATE

Gaur ospatuko dituzte Maalako Errebaleko jaiak, eta 08:00etan emango zaie hasiera, etxafuegoekin. Adin guztiei zuzendutako egitaraua antolatu dute; jarduerak arratsaldeko bostetik aurrera izango dira. Umeen-tzako jolasak egongo dira, eta ondoren, txokolatea Maalako madalenekin jateko aukera izango dute bertaratzen direnek. 19:30ean, txikiteo musikatua egingo dute, eta 21:00etan, Estradetan afaria izango da. AZ Gaubelak taldeak giro-tuko du afalostea, eta suzko erroberen txanda izango da 23:00etan.

Ferrerías kaleko jaiak

Datorren martitzenean, 08:00etan botako dituzte suzirriak Ferrerías kaleko jaiei hasiera emateko. Eguerdian, berriz, txistulariek kalejira egingo dute. Gainontze-

ko ekitaldiak arratsaldean izango dira. 17:00etan, esaterako, haurren jolasek eta txokolate-janak hartuko dute kalea. 19:00etan, bi ekitaldi izango dira: alde batetik, erraldoien konpartsa txikiak eta txistulariek alaituko dute Ferrerías; bestetik, meza izango da parrokiaren. Eguna amaitzeko, kale afaria eta dantzaldia antolatu dituzte.

Zarugalde kaleko jaiak

Abuztuaren 27an izango dira Zarugaldeko jaiak, eta egitaraua prest dute. 11:30ean botako dute txupina eta haurrentzako jolasak egingo dituzte jarraian. Ostean, triki-bertso poteoa, mus eta par-txis txapelketak, *Zeuk ein zeuk jan* merienda eta bonba japoniarrak izango dira. Gauean, berriz, afariaren ostean, AZ Gaubelak taldearekin dantzaldia eta zezensuzkoa izango dira.

"Sadarrera zaleak partidua jokatzera doaz"

AITOR FERNANDEZ ABARISKETA OSASUNAKO ATEZAINA

Levanten lau denboraldi egin eta gero, Arrasatekoak hiru urterako kontratua sinatu du Osasunarekin. Etxekoengandik gertu egoteko beharra daukala aitortu dio GOIENARI

Xabier Urtzelai ARRASATE

Aitor Fernandez Abarisketak (Arrasate, 1991) ez du gordetzen azken bi denboraldietan bizi izan duena. "Aitaren heriotzak eragina izan zuen nire kirol mailan, eta iazko urtea ez zen batere erraza izan. Hala, etxera etortzeko beharra sentitu dut, urte asko egin ditut kanpoan eta Osasuna moduko klub baten eskaintza jasotakoan garbi ikusi nuen, lekuz aldatzeko ordura zen".

Sanferminak Iruñean bizi izan dituzu. Hamaika hilabeteko alabarekin, baina, bestelako jaiak izango ziren.

Bada, inoiz egon gabe nengoen sanferminetan, eta, pisua erdialdean dugunez, jaietan nahiko murgilduta ibili gara. Alabarekin ibili gara kalean gora eta behera, kiliki eta erraldoien atzetik... Alkandora edo kamisetara zuria banuen, baita zapi gorria ere, baina praka zuririk ez, eta zale batek baino gehiagok esan dit kalean: "Aitor... ¡ponte pantalones blancos! Ja-ja-ja".

Aurkezpenean ez zenuen gorde aitaren heriotzak eragina izan duela kirol errendimenduan. Oso harreman estua zenuten...

Zalantza barik; pentsa, kapaz ginen egunean hirutan telefonoz berba egiteko, eta egun batetik

bestera halako hutsune bati aurre egitea ez da erraza. Behera-kada izan nuen, bai, oso jokalaria gutxi daude %100ean egon barik kirol errendimendu ona eman dezaketena, eta ni ez naiz horietako bat.

Zer moduz egokitu zarete hirira?

Oso ondo, nahiz eta egia den ez daudela pisu asko aukeratzeko, eta ez dut neure burua txalet baten ikusten. Levanterekin kontratua eten aurretik Iruñean geunden pisu bila, garbi nuen etorri egingo ginela. Etxekoengandik gertu egon gura genuen, bikotekidea bera getxoztarra da, eta garbi geneukan hori. Zapatuan 10:00etan jokatu genuen denboraldiaurreko partidu bat, eta bazkaltzera Arrasatera etorri ginen. Kanpoan egon denak bakarrik daki horrek zenbat balio duen.

Osasunan aspaldiko ezagun bat egoteak eragina izango zuen, Ja-goba Arrasate.

Bai; Numantzian oso urte onak egin genituen eta entrenatzaile

"ETXEKO TXIKIAREKIN KALEAN IBILI GARA SANFERMINETAN, KILIKI ETA ERRALDOIEN ATZETIK"

batek lan zelan egiten duen dakizunean lasaitasuna ematen dizu. Eta Osasuna aspaldian dabil gauzak oso ondo egiten, ikustea baino ez dago. Gauza bat esango dizut, gainera, aitak bazuen Osasunarekin zera berezi bat, gustatzen zitzaion taldea... Izugarri poztuko zatekeen.

Levanteke azken urteak ez ziren, seguruenik, nahi modukoak izango. Baina lehen bi urteetan ikusgarri ibili zinen han.

Bai, bai, lekuz aldatzeko beharra neukan, baina oso garbi daukat Levantek atezain moduan zer eman didan, dena eman dit eta oroitzapen oso onak gordetzen ditut. Oso eskertuta nago, eta presidenteari ere esan nion agurrean, etorkizunean jokalaria moduan ez baina beste zerbaitetarako nire beharra baldin badute, deitzea baino ez dute.

Zer moduz hasi duzu denboraldiaurrea?

Bada, ondo sentitzen naiz. Eta egia esaten badizut, gauden sa-soirako aurreikusi baino txispa handiagoarekin ikusten dut neure burua.

Lehia polita izango duzu Sergio Herrerarekin.

Bai, Sergio izugarrizko maila ona erakusten dabil eta horrek bultzatzen zaitu zuk ere zure bertsiorik onena erakustera. Ez



Aitor Fernandez, aurkezpen-pressurrekoan. OSASUNA FUTBOL TALDEA

zait gustatzen inork barregarri uztea; horregatik, lana gogor egingo dugu. Lehiakortasun sanoak bi atezainek mailaz igotzea ekartzen du, eta hori ona taldearendako. Hau, azken batean, talde kirola da, eta nork jokatu behar duen entrenatzaileak erabakitzen du. Eta ez jakatuta ere ekarpena egin behar da, berdin. Garaipenak ez dira berdegunean egon diren hamai-kak jokalarienak soilik.

Sadarreko harmailek bultzatzen egiten dute. Bultzada hori igartzeko gogoz?

Kontrario moduan etortzen ginen sumatzen genuen hori, bai. Amari komentatzen nion aurrekoan Sadarrera zaleak ez direla partidua ikustera joaten,

"LEVANTE TALDEAK DENA EMAN DIT ATEZAIN MODUAN, ESKER BERBAK BAINO EZ DITUT"

partidua jokatzera joaten dira, eta liga amaieran horrek puntuak ematen ditu.

Osasunak aurten oso liga txukuna egin du, azkar lortu zuen mailari eustea. Baina bigarren mailatik igo berri diren taldeek aurrekontu handia dute. Urte gogorra izango da.

Beti esan ohi dut ligan zortzi talde daudela gainontzekoengandik koska bat gorago, eta gainontzeko hamabi taldeei, normalean, sufritzea tokatzen zaiela, elkarren arteko borroka izaten dutela. Beti egoten dira salbuespenak, edo ezustekoa ematen duen talde bat. Baina bestela... Eta Osasunak badaki urtero gauzak oso ondo egin behar dituela mailari eusteko. Aurten Levanten pasa zaiguna izan daiteke adibide bat; nire ustez, oso talde ona geneukan, baina kategoria galdu genuen. Borroka oso berdindua izango da, eta hor egon behar dugu.

Balantze positiboa egin dute Mondak eta ARTk, batzarretan

Arlo ekonomikoan galera barik eta kirol ikuspuntutik pozik amaitu dute denboraldia bi klubek

X.U. ARRASATE

Mondra Futbol Taldeko eta Arrasate Rugby Taldeko zuzendaritzako kideek denboraldiaren gaineko balantze positiboa egin zuten joan den astean bazkideek aurrean egindako batzar oroko-

rretan. Arrasateko futbol taldeari dagokionez, erabateko adostasunarekin onartu zuten bazkideek iazko urteko balantzea, eta, behin pandemia gaindituta, normaltasunera itzultzeko aurrekontua aurkeztu zuen zuzen-

daritza taldeak. "181.000 euroko aurrekontua izan genuen iaz, eta badirudi aurtengorako aldea asko handitu dugula [209.000 euroko aurrekontua izango dute]. Baina ez da hala, kontua da iazko aurrekontua oso baldintzatu egon zela pandemiagatik", adierazi du klubeko presidente Xabi Etxeberriak.

Kirol arloan zuzendaritzak balantze positiboa egin zuen, aldaketa askoko urtean, eta ia %100ean etxeko jokalariekin jakatuta, talde nagusia liga

amaierara arte aurreko postuen borrokan ibili zelako. Bestalde, harrobiarekin gertuagotik lan egiteko beharra ikusi du zuzendaritzak, eta horretan ahaleginduko da kirol zuzendaritza berria.

ART: pozik eta osasuntsu

Errugbi taldeari dagokionez, zuri-moreak "oso pozik" agertu dira klubak aurten kirol arloan egin duen lanarekin eta eman dituen aurrerapausoeekin; arlo ekonomikoan, berriz, erakutsitako datuek "osasuntsu" dagoe-

la berretsi dute. Aurten ia 78.000 euroko diru-sarrerak izan dituzte, eta 78.937 euroko gastuak.

Gastu gehienak kirol jarduerari bideratutakoak izanda, hori berdegunean islatu da. Senior mailako mutilen urtea "bikaina" moduan definitu dute, taldea Euskal Ligako 1. Mailan hirugarren sailkatu eta gero. Nesken taldea proiektu berria da, eta emaitzarekin pozik agertu dira: "Partida guztietan lehiatu dira, eta azken partidua irabazi egin zuten".

Barsanti, Lasala eta Ertza, Udazabal ixteko

Orain artekoaren balorazio baikorra egin du Karmelo Alberdi Kultura teknikariak, bai emanaldien mailari eta bai jendearen erantzunari dagokionez –"dena oso ondo joan da"–, eta programa amaitzeko falta diren saioetara gonbidatu ditu herritarrek

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Bihar, zapatua, 20:00etan, Lasala eta Ertza konpainien lanak ikusteko aukera izango da Zaldibarren: *Alive* eta *Dye Dye*, hurrenez hurren. Dantza garai-kidea eta beste arte diziplina batzuk ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Judith Argomaniz donostiarren konpainia da Lasala. Duela hamar urte jaio zenetik sortutako hainbat lan saritu dituzte bertan zein nazioartean. Argomanizek berak Gipuzkoako Dantzako Profesionalek Elkar-tearen Errebelazio Saria jaso zuen 2017an, "koreografia eta interpretazio mailagatik eta etorkizun handia izateagatik".

Alive lanak "mugak gainditzeaz" dihardu: "Ezarritakoarekin haustez, emakume baten aukera askatasunaz –oinordetzan jasotakoaren eta ikasitakoaren pisua pisu–, norberak aukeratutako bizitza –desio duena– bizitzeaz, edozein dela ere".

Hainbat sari ditu, etxean eta kanpoan, 2004. urtean Asier Zabaleta ezkiearrak sortutako Ertza konpainiak ere; Gipuzkoako Dantzako Profesionalek Elkar-tearen Ibilbide Artistikoari Saria (2015) eta Kaleko Ikuskizun Onenari Max saria (2018) daude tartean. Dantza garai-kidea eta beste arte diziplina batzuk uztartzen dituzten ikuskizunekin "gizakiaren eta gizartearen kontraesanen inguruan galderak" plazaratzen ditu Ertzak. Idoia Rodriguez Gonzalez de Langua eta Rafael Arenas dira *Dye Dye* laneko interpreteak.

Akabo! izeneko obra eskainiko du, azkenik, Barsanti konpainiak hurrengo egubakoitzean –20:00etan, Seber Altuben–. Kaleko ikuskizunak egiteko sortu zuten konpainia Juanjo Oterok, Aritza Rodriguezek eta Pako Revueltasek –sariak eta izendapenak dituzte, bakoitzak bere aldetik, Max sarietan, esaterako–.

Akabo! lana hasi eta gutxira bizilagun bat agertuko da aldameneko eraikinetik bere burua botatzeko asmoz. Egoera hark sorraraziko dituen zalantzen bidez, suizidioa izango da taldeak jorratuko duen gaia.

Karmelo Alberdik falta diren saioetara gonbidatu ditu herritarrek: "Lasala ospe oso handia hartzen ari da dantza arloan, eta *Alive* oso potentea da. Ertza-renak ere dantza urbanoko elementuak ditu, eta ikuskizunari

indar handia ematen diote. Barsanti hirugarren aldiz dator Arrasatera: aurreko bi lanekin jendea oso gustura geratu zen, eta antzera izatea espero dugu. Drama eta komedia uztartzen dituen lana da *Akabo!*".

Kulturate Akustikoa

Irailean, berriz, Kulturate Akustikoaren txanda izango da. Amaia Miranda, Dos, Mice, Ghau, Maruja Limon eta Frank Blackfield ariko dira lehen bi asteburuetan.



Alive lanaren pasarte bat. LASALA



Dye Dye ikuskizuneko protagonistak, lanean. ERTZA



Swingtronic taldekoen emanaldia, domeka eguerdian Arbolapetan. J.I.

Arrasate Blues, bikain: "Inork ez luke jaialdi hau galdu behar"

Aurreko asteburuan jaialdian parte hartutako taldeek goraipatu egin dituzte antolakuntza eta sortutako giroa

J.I. ARRASATE

Mezu pribatuak dira –publikoren bat ere bai, sare sozialetako–, Arrasate Bluesen antolakuntzak –Ibai-arteri dagokionak, kasu honetan; Udalarekin batera antolatzen dute– jaialdian parte hartu zuten musikari eta taldeen aldetik jasotakoak, baina aire-ratzea –pasarte batzuk, behintzat– merezi du, hain dira-eta aurreko asteburuan herrian bizi izandakoaren adierazgarri.

"Eskerrik asko kultura eta herri bateko ekonomia sustatzeagatik. Zuena bezalako ekimenak dira herriak eta bizilagunak lotzen dituztenak"; edo: "Giro aparta, jendearen harrera eta ematen diguzuen kariñoa dira jaialdia hain berezi egiten dutenak. Guk edonon jotzen dugu, baina gustuz eta zoriontsu jotzen dugu maite eta zaintzen gaituzten lekuan. (...) Inork ez luke jaialdi hau galdu behar"; eta: "Plazer ikaragarria izan da. (...) Hurrengo edizioetan ere parte hartu ahal izatea espero dut"; eta beste hau: "Ohore izugarria izan da hainbesteko mimo eta kariñoz egiten duzuen jaialdi honetako parte izatea; onena opa dizuet, etorkizun oparoa!"; eta azken adibide bat: "Arrasaten badute, antza, gauzak ondo nola egiten diren jakiteko esku-liburua, ikaragarria da-eta dena ze ondo joan den. (...) Jende ikaragarria zarete. (...) Eskerrik asko, Arrasate Blues, gonbidatzeagatik; izugarritzko atsegina izan da". Mezu asko, taldeak ere makinatxo bat izan direlako,

eta hitz onak ozen antolakuntzarentzat. Musikariaren asebete-tze mailaren adinakoa izango zen emanaldietara entzule gisa joandako herritarrena, seguru.

Ibai-arteak "oso pozik"

Laudorio horiek jasota, eta asteburuan herrian bizi izandakoa bizi izanda, oso pozik, nola bestela, Ibai-arteren partetik jaialdiaren antolakuntzan jardundako Jon Apraiz: "Balorazioa oso positiboa da. Gauza pila bat genituen aurten kontra –egin duen muturreko beroa, eta beste ekintza batzuk ere bazeudela antolatuta: Zaldibarko txapelketa, Santa Marinako jaiak, Makatzenen kontzertu bat...–, eta, hala ere, izugarritzko giroa sortu da ia kontzertu guztietan. Egueneko kontzertuetan jende gutxiago ibili zen, baina ostiral arratsaldean eta gauean, eta baita zapatuan ere, jende pila bat egon zen, eta bukaerako jai monumentala izan zen, eta oso-oso pozik. Musikariaren partetik jaso dugun feedbacka oso ona izan da, oso pozik geratu dira, tabernak ere oso gustura; Arrasate eta Santa Ana hotelak beteta egon dira, eta Mondragon hotela ere nahikoa beteta egon da. Hango blues-bazkarian ere 80 lagun baino gehiago batu ginen. Zaldibarko txapelketan talde bat sartu genuen eta euren antolakuntza oso pozik zegoen sortu zen giroagatik... Oso balantze positiboa egiten dugu, jende asko eta leku askotan ibili delako".

SUV gama Hibridoa eta elektrikoa

Merkatuko ECO gama osatuen



Hyundai BAYON
Hilean

130 €-tik aurrera

- 130 €-ko 47 kuota
- Sarrera: 3.285
- Azken kuota: 9.608,49
- UTB: %9,01*
- TIN: %7,50



Hyundain badakigu zein garrantzitsua den zuretzat modu iraunkorrean mugitzea.

Horregatik aurkezten dizugu merkatuko **SUV Gama Hibrido eta Elektrikorik** osoena. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

Bayon Hibridoa (48V): merkatuko osatuen. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

KONA Gama: ezagutu Hyundai KONA Gamaren aldakortasun harrigarria eta gozatu haren bertsio hibrido eta elektrikoarekin.

TUCSON Gama: ohikotasunetik haratago joango zara TUCSON Hibridoaren eta TUCSON Hibrido entxufagarriaren diseinu ausartarekin eta azken teknologiarekin.

SANTA FE Gama: gozatu beste maila batean SANTA FE Hibridoarekin eta SANTA FE Hibrido entxufagarriarekin, eta haien 7 plaza zabalekin.

Hyundain lanean ari gara **karbono-aztarna ezabatze**ko. %100 gama elektrikoa Europan 2035erako.



HYUNDAI MUGARRI OARSO CAR

San Andres kalea 6 • Arrasate
943 79 70 06



5 URTE Km-en mugarik gabeko
Bermea

8 URTE **Bateriaren**
bermea



Mikel Arantzabal etxe aurrean. A.E.G.



Juan Ugarte, Eskarne alabarekin eta bilobarekin. A.E.G.

Balkoi eta atari politenak aukeratu dituzte

Aramaio Loratzen lehiaketako bigarren edizioko irabazleak Mikel Arantzabal Zuburruti eta Juan Ugarte Lopez de Bergara izan dira. Kategoria bakoitzeko irabazleak 200 euroko saria irabazi du; horrez gain, Ainhoa Vilchesek 50 euro irabazi ditu, zozketan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaioko balkoi, leiho eta atariak apaintzeko lehiaketak baditu irabazleak. Leihoen kategorian Mikel Arantzabalek irabazi du saria, 200 eurokoa; etxe atarien kategorian, aldiz, Uribarriko Juan Ugartek irabazi du -200 euro-.

Pedro Ignazio Barrutia kalean dauka etxebizitza Mikel Arantzabalek; etxeko begiratoki aldamenetan daukan jardineran ditu loreak. Kasu honetan, geranioak dira, kolore arrosakoak, eta huntz erakoak. "Iaz egin zuten lehenengo lehiaketa, eta orduko hartan ez zen zortetik egon, baina aurten bai", dio Arantzabalek.

Kontuz tximeletarekin

"Badira sei urte landare bera duguna", azaldu du Arantzabalek. Sekretu handirik ez daukala aitortu du. "Negu partean, egiten duen giroaren arabera, babestu egiten ditut landareak. Gainontzean, ureztatu eta abonatu egi-

ten ditut", dio. Nabarmendu du badagoela kontuan hartzeko "etsai" bat: "Tximeleta sartzeko arriskua dauka geranioak; horregatik, 15 gunean behin tratamendu berezia egiten diet landareei. Tximeleta sartuz gero, kirtenetik sartzen da eta barru osoa jaten du". Arantzabalek dio ekain erdialdean orain baino politago egoten direla loreak.

Ukitu sentimentala

Etxe atarien kasuan, Juan Ugarte eta Eskarne Ugarte aita-alabek irabazi dute saria. Kasu honetan, sariaren atzean istorio polit bat dago. "Gure amari asko gustatzen zitzaizkion loreak, eta hura hasi zen baserriko ataria lorez apaintzen... orain dela sei urte hil zen

arte", azaldu du alabak. Bada, saria irabazi dutela jakitean amarekin asko akordatu direla dio, eta omenaldi txiki bat izan dela, "ukitu sentimentala" izan duen saria.

Etxe atarian lore sikuz osatutako lore-sortak dituzte zintzilik: "Zintzilik dauden loreak basoan hartutakoak dira, baita erosita-koak ere... Sikatu egiten ditut, eta ondoren, zintzilik jarri". Guztira 50 bat sorta dituztela dio. Zaintza berezirik ez duela egiten gehitu du: "Ez, zaintzarik ez dute behar. Garbitu egiten ditugu, eta zatartzen hasten direnean berriak jartzen ditugu".

Zazpi lehiakide

Aurten bigarren aldiz egin dute Aramaio Loratzen lehiaketa. Bi kategoriatan banatuta zazpi pertsonak eman dute izena aurtengo lehiaketan. Bi sari nagusiez gain, parte hartzaileen artean egindako zozketan Ainhoa Vilches izan da irabazlea -50 euro-.

AMAK HASITAKO BIDEA JARRAITU DUTE ETXE ATARIA APAINTZERAKOAN, LORE SIKUEKIN

Ibilaldia egingo dute eolikoek industrializazio proiektuen aurka

Arabako Mendiak Aske taldeak deituta egingo dute ibilaldia, bihar, zapatua, Aramaion -09:00etan frontoian-

A.E.G. ARAMAIO

Arabako Mendiak Aske plataformak deituta, mendi ibilaldia egingo dute bihar Aramaion. Arabako mendietan eolikoak jartzeko hainbat proiektu daude aurreikusita; bada, mendi horietara egingo dituzte ibilaldiak. Proiektuak bertan behera uztea eskatzea izango da arrazoia.

Aramaiokoa izango da egingo duten lehenengo ibilaldia: 09:00etan irtengo dira frontoitik eta 12 kilometroko ibilaldia egingo dute -motzagoa izango den beste bat ere badago, 8 kilome-

trokoa, Kruzetatik irten eta han amaituko dena-. Hamarretakoa egingo dute Asenzio aspiko zelailan.

Babestu maite duzun mendia lelopean beste lau ibilaldi ere egingo dituzte hurrengo hila-beteetan: abuztuaren 20an, Azazetan, kanpaldia eta kontzertuak ere izango dira; irailaren 20an, Orozkon; irailaren 24an, Kantoblancon; eta urriaren 29an, Amurrion. Ekimena amaituko dute azaroaren 26an Gasteizen egingo dute elkarretaratzearekin.



A.E.G.

Oinezkoendako bidea egokitzen

Andra Marira igotzeko eskaileretan hasi eta Goiko Errota baserri ondoraino oinezkoendako ibilbidea egokitzen dabilta. Orain arte zegoen bide zaharra konpondu egingo dute, eta hartxintxarra botako dute. Ibilbide laua izango da, oinezkoek eroso egin ahal izateko. Izan ere, orain arte, auzotarrak errepidean ibiltzen ziren.

Argia moztuko dute uztailaren 27an, Oletan izan ezik

Uztailaren 27an, eguaztena, aldizkako argi moztetak egingo dituzte herrian, Oletan izan ezik, 10:00etatik 12:00etara bitartean, azpiegituraren kalitatea hobetzeko. Udaletik jakinarazi dute hornidura aurrez jakinarazi gabe berrezarriko dela, eta, gomendatu dute aparatu elektronikoak deskonektatzea eta igo-gailurik ez erabiltzea.

Kiroldegi atzeko hondakin berdeen gunea egokituko dute

Udalak hondakin berde gunea bat dauka kiroldegiaren atzealdean. Bada, gunea hori egokitu egingo dute Aldunditik jasotako diru lerro bat erabiliz. Julen Agirrek lurra garbitu eta egokitu egingo du 1.004,30 euroko aurrekontuarekin, eta Proteck enpresak erreka buelta babes-tuko du gunea batzuetan teilatua jarritz -8.833 euroko esleipena-.

Abuztuaren 4an zabalduko dute taberna

Oletako Kontzejuak Herriko Tabernaren kudeaketa esleipenera atera zuen apirilean: Maria Fernandez avilarrak eta Kike Muñoz cacerestarrak izango dute tabernaren ardura. Plater konbinatuak, ogitartekoak, errazioak... eskainiko dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Abuztuaren 4an, eguena, zabalduko dituzte Oletako Herriko Tabernako ateak. Apiril amaieran atera zuten lehiaketara tabernaren kudeaketaren esleipena; bada, lehiaketa eginda, Maria Fernandezek eta Kike Muñozek eroango dute kudeaketaren ardura. "Ilusioz" daude lanari ekiteko eta Oletako "komunitatearen parte sentitzeko".

Euren asmoa da goiz eta eguerdi partean zabaltzea, eta baita arratsaldeetan ere, afariak emateko. "Hasiera batean, plater konbinatuak, ogitartekoak, errazioak, pintxoak... eskainiko ditugu", azaldu dute, eta gehitu dute: "Nahi dugu produktuaren kalitatea izatea eskaintzaren oinarria, bertako produktuak izatea eta denendako moduko prezioetan". Gaur-gaurkoz, ez dute eguneko menurik eskainiko tabernan.

Kultura eskaintza

"Herri txiki batean bizi izateak dakar kultur eskaintzaren zati batera ezin iristea... Horregatik nahi dugu kultura eskaintza hori gurera ekarri", diote Fernandezek eta Muñozek. Hainbat ideia dituzte buruan: "Liburu aurkezpenak egitea, hitzaldiak, mikologia kontuak, ikastaro praktikoak...". Adibide moduan, Muñozek dio gaur egun ortu asko jartzen direla; bada, ortuetako produktuak noiz landatu, zela zaindu... Horrelako ikastaro praktikoak eskaintzea aztertzen ari dira. "Bultzatu nahi dugu gune kultural eta artistikoa, jendeak leku bat izatea jakintza bestekin partekatzeko", gehitu du.

Horrez gain, tabernak goiko aldean duen gela handiari ere zukua atera nahiko liokete, eta ikastaroak eskaintzeko aukera eman. Horretarako, baina, Kontzejuarekin berba egin behar dutela diote.



Maria Fernandez eta Kike Muñoz. TZAITEL ALDASORO

PRODUKTUAREN KALITATEA ETA GERTUTASUNA IZANGO DIRA ESKAINTZAREN OINARRIA

Landa-ingurunea

Maria Fernandez eta Kike Muñoz La Adrada (Avila) eta Campillo de Deleitoso (Caceres) herrikoak dira, hurrenez hurren. Ingurune natural batean bizi izateari garrantzia ematen diote, eta, hori horrela, Lizarra inguruan ibili dira lanean orain arte, erromesen aterpetxe batean. "Inguru honek lagunak ditugu eta eurek komentatu ziguten Oletako tabernan arduradun bila zebiltzala", azaldu dute. Berehala interesatu ziren lekuarekin, eta lehiaketara aurkeztea erabaki zuten: "Ikusgarria iruditu zaigu Urkiola parke naturala, eta, horrez gain, komunitateari zerbitzua emateak asebetetzen gaitu".

Betidanik bizi nahi izan dute landa-ingurunean, eta, horrez gain, balioa eman nahi diete landa-inguruneei eta nekazaritzari munduari.

Aisialdi-gunea

Fernandezek eta Muñozek badakite ingurunea bera aisialdirako gune egokia dela: "Mendira joan, bizikletan ibili... Jende asko ibiltzen da aisialdiaz gozatzeko, eta guk ere gustuko dugu aisialdi mota hori". Oletako Herriko Tabernaren ardura hartuta profesionalki garatzeko aukera izango dutela diote, baina euren ilusioa hori baino gehiago da: "Oletako komunitatearen parte izan nahi dugu, eta bertara egin nahi dugu". Horregatik, oletarrak, aramaioarrak eta bailarako herritarrek animatu nahi dituzte hara joan eta eskaintzaz gozatzera.

Oletarren bilgune

Martxo amaieran itxi zuten Oletako taberna, eta ordutik topaleku barik egon da auzoa. Tzaitel Aldasoro da Oletako kontzejuko lehendakaria, eta bere garaian azaldu zuen taberna dela herritarren bilgunea, auzotarrak elkartzeko gunea. Taberna zabalik egoteak animoa ematen dio auzoari, eta, horregatik, pozik daude berriro ere zabalduko delako. Betiko ohiturak berreskuratu nahi dituzte.

Reggae ukituko musika zuzenean entzuteko aukera

Iturrieta sagardotegiko Hamabostaldi Kulturalaren barruan, kontzertua egingo du Elh Malick-ek gaur

A.E.G. ARAMAIO

Elh Malick musikari senegaldarra zuzenean entzuteko aukera egongo da gaur Iturrieta sagardotegian. 19:00etan hasiko du emanaldia. Gitarra akustikoa lagun, reggae ukituko abestiak joko ditu sagardotegiko lorategian.

Izarren azpian, zinema

Bihar, zapatua, zinemaren txanda izango da Iturrietako Hamabostaldi Kulturalan. *Izarren azpiko euskal zinema* izena ipini dioten ekimenaren lehenengo saioa egingo dute. Asier Altuna *Xixi* bergararren film laburrak emango dituzte, *Euskaldunen egunerokoa* izenarekin: *Txotx*, *Topeka*, *40 ezetz*, *Sarean*, *4 soroan*, *Iraila* eta *La gran carrera*. Film laburren emanaldia 22:00etan hasiko da. Hurrengo egunean, uztailaren 28an, Aitor Alberdi-



Aldo Mila musikaria. A.M.

ren film laburrak emango dituzte, *Memoriaren istorioak* izenarekin: *Apodaka*, *Bergara Serafin*, *Esnaolaren begirada*, *Turnoka* eta *Helmholtz bi hiri bi organo*.

Uztailaren 29an, Aldo Milaren kontzertua; eta uztailaren 30ean, film laburrak.

Selekzioaren aldeko aldarria Aramaiora iritsiko da

Ofizialtasunaren aldeko mendi martxa egingo dute; abuztuaren 2an, Aramaion izango dira mendizaleak

A.E.G. ARAMAIO

Euskal selekzioaren ofizialtasuna eskatzeko mendi martxa egingo dute uztailaren 30etik abuztuaren 6ra bitartean. Zortzi etapa egingo dituzte eta horietako bat Aramaion amaituko da: abuztuaren 2an, hain zuzen. "Arratsaldean iritsiko dira eta ongietorria egingo diegu; guztira, 65 bat izango dira", azaldu du Aramaioko Udaleko Kultura zinegotzi Ana Martiarenak.

Martxan parte hartuko dutenek frontoian egingo dute lo. Hurrengo goizean, gosaldia ondoren beste etapa bati ekingo diote: Aramaiotik iritenda, Besaidera, Kanpanzarrera eta Asentziara joango dira eta etapa Bergaran amaituko dute.

20 urteko esperientzia

2000. urtean hasi zen Esait euskal selekzioaren aldeko mendi



Mendizalea. 'BERRIA.EUS'

martxa antolatzen. Azken bi urteetan ez dela egin kontuan hartuta, aurtengoa 20. aldiz izango da. Esait desagertu zela 7 urte bete dira aurten, eta mendi martxak *Gu ere bai* ekimenarekin bat egin du, kirol guztietan ofizialtasuna eskatzeko.



Udal ordezkariak eta Andramaixetan zeresana izango duten hainbat eragile eta herritar egitaraua aurkezten. MIRARI ALTUBE

Aretxabaletarren jai gogoa asetzero datoz Andramaixak

Pandemia aurreko egitarau betearekin itzuliko dira herriko jai nagusiak. Manolo Zubillagak emango die hasiera eta 60 ekitalditik gora izango direla iragarri dute; txosnagunean ere ekintza mordoa izango dira, bereziki kontzertuak

Mirari Altube ARETXABALETA

Azken bi urteetan ezin izan dira ospatu Andramaixak behar bezala, eta, hori gogoan, egitarau bete-betea gertatu dute Udaleko Kultura Sailak zein Gazte Mugimenduak. Abuztuaren 13an hasi eta 17ra bitartean 60 ekitaldi baino gehiago izango dira kaleetan, herritarrek jai giroan murgil daitezten.

Aurrekontu "potentea"

"Ohiko Andramaixak izango ditugu aurten. Herritarrek horren gogoz daudela atzematen da, eta horretara gonbidatzen ditugu. Hala ere, galdutako denbora berreskuratzeko nahiak ez gaitu itsutu behar eta elkarrekiko errespetuz jokatzeko dei egiten dut, guztiok goza dezagun jaiotan", adierazi zuen Unai El-koro alkateak jaiak aurkeztera-koan, eta Kultura zinegotzi

Ainhua Caberok berretsi zuen hori, zera gaineratuta: "Horretarako, aurrekontu potentea bideratu dugu adin tarte ezberdinak kontuan hartuta askotariko ekintzak egon daitezten". Hala, 117.902 eurora iritsi da Andramaixetako aurrekontua. Bi udal ordezkariak gaineratu zuten "ilusio handiz" landutako egitaraua dela, eta eskerrak eman zizkieten antolatzeko lanean aritu ziren pertsona eta eragile guztiei. Alkatearekin eta Kultura zinegotziarekin batera izan ziren aurkezpen ekitaldian Inma Miguel teknikaria, Jasone Gar-

**JAIO TAKO
AURREKONTUA
HANDITU EGIN DUTE
ETA 117.902 EURORA
IRITSI DA**

zia-Etxabe EH Bilduko zinegotzi eta Kultura batzordeko kidea eta Andramaixen antolakuntzan parte hartzen duten hainbat eragile; horien artean, aurtengo jaiak iragartzeko erabiliko duten kartelaren egilea, Nerea Iturbe Rojas aretxabaletarra.

Txupinazoa, Manolo Zubillagak
Manolo Zubillagak emango die hasiera jaiak, hura izango da pregoia eta txupinazoa botako dituen. "Herriarekin duen inplikazioa" aitortu nahi izan diola Udalak adierazi zuen Caberok, eta Zubillaga eskertuta eta gustura agertu zen. Alkate txikia, oster, Ihintz Alberdi izango da eta alkateorde txikia Unax Agiriano. Abuztuaren 16an, umeei eskainitako egunean, botako diren pregoiaren eta txupinazoaren ardura izango dute, eta biak



El Drogas, taldearekin, Oñatin. IMANOL SORIANO

Talde mordoa, askotariko estiloak

Musikak girotuko ditu jaiak, beste behin, eta aurtengo izarra, plazan, El Drogas izango da. Barricada talde ezaguneko abeslari izandako Enrique Villarreal Armendariz nafarrak rock doinuekin beteko ditu bazterrak. Bluesak ere izango du lekua, sortzez arrasatearra den Itziar Yague abeslari eta konpositorearen eskutik. Eta Wilson & Wilsonetis taldeak Fito&Fitipaldiren kantuak eskainiko ditu. Horiez gain, Rockalean, Los Rebeldes del Swing eta Bide batez taldeek kaleak girotuko dituzte.

Txosnagunean are eta talde gehiago izango dira, eta estiloak askotarikoak. Etxekoak gehienak; besteak beste, Txerrikumeak, Neallta fola, Jasan, Nhil, Virgin Mari Dj Set, Wood Strings eta Oihu. Kanpotik etorriko diren artean, oster, daude Merina gris, Yogurinha Borova, Erroka eta Muxutruk.

ala biak "urduri" baina "pozik" zeuden.

Hain zuzen ere, umeei eskainitako ekitaldi asko izango dira jaiotan: ohikoak diren ur-puzgarriak, Potxin eta Patxin pailazoen ikuskizuna eta askotariko jokoekin osatutako parkeak, besteak beste.

Kultura teknikariak aurrera-tu zuen gaia ez dela beldurra izango.

Berreskuratu egingo den ekitaldi bat ere badago: su artifizialak. Sasoi baten legez, abuztuaren 15ean botako dira (23:00).

'Escape room' karabana

Errotutako ekitaldiak eta ikuskizun berriak bateratuko dira jaiotan, eta berrikuntzetako bat *Escape room* karabana da; abuztuaren 14tik 17ra bitartean Kurtzebarri Eskolako kantxan izango da. 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute -10 urtetik aurrerakoek, heldu batekin-, bi pertsonatik bostera arteko taldeetan; 90 minutuko saioak izango dira. Debalde izan arren, txanda aurrez hartu behar-ko da honako helbide honetan: www.lacaravanaescaperoom.com.

**'ESCAPE ROOM'
KARABANA EGONGO
DA HILAREN 14TIK
17RA 16 URTETIK
GORAKOENDAKO**

Puntu Morea jarriko dute

Eraso sexistak prebenitzeko, Udalak kanpaina bat jarriko du abian Andramaixetan, lelo honekin: *Jaietan ligatzea? Bai, baina beti errespetuarekin*. Puntu Morea, hau da, "erreferentziatzeko gune segurua", ipiniko dute abuztuaren 14an Mitarte kalean, 19:00etatik 00:00etara. "Gertakarien aurrean erantzun azkarra eskainiko du", adierazi dute Udaletik, eta generoaren eta sexuaren gaineko zalantzak ere argituko dituzte.

Kirol kontuak

Kirolari dagokionez, abuztuaren 16an, Leintz bailarako txirrindulari lasterketaren 82. edizioa jokatuko da, Durana kalean hasi eta bukatuko dena. Egun horretan pilota profesionaleko partidak ere izango dira Iturrigorri pilotalekuan: Jakak eta Arangurenek jardungo dute, 2022ko promozioiko buruz burukoan txapela irabaziko duenak –Artola edo Peña II.a– eta Albisuk osatutako bikotearen aurka.

Bestetik, bolatokia zabalik izango da jaietan 17:00etatik 20:00etara, eta haurrendako zein helduendako txapelketak antolatutuzte.

Txosnagunean ekitaldi mordo

Txosnagunea ohiko lekuan jarriko dute, Eroski aurrealdean. Gazte Mugimenduko kideek asanblada irekiak egin dituzte eta hor jasotako ekarpenekin egitarau bete-betea osatu dute. "Aurreko urteetan ez dugu izan aukerarik gura beste ekintza egiteko eta aurten horri buelta eman diogu. Kultura ekintza asko eta askotarikoak egongo dira", jakinarazi zuen Gazte Mugimenduko partaide Peio Uribe txabarriak. Musikak presentzia handia izango du, bereziki gau partean, eta etxeko taldeen alde egin dute: "Herrian bertan mordo daude, kuartelean, esaterako, baina kanpokoei ere lekua egin gura izan diegu, eta bietatik izango da". Horrez gain, Kepa Errastiren bakarrikzeta eta *Orain(dik)* ikuskizuna ere izango dira, baita ohikoak diren gazte eta elkartasun bazkariak eta kuadrillen arteko jolasak ere. Horregatik, gazte guztiak gonbidatu zituen bertara gerturatzera, "sekulako jaiak" izango direla iritzita.



MANOLO ZUBILLAGA ALTUBE
PREGOILARIA

"Andramaixetarako gogotsu egoten naiz beti, eta aurten, are gogotsuago. Herritarrek eskertuko ditut eta poz giroa sortzen ahaleginduko naiz".



IHINTZ ALBERDI JORGE
ALKATE TXIKIA

"Umeak animatuko ditut joko berriak probatzera eta ondo pasatzera. Nik gustuko ditut jaiak; bereziki, lagunekin elkartu eta musika entzutea".



UNAX AGIRIANO URRUTIA
ALKATEORDE TXIKIA

"Emozionatuta nago dagoeneko; nire urtebetetzea ere bada abuztuaren 16an, 10 urte beteko ditut, eta egun handia izango da niretzat".



NEREA ITURBE ROJAS
KARTELAREN EGILEA

"Topikoak apurtzea pentsatu nuen kartela egiterakoan; gauez irudikatu ditut jaiak eta eliza erakutsi beharrean Durana kalean kokatu".

Andramaixetako egitaraua

Udalak eta Gazte Mugimenduko antolatutako ekitaldiak.

Abuztuaren 13a

- **14:30** Herri bazkaria: *zuk in, zuk jan*.
- **18:00** Txosnen irekiera eta jolasak.
- **18:15** Musika emanaldia: Irene eta Peio; Araitx Doltza.
- **19:30** Pregoia eta batukada aldarrikatzailea.
- **22:00** Kontzertuak: Txerrikumeak, Nealtta Fola, Jasan eta Gora Etorri.

Abuztuaren 14a

- **12:30** Triki-potea.
- **14:30** Gazte bazkaria, txosnagunean.
- **16:00** Mus txapelketa.
- **16:00** Ur puzgarriak, Arlutzeko kantxan.
- **19:00** Ikurrinari agurra, pregoia eta txupinazoa.
- **Ondoren**, Bihotza konpartsa.
- **19:30** Ekitaldia, txosnagunean.
- **20:00** Salbea.
- **22:00** DJ Mikeltxi, plazan.

- **22:00** Kontzertuak, txosnagunean: Iluminatiz, Virgin Mari DJ Set, Big Mac, Gusilu & Joe Pieman & BRGS.
- **23:00** Psycho Clown kale ikuskizuna.

Abuztuaren 15a

- **10:00** Diana.
- **11:00** Pilota partiduak herriko pilotarien eskutik.
- **11:00** Udalbatzako kideak eta Milagroko banda zaharren egoitzara bisita.
- **11:45** Elizbira.
- **12:00** Meza nagusia.
- **12:30** Diskopuntx haur ikuskizuna.
- **13:00** Umeendako jolasak, txosnagunean.
- **13:30** Milagroko musika bandaren emanaldia.
- **18:30** Los Rebeldes del Swing kale animazioa.
- **19:30** Kontzertua: Nhil. Txosnetan.
- **22:30** Kontzertua: El Drogas. Herriko Plazan.
- **23:00** Suzko errubarak.

- **23:00** Kontzertuak: Oihu, Erroka, Sound System.
- **Ondoren**, galtzontzilo, kulero eta tanga lasterketa. Zumba eta argazki erraldoia.

Abuztuaren 16a

- **10:00** Txirrindulari lasterketa.
- **11:00** Herri kirolak haurrentzat.
- **11:30** Alkate txikien pregoia eta japoniar bonben jaurtiketa.
- **Ondoren**, buruhandiak haurren eskutik.
- **13:00** Potxin eta Patxin pailazoak.
- **14:30** Elkartasun bazkaria Upeide taldearekin, txosnagunean.
- **16:30** Haur parkea, plazan.
- **17:00** Bola-txapelketa haurrentzako.
- **17:30** Profesionalen arteko pilota partidak.
- **18:30** Kepa Errastiren bakarrikzeta, txosnagunean.
- **18:30** Txorotxaranga, haurrentzako kale ikuskizuna.
- **19:30** Bola-txapelketa.

- **22:00** Blues kontzertua: Itziar Yague Sextet. Herriko Plazan.
- **23:00** Kontzertuak, txosnagunean: Biri, Merina Gris eta Yogurinha Borova.
- **Ondoren**, pintxada kolektiboa.

Abuztuaren 17a

- **11:00** Diana.
- **11:30** Animaliekin jolasak.
- **Ondoren**, sokamuturra.
- **12:30** Bide batez taldearekin dantzaldia, plazan.
- **14:30** Herri bazkaria: paella.
- **15:30** Ur jolasak eta kuadrillen arteko jolasak, plazan.
- **17:30** Animaliekin jolasak.
- **Ondoren**, sokamuturra.
- **18:00** Mojito eta pintxada.
- **19:00** Kuadrillei sariak.
- **19:45** Rockalean taldea.
- **23:00** Wilson & Wilsonetis taldea, plazan.
- **23:00** Kontzertuak, txosnagunean: Wood Strings, Hudaltzainak, Muxutruk erromeria.
- **Ondoren**, Jo Ta Txo DJa, txosnagunean.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO
APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Aretxabaletako Santa Rita komentua izandako eraikinean egokituko da adineko pertsonentzako gizarte zentroa. MIRARI ALTUBE

Komentua izandako eraikina, lizitaziora

Santa Rita komentua izandako eraikinean egokituko den adineko pertsonentzako gizarte zentroaren obrak lizitaziora ateratzea onartu du udalbatzak. 2,1 milioi euro baino gehiagoren truke aterako dira lehiaketara, eta urtebetekoa da gauzatzeko epea

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaletako udalbatzak hartutako erabakiari esker, Basotxoko erretiratuaren elkartearen egoitza eta eguneko arreta zerbitzua atonduko dituzte beheko solairuan, baita kapera zaharrean erabilera askotariko aretoa ere. Eskaintzak aurkezteko epea irailaren 8ra arte egongo da zabalik, eta esleipena urrian egitea aurreikusten da. Ezustekorik ez badago, azaroan hasiko dira lanak, eta urtebeteko epea jarri dute obra bukatzeko.

"Proiektu estrategikoa"

Eguaztenean egindako osoko bilkuran, obrak esleitzeko deialdia aho batez onartu zuten udalbatzako kideek. Bertan, Aretxabaletako Udaleko Gizartegintza Saileko zinegotziak, Karmele Uribarrik, gogorarazi zuen adineko pertsonentzako gizarte zentroa aurreko agintalditik lantzen ari diren Udal Gobernuaren "proiektu estrategikoe-tako bat" dela, eta pozik agertu

zen obrak esleitzeko prozesuari hasiera emateagatik. "Aurrerapauso handia da, nahiz eta aurreikusi baino beranduago hasiko garen. Uste dugu Aretxabaletako herritarrentzako garrantzitsua izango dela proiektu hau, eta ez soilik pertsona nagusiendako. Diseinuan dena batuta dagoenez, espazioak elkarbanatu egingo direnez eta polibalenteak izango direnez, guztion integrazioa izango da ardatza edo eremu honen filosofia, eta, besteak beste, hilabete honetan martxan jarri dugun bakardadearen lanketa gauzatzeko inportantea izango da".

Ion Albizuk, EH Bilduko bozeramaileak, bestalde, honako hau gaineratu zuen: "Bereziki,

KAPERA ERABILERA ASKOTARIKO GELA BIHURTUKO DA, HERRIAN ANTOLATZEN DIREN EKINTZETARAKO

kudeaketaren inguruan oso kritikoak izan gara, baina gero, aprobatu da proiektu arkitektonikoa. Bere garaian gure ekarpena izan zen kaperan isolamendua sartzea, ahalik eta gauza gehien egoteko, eta ez molestatzeko komentuan izango diren beste jardueri. Hori ere txertatu da, eta proiektuarekin ados gaude".

Beheko solairua eta kapera

Lanen esku-hartzea eraikinaren beheko solairuan egingo da. Bertan, eguneko arreta zerbitzua eta Basotxoko erretiratuaren elkartearen egoitza, taberna eta jantokia kokatuko dira. Bestalde, kapera erabilera askotariko gela bihurtuko da eta herrian antolatzen diren ekintzetarako irekita egongo da. Espazio osoa kota berean jarriko dute, leiha-teak irekiko dituzte eta instalazioa akustikoki egokituko dute. Honetaz gain, ekipamendu hau biltegi eta bainugelekin jantziko dute.



IMANOL SORIANO

Gairaipena oroitzeko batu dira

1972ko uztailaren 16an, duela 50 urte, lortu zuen UDAko taldeak Afizionatu Mailako Espainiako Txapelketan gairaipena, Murtzian. Finaleko bigarren partidua izan zen orduko hura; aurrekoa uztailaren 9an jokatu zuten, Aretxabaletan. Hori horrela, orduko jokalariek eta haien familiek urteurren borobila ospatu zuten.

Musikaz beteta hasi dute Merkatarien eta Ostalarien Jaia

Herriko merkatariari eta ostalariei balioa emateko eta produktuak kalera ateratzeko jaia, programa betearekin

I.B. ARETXABALETA

Atzo hasi zituzten ostalariek eta merkatariak euren produktuak kalera ateratzeko eta horiei balioa emateko ospakizunak Kantukabi eta The Tacata's taldeen saioekin. Hala ere, egitarau zabala antolatu dute gaurko eta biharko, nahiz eta eguraldi iragarpen txarragatik aldaketak izan daitezkeen programan.

Gaur, puzgarriak izango dira, 16:00etatik aurrera, Hirusta plazan, Hankabeltz urdaitegi alboan, Bedarretan, Herriko Plazan eta Lie Opariak denda

ondoan. Gero, Nhil eta Lowe taldeen kontzertuak izango dira Santa Ritan; bata 19:00etan eta bestea 21:00etan. Txosna jarriko dute bertan, eta deskontuak lortu daitezke, herriko komertzioetan kontsumitzeko. Zapatuan, berriz, Loratukoak 11:00etan izango dira Irabalarrin. Gero, Fanfarre Bihotzatarrek, 12:30ean, Bedarretatik Dagda tabernarainoko bidea egingo dute musika eskaintzen, eta amaitzeko, mariatxiak Ibarra futbol zelaitik irtengo dira, 19:30ean, Bedarretaraino.

Tomatearen azoka berezia izango da irailaren 11n

Gastronomia turismoa bultzatzeko, Durana kaleak hartuko du tomate protagonista izango duen azoka, irailaren 11n, eta hogei postu inguru izango dira. Bertan, tomaterik itsusiena eta barietate handiena sarituko dituzten lehiaketa ere egongo da, eta *Aretxabaletako larrosa*-rekin egindako pintxoan ibilbidea irailaren 8tik 11ra izango da.

San Inazio eguna ospatuko dute Muru-Alde elkartekoe

Bi urteren ostean, Muru-Alde elkartek San Inazio eguna ospatuko du. Bezperan, 30ean, afaria egingo dute bazkideek, eta bertara joan nahi duten elkartean eman beharko dute izena -azken eguna, uztailaren 24a-. Horrekin batera, uztailaren 31an, bola-txapelketa izango dute, 12:00etan, eta salda eta txorizoa izango da bertaratuentzat.

ANDRAMAIXAK 2022

ABUZTUAREN 13A, 14A, 15A, 16A
ETA 17A



*Aurten bai!
Andramaixetan ondo
ibili eta gozatu!*



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako Dorleta auzoko haur parkeak gaur egun duen egoera. IMANOL BELOKI

Gaur da proposamenak aurkezteko azken eguna

Dorleta auzoko haur parke berria egiteko prozesua argia ikusten ari da. Hiru aukera jarri zituen Eskoriatzako Udalak jendaurrean, ikastetxeetako haurren 192 ekarpen izan dituzte, eta, proiektuari hobekuntzak gehituta, gaur amaitu da lizitazioa

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Dorletako haur parkea berritze-proiektua martxan da. Lehiaketa publikora atera da lana, eta gaur amaitzen da proposamenak aurkezteko epea.

Egitasmoa hasteko, parte-hartze prozesu bat jarri zuen martxan Eskoriatzako Udalak, aurretik hiru proiektu landuta, eta maiatzean bukatu zen hautatze prozesu fasea. Hiru proposamen horiek Eskoriatzako ikastetxeetan erakutsi ziren, eta baita paneletan jarri haur parkean bertan eta bibliotekan. Hala, haurrek iritziak eman eta ekarpenak egin zituzten, guztien artean gustukoena aukeratzeko eta aurrera eramateko.

Bigarren proposamena aurrera

"Herriko haurren iritziak kontuan hartuta, hiru proposamenetatik bi aukeratu ziren, eta hainbat hobekuntza egiteko eskatu zitzaizkien horiek landu zituztenei, haurrek hala eskatuta. 192 iritzi jaso genituen, eta

26 ekarpen batu genituen, eta horietatik 19 gehitu zaizkio proiektuari. Proposamenen artean, joko inklusibo gehiago eskatzen zituzten, eta hasiera batean kontuan hartu ez ziren elementu batzuk sartu zizkieten proiektuari. Batzordera eraman genuen gaia, eta, hasiera batean aurkeztzen zen bigarren proposamena izan zen hautatua, izan zituen hobekuntzengatik eta boto gehien jaso zuen proiektua izan zelako. Gainera, lanaren alor teknikoak material birziklatu eta birziklagarrien erabilerak handiagoa aurreikusten zuen", adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburua. Gaineratu du "herritarrek

parte hartzeko erabilitako mekanismoa San Pedro auzoko *Partxis* eta Kuatruenako parkeak diseinatzeko erabilitakoaren antzekoa" izan zela.

Aurreikuspena: iraila

Egindako egokitzapenekin, lehiaketa publikora 121.510 eurotan atera da lana, hasiera batean aurreikusten zen 80.000 euroko langa pasata. Hala, proposamenak aurkezteko epea gaur, uztailak 22, amaitzen da. Hori horrela, Eskoriatzako Udalak aurreikusten du lanak irailean hasi daitezkeela. "Orain, adjudikazio prozesua jarriko dugu martxan. Dokumentazio guztia ondo aurkeztu badute, iraileko kontratua sinatuta egon daiteke eta hilabete batzuen bueltan martxan izango genituzke lanak. Pena izan da prozesua atzeratu izana eta udarako gertu ez izatea, baina, dena ondo bidean, negurako izango dugu parke berriaz gozatzeko aukera".

AURREIKUSITAKO HIRU PROPOSAMENETATIK, BIGARREN AUKERA IZAN DA HAUTATUA, HOBOKUNTZEKIN

Andoni Bengoak, ZeDemontre topaketako sari nagusia

Hiru parte-hartzaile izan dira lehenengo edizioan, baina jarraikortasuna ematea da antolatzaileen asmoa

I.B. ESKORIATZA

ZeDemontre topaketa egin dute asteburuan Eskoriatzan. Udalak antolatuta, eskoriatzarren kultur sorkuntza bultzatzeko eta sortzaileei euren lana non erakutsi eskaintzeko topaketa izan da. Bi kontzertu eta helduendako ipuin kontaketa saio bat izan dira. Berez, laugarren parte-hartzaile bat ere izatekoa zen topaketan, baina, azken orduan, ezin izan da egon.

Hala, asteburuan, Marisol Andraderen ipuin kontaketa, Andoni Bengoaren kontzertua eta Pajaro Azul taldearen emanaldia izan dira. Horien artean, Andoni Bengoa izan da topaketako sari nagusia jaso duena.

Topaketa errotzeko asmoz

"Momentuz, ondo hasi da. ZeDemontre topaketa antolatu genuenean, jende gehiagok par-



Andoni Bengoa plazan. JULEN IRIONDO

te hartuko zuela uste genuen. Hala ere, egitasmo honekin jarraitzea da asmoa. Uste dugu behin ezagututa errazagoa dela parte hartzea, eta hasierak beti dira zailak", adierazi du Arantxa Unzuetak, Eskoriatzako Kultura teknikariak.

Ur-lanbro eremua egun gehiagotan izan da erabilgarri

Hasiera batean hiru egunerako jarri bazen ere, izan duen arrakastarekin eta beroak handia izaten jarraitu duenez, ur-lanbro eremua zabalik mantentzea erabaki zuen Eskoriatzako Udalak. Asteburuan erabilgarri izan da ureztatze sistema, baita aste osoan zehar ere, eta 17:30etik 19:30era, gaur, egubakoitza, ere izango dute haurrek gozagarri.



Santa Marinako ur-eremua. ESK. UDALA

Errekan Gora jaialdia iraileko hirugarren asteburuan izango da

Atxorrotx Kultura Elkarteak jakinarazi du 2022ko Errekan Gora jaialdia irailearen 16an, 17an eta 18an izango dela. Azken edizioaren ildo beretik, aste bukaera bakarrera mugatu dute programa, eta, musika taldeak ardatz, herritarrek egun gutxitan ikuskizun apartekin gozatu ahal izango dutela azpimarratu dute.

Guztiak izango dira musika taldeak; hain zuzen ere, sei musika talderen kontzertuak izango dira asteburu horretan zehar sakabanatuta, eta estilo askotarikoa, gainera. Hala ere, jaialdi honetan, zenbait kasutan, berezitasuna izaten da herriko txoko ezberdin eta ezohikoak erabiltzea emanaldiak egiteko. Aurten, baina, Fernando Eskoriatza plazan izango dira gehienak, Gernika plazan bakarra eta herriko kaleetan zehar ari-tuko da beste talde bat.

Musika eta piroteknia sinkronizatuta, saioa

Uztailaren 30ean, San Inazio bezperan, ikuskizun piromusikala izango da, 22:45ean hasita, tren estazio zaharrean. Eskoriatzako Udaletik adierazi dutenez, ikuskizunaz gozatzeko leku aproposenak bidegorria eta Tesa enpresaren atzealdea izango dira

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA 2020an hil zen Juan Carlos Zubia eskoriatzarra, eta hura omentzeko hamar minutuko ikuskizuna izango da uztailaren 30ean. Pasioz bizi zituen etxafuego, su artifizial eta musika emanaldiak, eta herriko zenbait ekitalditan horien ardura izaten zuen. Hura izan zen, gainera, San Inazio bezperan musika eta suzko errubarak konbinatutako ikuskizunaren ardura izaten zuena. Hori horrela, Vulcano pirotekniakoek zuzenduta izango da ikuskizuna gozagarri.

Ekainaren hasieran eman zuen ekintzaren berri, Vulcano pirotekniakoak herrian izan zirela aprobetxatuta, eta bertan, ikuskizunaren xehetasunak emateaz batera, Zubia izan zuten gogoan: "Hizki handiz idatzi nahi dugu esker ona; alde batetik, Juan Carlos Zubia omendu nahi dugu; eta, bestetik, Vulcano pirotekniakoen ezinbesteko laguntza eskertu nahi dugu. Zubia kolaboratzaile sutsua zen; gure herriko ospakizun, jai eta ekintzak hura gabe ulertezinak zirelako. Beti zegoen laguntzeko prest, eta, zer esanik ez, etxafuegoak jaurtitzeko. Beste gauza askoren artean, hari esker, San Inazio bezperako ikuskizun piromusikala antolatu ahal izan genuen,



Zubia, San Pedro eta Intxaurtuetako jaietan suziariak jaurtitzen. GOIENA

eta aurten ere egun berean antolatzea erabaki dugu", adierazi zuen Joserra Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak.

Errautesak piroteknian

Juan Carlos Zubiaren seme Haritz ere hitzorduaren aurkezpenean izan zen, eta eskerrak emateko aprobetxatu zuen: "Nire aita Eskoriatzako udaletxean jaiotakoa zen, eta beti izan zuen inklinazio bat bertako ekintzetan parte hartzeko. Familian haren errautsekin zer egin eta zer ez erabakitzerakoan, beraren errau-

tsen zati bat su artifizialen karkasetan sartzea erabaki dugu...".

Merkatuko onena

Vulcano pirotekniako ardura-dunek, bestalde, honako hau aurreratu zuten ikuskizun piromusikalaren gainean: "Ikuskizuna Juan Carlosek bere garaian egin behar zuen bilduman oinarritutakoa da, era oso profesionalean. Ikuskizun oso dinamikoa izango da eta herritarrek pirotekniako merkatuko azken berrikuntzekin gozatzeko aukera izango dute".

Afaria Elizosten

Olazar Erretiratuen Elkartekoek urtero antolatzen duten hitzordu bat berrartu zuten joan den egunean. Izan ere, ohitura dute 80 urtetik gorako elkarte-kideen afaria egitea, eta horixe bera egin zuten joan den egunean, Eskoriatzako elizoste elkartean. 30 lagun izan ziren bertan bapto afaltzen, eta, bide batez, une ederra pasa zuten.



JASONE ORBEGOZO

LEINTZ GATZAGA

23

"Abuzturako bost apartamentu izan nahi ditut erabilgarri"

GAIZKA PEREZ MENDI-ETXEEN ARDURADUNA
Martxa hartzean, jatetxea ere ireki nahiko luke

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA Gaztainuzketako apartamentu turistikoaren ustiariaren esleipenerako lizitazio deialdian proposamen bakarra aurkeztu zen, eta, baldintza guztiak bete eta udal ordezkariarekin akordioa eginda, Gaizka Perez aretxabaletarrak hartu berri du Gaztainuzketako apartamentu turistikoaren zerbitzua datozen lau urteetarako, hasiera batean. **Zein asmorekin hartu duzu Gaztainuzketako apartamentu turistikoaren zerbitzua?**

LEINN ikasketak ditut eginda, eta, proiektu baten bila ari nintzela, parean tokatu zitzaizkidan Gaztainuzketakoa; hala, aurkeztu beharrezko guztia prestatu, eta aurkeztu egin nuen nire proposamena. Orain, nire asmoa, hasiera batean, apartamentuak irekitzea da. Une honetan, hiru apartamentu ditut zabalik eta erabilgarri; gainontzekoek hobe-kuntzak behar dituzte, eta lan horretan ari naiz. Abuzturako beste bi irekiko ditut, eta, guztira, bost apartamenturekin, jendea etortzea geratzen da. Horrez gain, aurten, jatetxea irekitzeko ez naiz garaiz ibiliko, baina datorren urtean gustatu-



Gaizka Perez, Gaztainuzketan. I. BELOKI

ko litzaidake langile bat kontratatu eta, duela zenbait urte moduan, taberna eta jatetxea ere irekitzea.

Goiz da balorazioa egiteko; izan ere, uztailaren 8an jarri zenuen martxan zerbitzua. Dena den, hasi da iristen jendea, ezta?

Une honetan ere badituzte bisitariak. Denbora gutxi pasa den arren, erantzun ona izaten ari da, eta etorri direnak gustura izan direla esango nuke. Finlandiarrak, madrildarrak eta galiziarrek izan ditut ireki nuenetik; beraz, pozik nago.

GORA ETA BEHERA



Kantuan Otsoaren urtebetetze egunean



Joan den egunean, Eugenio Otsoaren urtebetetzea izan zen, eta herritar talde bat kantu batzuk abestera joan zen haren etxe aurrera, txistulariek lagunduta. Gainera, bertan, gaua pasatzera joandako udalekutako haurrek ere lagundu zieten abesten

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Espazio bakarreko gune bat, "azoka sustatzeko"

Oxirondoko azoka biziberritzeko asmoen barruan, Udal Gobernuak iragarri du albo batean obra egingo dela espazio bakarreko gune bat sortzeko eta diote proiektua inplikatuekin batera garatu nahi dutela; EAJk lanerako mahai bat osatzea eskatu du

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuak iaz abiatu zuen baserritarren "azoka dinamizatzeko eta sustatzeko" proiektuaren barruan iragarri du Oxirondoko azoka moldatzeko asmoa duela: "Azokako albo batean obra egingo da, bertan dauden postu finkoak kenduko dira eta espazio bakarreko gunea sortuko da. Oxirondo azoka bertako produktuaren eta lehen sektorearen erreferentziazko proiektu bilakatzea da helburua. Baserritarren azoka sustatzea eta bertako produktuaren eta agroekologiaren aldeko apustua egitea bertatik". Obrarako datarik ez dute zehaztu, prozesuan inplikatuekin landu nahi dute eta proiektua bera. Hain zuzen ere, Bergarako baserritarrek, Udalak, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek, Ereindajan elkartek eta azokako postuen ordezkariak hartu zuten parte Oxirondori buelta bat emateko prozesuan, eta obraren

proiektua haiekin batera landu nahi du Udal Gobernuak.

'Gipuzkoako azoken sarea'

Bergarako azokarako prozesua *Gipuzkoako azoken sarea* izeneko proiektu barruan kokatu beharra dago. Sare horrek bi lan ildo nagusi ditu: batetik, lurralde mailako norabide komun bat landu eta Gipuzkoako azoken sarea osatu, elkarlanean oinarrituta; eta, bestetik, tokian tokiko azoken etorkizunean ahal beste eragin nahi dute. Bigarren lan ildo horren barruan, 2021ean, Elhuyar aholkularitza enpresaren eskutik Oxirondoko azokaren inguruko hausnarketa prozesua gauzatu zen. Oxirondoren errealitatek abiatuta, bertako eragileekin etorkizunerako erronkak identifikatu ziren, eta ekintza-plan bat osatu. Halaxe azaldu dute ekintza plana Udal Gobernutik: "Ekintza plan horretan argi gelditu zen eraikinak berak proiektu handiago baten

premia zeukala, bertako produktua oinarri izango zuena, eta azoka bera dinamizatzeko zuena. Ordurako Bergaran elikadura mahaia sortuta zegoen, herriko eragile ezberdinek osatuta, eta prozesu hau elikadura mahaiko lan lerroetako bat izatera pasatu zen".

EAJk lanerako mahai bat nahi du EAJk, berriz, kezka azaldu du Oxirondoko azoka moldatzeko obra egingo delako kudeaketa zehaztu gabe. "Udal Gobernuak duela bi aste azokarako duen proposamena azaldu zigun eta martitzenean batzorde berezitik pasatu zen. Bertan, lehen sektoreari bultzada bat emateko

EAJ KEZKATUTA DAGO OBRA EGINGO DELAKO KUDEAKETA NOLAKOA IZANGO DEN ZEHATZU BARIK: "LARRIA DA"



Baserritarren azoka sustatzeko obra inplikatuekin zehaztu nahi du Udal Gobernuak. J.B.

azokan sortuko duten denda eta tabernari buruzko informazioaren berri eman ziguten; ondoren egindako lan bileran aspektu teknikoaren berri ere jaso genuen. Kudeaketaren inguruan galdetu dugunean, ordea, ez dugu erantzunik jaso. Inbertsioak 400.000euro inguruko aurrekontua izango du eta oraindik ez da definitu zein izango den denda edo espazio horren kudeatzailea, zein baldintzatan egingo den esleipena, nori bideratuta egongo den...", adierazi du, ohar bidez, EAJko bozeramaile Maite Agirrek. Hori horrela, jeltzaleek hainbat galdera egin dituzte: "Edonork kudeatu ahal izango du? Denda handiak aurkeztu ahal izango

dira? Herriko baserritarrak? Zein baldintzatan? Baldintza ekonomikorik egongo da?"

EAJk azpimarratu du ez dela kudeaketaren gaineko lanketarik egin: "Larria iruditzen zaigu Udal Gobernuak diru publikoarekin egiten duen erabilera. Halako proiektu batek kudeaketa plan bat zehaztuta izatea beharrezkoa da, irizpideak aldeztu aurretik zehaztea ezinbestekoa da. Obra egin eta ez bada inore ere aurkeztu? Nola bermatuko da planteatzen diren helburu eta asmoak beteko direla?". Hau guztia aintzat hartuta, jeltzaleek eskatu diote Udal Gobernuari proiektu honen etorkizunerako lan mahai sortu dezala, garden-tasuna bermatuz.

Irailaren 1erako eman behar da izena helduen danborradan

San Martin jaietako helduen danborrada irailaren 15ean egingo da (22:30); umeena, berriz, irailaren 16an (18:30)

J.B. BERGARA

Irailaren 10ean egingo da San Martin feria, pandemia aurreko baldintzetan. Helduen danborrada irailaren 15ean irtengo da, udal biltegitik (22:30); umeen danborrada irailaren 16an irtengo da, udal biltegitik (18:30).

Helduenean nola eman izena

Helduen danborradan parte hartzeko, udaletxean jakinarazi behar da irailaren 1a baino lehen, honako informazio hau emanda: taldearen izena; taldekide kopurua; danborra edo



Zuloa konpainiako Aitor Eraña. GOIENA

barrika joko duten zehaztea; taldeko zuzendariaren izen-abizenak eta telefono zenbakia; zuzendariak musika bandako zuzendariarekin egingo den entsegu saiora joan behar du, irailaren 1ean musika eskolan egingo dena (18:00). Horrez gain, taldekideek entseguetara joan behar dute irailaren 5ean, 7an, 8an, 12an, 13an eta 14an, Seminarioko karpan (20:00).

Izena eman behar da *gazteria@bergara.eus* helbidera idatzita edo 010 zenbakira deituta –luzapena, 1.090–. Talde bakoitzaren ardura izango da banderak lortzea, eta konpainia bakoitzak gehienez bi bandera eroango ditu. Taldeek, gutxienez, hogeitaz gutxienez, 36. Umeen danborradarako ez da izenik eman behar, nahikoa da entseguetara agertzea.



LARRAMENDIKO ARNESA

Larramendiko Arnasa: zozketa

"Erraustegiaren aurkako" zozketako hiru sarietatik bik badute irabazlea. Lamaino Etxeberri landetxean bi lagunendako gau bat irabazi du Blanca Arenazak eta Tartufon bi lagunendako bazkaria Itziar Usandizagarentzat da. Izal landetxean bi lagunek gau bat igarotzeko saria ordezkotzen irabazi du; jar dadila Izal landetxearekin harremanetan: 607 66 02 44.

Lurrak erosteko apustua, biodibertsitatea zaintzeko

Basoak "beste era batera" kudeatzeko asmoz, asteleheneko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak Udalak lurrak erosten joateko prozedura zehaztea; hamar lursail erosi dituzte eta asmoa da irailean edo urrian prozesuarekin jarraitzea

Jokin Bereziartua BERGARA

Herrian garrantzi berezia duten eremuetan biodibertsitatea zaintzeko eta areagotzeko lursailak erosten joatea adostu zuen udalbatzak, aho batez. Hainbat lekutan kokatuta dauden hamar lursail erosi dituzte; ez da berria Udalak lurrak erostea, baina oraingoan, prozedura bat zehaztu dute, "gardentasunean" urrats bat gehiago eginda. "Basoak beste era batera kudeatzea da asmoa. 30.000 euroko aurrekontu bat zegoen eta 19.000 euro esleitu dira, hurrengo erosketarekin 30.000 euroko langa gainditzen genuelako. Falta den diru partida irailean edo urrian irekiko den prozedura berrira gehituko da; beraz, partida handiagoarekin irtengo da uda ostean eta kanpoan geratu diren interesdunak hurrengo deialdian batu ahalko dira", zehaztu du EH Bilduk.

Nafarroako ikurrinaren ondoan Uztailaren 19an, 500 urte bete ziren Nafarroako Erresumaren azken gotorleku izan zen Amaiurko gaztelua erori zenetik. Urteurrena aintzat hartuta, Nabaraldeko Debagoiendarrak taldeak *Bi ikur, herri bakarra* izeneko mozioa aurkeztu zuen, besteak beste, Nafarroako ikurra



Kukubasok antolatutako zuhaitz landaketa, Agirretxeberri baserriko lurretan. i.s.

AMAIUR ERORI ZELA 500 URTE BETE ZIREN EGUNEAN, HILAREN 19AN, NAFARROAKO IKURRA JARRI ZUTEN

ikurrina dagoen lekuan jar dadin; EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren zein PSE-EEren kontrako botoekin egin zuen aurrera, eta martitzenean jarri zuten Nafarroako ikurra plaza-ko mastan. EAJk ez du begi onez

ikusten Nafarroako ikurra behin betiko ikurrinaren ondoan egotea. "Gure ikurra ikurrina da".

Bestalde, EH Bilduk herrietako anbulatorioen itxieraren aurkako eta osasun sistema publikoa indartzeko mozioaren aurrean beste bat aurkeztu zuten EAJk eta PSE-EEK. EH Bildu "oso kezkatuta" dago osasun sisteman gertatu diren "murrizketekin"; EAJk eta PSE-EEK eskatu zioten Osakidetzari lan deialdi publikoak indartu ditza- la, besteak beste. EH Bilduren mozioak egin zuen aurrera.

GORA ETA BEHERA



Pintaketak San Juan auzoko ermitan

San Juan auzoko bizilagun batek salatu du ermitan hainbat pintaketa agertu direla. Auzotarrek askotan erabiltzen duten azpiegitura da, ondare ikuspegitik balioa ere baduena.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

OHARRAK

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Euskara ikasteko eta ikasketa osagarriak euskaraz egiteko laguntza jaso nahi duenak irailaren 15a baino lehen eman beharko du izena. Informazio gehiago, Udaleko Euskara Zerbitzuan: 943 77 91 31 edo euskara@bergara.eus.

Idazle Eskola graduondokorako izen-ematea

UNED-Bergarak eta Elet@n kultur elkarteak 20. urtez antolatu duen eskolarako izen-ematea urriaren 16ra arte dago zabalik. Graduondokoaren gaineko informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko webgunea honako hau da: ieskola.asmoz.org.

Larramendiko Arnasa: udako zozketa

Udako oporretan Larramendiko "erraustegiaren" aurkako banderatxoarekin argazkia atera, larramendikoarnasa@gmail.com helbidera bidali –izen-abizenak eta telefono zenbakia jarrita– eta Ereindajane egindako 100 euroko balioa duen saski bat zozketatuko dute irailaren 20an parte hartzaileen artean.

Gorlako kantina: DJ Elvis Cainoren emanaldia

Uztailaren 24an izango da, 17:00etan; 20:00etatik aurrera kantinan afaltzeko aukera egongo da.

Euskaraldirako, udalbatza arigune

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo den Euskaraldirako udalbatza arigune izatea onartu zuten, eta baita Udalak entitate moduan izena ematea ere, horretarako beharrezko ariguneak bultzatuz. 2018ko eta 2020ko edizioetan 3.000 herritar baino gehiago izan ziren *ahobizi* edo *belarriprest*, eta 2020an, 150 entitate baino gehiagotan eratu ziren ariguneak.



Bilkura amaierako argazkia, Euskaralldiarekin bat egiteko. J. BEREZIARTUA

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
 KALITEA
Enpresa Registrada N°90/025

Datorren ikasturteari so Jardun Euskara Elkarteak

Atzo egin zuten batzar orokorrean, aurtengo eta datorren urteko ikasturtea izan zituzten hizpide, besteak beste; halaber, gaur goizean emango zaie amaiera lau aste iraun duten udaleku irekiei, San Martin plazan egingo duten jaiarekin

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Jardun Euskara Elkarteak batzar orokorra egin zuen atzo arratsaldean, Irizar jauregian, eta hainbat puntu izan zituzten ardatz; tartean, urteko errepasoa, diru-kontuen balantzea eta aurrera begirako egitasmoak.

Jarduneko kideek ikasturtearen balorazio positiboa egin dute, aurtun pandemiak ez baitu aurreko bi urteetan bezain beste eragin: "Egia esanda, aurtengo ikasturtea iazkoa baino errazagoa izan da ekintzak antolatze orduan. Pandemia garaian neurriak hartuta jarduerak antolatu baditugu ere, urte honetan, beste lasaitasun batekin egin dugu. Geldirik egon diren egitasmoak martxan jarri dira, eta besteak normalitate gehiagorekin burutu ditugu".

Datorren ikasturtera begira zer?

Ikasturtea "gustura" amaitu dutela baieztatu dute Jarduneko kideek. Nabarmendu dute jendeak ondo erantzun duela ohiko ekintzetan parte hartuz, eta horrek arnasa eta motibazioa eman dizkiela aurrera jarraitzeko. Halaber, "pozik" daude, aurreikusten zituzten ekintzak aurrera atera direlako.

Datorren urterako egitasmoei dagokienez, antzerakoak izatea aurreikusten dute; hori bai, Euskaraldiaren aldeko apustu sendoa egin dutela adierazi dute: "Halako egitasmoak dakarren lan guztiarekin, gure helburua ez da hamabost eguneko kontua izatea. Haratago joatea da asmoa. Aurrera begira jarri nahi dugu, eta hizkuntza ohituretan benetan eragin. Halaber, jarraipena eman nahi diegu hizkuntza ohiturak aldatzen joateko egitasmoei".

Bestalde, indartsu agertu dira datorren urtera begira: "Indartsu eta erronka berriak hartzeko nahiz eremu ezberdinetan eragiteko gogoz gaude".



75 metroko txirrista erraldoian ibili dira udaleku irekietako haurrak. IRINA ALVAREZ

Jardunen postal lehiaketa, martxan

Ohi bezala, udako euskarazko postal lehiaketa antolatu du Jardunek. Hamaikagarren edizioa da aurtengoa eta nahi duen orok Euskal Herriko nahiz munduko edozein txokotatik bidal dezake testua postal batean. Lehiaketaren helburu nagusia komunikazio informal eta idatzietan euskara erabiltzea da. Parte hartzaile bakoitzak nahi beste postal bidal ditzake, euskaraz idatzita. Gaia librea da. Postalak jasotzeko azken eguna 2022ko irailaren 18a izango da, eta parte hartzaile guztien artean 60 euro zozkatuko dituzte. Postalak Jardun Euskara Elkartearen helbidera bidali behar dira (Errotalde jauregia z.g.). Informazio gehiago, 943 76 36 61 edo 605 71 24 69 telefono zenbakietan nahiz www.jardun.eus webgunean.

Udaleku irekien azken eguna

Gaur bertan emango zaie amaiera aurtengo udaleku irekiei, 11:30etik aurrera San Martin plazan egingo den jaiarekin.

Alde batetik, herriko hainbat kaletan grabatuko dute *lipdub*-a, eta, ondoren, pregoia irakurriko dute, lau aste hauei amaiera emateko.

Ia laurrehun neska-mutilek hartu dute parte Jardun Euskara Elkarteak kudeatzen dituen udal udalekuetan. Ekainaren 27an hasi zuten jarduna, eta ordutik denetariko ekimenak

antolatu dituzte. Adibidez, joan den egubakoitzean, Txan magoak eskaini zuen ikuskizuna. Berrikuntzak ere egon dira egitarauan. Adibidez, Arrizuri kalean jarri zuten 75 metroko txirrista erraldoia. Jarduera askotaz gozatzeko aukera izan dute haurrek lau astez. Udalekutako argazki guztiak Jardun Euskara Elkartearen webgunean daude ikusgai.

Bergarako Udalak gaineratu duenez, "osasun pandemia aurreko egoeran gauzatu dira jarduerak".

Gaur emango zaie hasiera Bolua auzoko Santa Ana jaiak

Gonzalez Chirlaquek konposatutako 'Boluko zelaia' martxarekin egingo ditu jaitziera eta igoera Santanatkok

I.A.A. BERGARA

Bi urteko etenaren ostean, bueltan datoz berritua ere hainbat auzotako festak datozen asteetan. Uztailean bi auzotako festak ospatuko dira eta abuztuaren berriz, bost lekuk hartuko dituzte jaiak.

Gaur bertan arratsaldeko zortzietan lehertuko da hiru eguneko festa Boluan, zortzietan botako duten txupinarekin eta Santanatkoren jaitzieraarekin. Aurtun, lehen aldiz, Gonzalez Chirlaquek Bolua auzoarentzat eta Jose Mari Arrondorentzat sortu duen *Boluko zelaia* martxarekin jaitziko da Santanatk. Hiru eguneko egitaraua antolatu dute, eta aurreneko egunean buruhandiez, gozoki banaketaz eta hiru talderen kontzertuez gozatzeko aukera izango dute.

Bihar goizerako, pintura lehiaketa, umeendako jolasak, txorizo-pintxoak eta poteoa antolatu dituzte. Ondoren, 14:30ean, herri bazkaria izango da, eta arratsaldean, puzgarrietan jolastu eta Txan magoaren emanaldia ikusteko aukera izango dute etxeko txikiek. Arratsaldeko zazpitan, berriz, Suker orkestrak girotuko du auzoa.

Domeka izango da Santa Ana jaien azken eguna, eta pilota partidekin hasiko dute, goizeko hamaiketan. Eguerdirako bi ekintza antolatu dituzte: alde batetik, VIII. patata-tortilla txapelketa; eta, bestetik, haurrendako puzgarriak. 13:00etan, apar-festa izango da, eta ordu

erdi geroago, kantu-poteoa egingo dute Boluko Otxotearekin. Arratsaldean, *sukaldera* lehiaketa, igel eta noka txapelketak eta Ibeer DJa egongo dira. Gaurdian emango zaie amaiera auzoko festei, Santanatkoren igoerarekin eta *Boluko zubia* martxarekin.

Basalگو auzoko jaiak

Uztailaren 25ean izango dira Basalگو auzoko festak eta dagoeneko prest dute egitaraua. Ekitaldiak goizean zehar izango dira. Mesa nagusia egingo dute goizeko hamaiketan, eta ordu bete geroago, hamabietan, trikitilarien txanda izango da. Ordu berean izango dira luntxa eta pilota partidak. Festa auzo bazkariarekin biribilduko dute.

Abuztuaren jaiak etenik ez

Festei dagokienez, abuztua indartsu dator, herriko bost auzotara itzuliko baitira ospakizunak.

Alde batetik, egun bateko jaiak antolatu dituzte zenbait auzotan. Abuztuaren 10ean, San Lorenzo auzoko jaiak izango dira. Abuztuaren 15ean, berriz, Eleamendiko Andra Mari jaiak izango dira. Egundak geroago, abuztuaren 16an, sanrokeak ospatuko dira. Abuztuaren 24an ere badute zer ospatu, Zabaletamendi-Angiozar auzoak San Bartolome jaiak antolatu baititu.

Abuztuaren 26tik 28ra Kofraiak ospatuko dira Osintxun.

Alkar Lankidetzak Gunea zabalduko dute Udalak eta UNEDek

Ekintzailetasuna sustatzeko egitasmo berria eskainiko du Bergarako Udalak datorren ikasturtetik aurrera. Udalak azaldu duenez, "haien kabuz lanean ari diren pertsona ekintzaileak lanerako espazio faltan egoten dira maiz". Ondorioz, behar horri erantzuteko zabalduko dute gunea. UNED-Bergararekin sinatutako akordioari esker,

UNEDek utzitako gela bat jarriko du herritarren zerbitzura. Asmoa da urrian jartzea martxan. Irailean zabalduko da eskaerak aurkezteko epea eta Bergaran eta Debagoienan erroldatutako ekintzaileek egin ahal izango dute eskaera.

Bertako ekintzaileei lanerako espazio partekatua eskaini nahi zaie, "lankidetzako ekonomia eredu oinarrituta, sinergiak sortu, elkarrekin ikasi, harremanak sustatu eta proiektuak nahiz ezagutzak partekatzeko".

"Europako Txapelketa urteko lanaren saria da"

AITOR MARKIEGI BURDINOLA HOCKEY TALDEKO JOKALARIA

Datorren eguaztenean, Espainiako selekzioarekin izango da Europako hitzordu nagusian. Bergarako atzelariak bi urte nagusiagoak direnekin jokatu du

Xabier Urtelai BERGARA

Datorren eguaztetenetik domekara bitartean jokatu dute, Valladoliden, 16 urtez azpikoen Europako Txapelketa, eta Espainiako selekzioarekin jokatu du Aitor Markiegik (Bergara, 2008). Bergarakoa Burdinolako taldeko defentsa da. "Nahiz eta beharra dagoenean aurrelari ere jokatzeko dudak".

Ezustean hartu duzu Espainiako selekzioa deialdian sartu izana?

Duela hiru aste inguru Valladoliden izan nintzen, selekzioaren egonaldi batean. 22 jokalariratu ginen han, eta atezainekin batera hautatzaileek beste hamabi jokalariratu aukeratu behar zituzten. Ez nuen esperantza handirik, egia esan; nik 14 urte ditut, eta jokalariratu nagusiagoak zeuden han. Jokalariratu onak, gainera. Guztira, hiru egun egin genituen han, eta entrenamendu saioek aurrera egiten zuten neurrian ikusten nuen geroago eta au-

ker handiagoak nituela. Eta hala izan zen.

Burdinolako jokalariratu bakarria izan zara egonaldi horretan esku hartu duena?

Emakumezkoen selekzioarekin jokatzeko nire arreba Itsaso Markiegi eta Ainhoa Salillas ere deitu zituzten egonaldirako; biak dira Burdinolakoak. Baina, zoritxarrez, haiek ez zuten zorte bera izan.

Esanguratsua da bi urte nagusiagoak direnekin izango zarela taldean.

Bai, ni ere harrituta geratu nintzen, egia esan.

Eta zer espero duzu Europako Txapelketatik?

Sekulako esperientzia izango da. Txekia, Italia, Eslovakia...

"TXEKIA, ITALIA, ESLOVAKIA... SELEKZIO ONAK IZANGO DITUGU AURREAN"

Selekzio indartsuen kontra jokatu dugu eta ni Espainiako jokalariratu onenekin inguratuta egongo naiz. Badakit hor egotea saria dela, eta esperientziaren gozatzeko ahaleginduko naiz, eta nire onena ematen, jakina. Halako txapelketa bat jokatzeko ez da egunero egiten den zerbait.

Baduzue aurrean ibiltzeko itxaropenik?

Nik uste dut oso talde polita daukagula, baina egia da iaz Espainia ez zela 16 urtez azpiko Europako Txapelketara joan; 18 urtez azpiko jokalariratu joan ziren, baina ez gure kategoriratu goak, eta erreferentzia hori falta zaigu. Asteazkenetik aurrera ikusiko dugu zein den gure maila. Esango nuke Eslovakia dela faboritua. Baina egia da, baita ere, selekzioak etxean jokatu duela.

Garrantzitsua izango da jokalariratu elkarren artean ezagutzea, taldea egitea.



Aitor Markiegi, Burdinolako elastikoarekin. BURDINOLA

Bai, zalantza barik. Astelehenen trenez joango naiz Valladolidera, eta asteazkeneko arte entrenamendu saioak egingo ditugu elkarren artean hobeto ezagutzeko, zelan jokatu behar dugun jakiteko... Garrantzitsua izango da hori, bai.

Zer-nolako jokalariratu zara?

Defentsa jokatzeko dut, normalean, baina beharra dagoenean aurrelari ere aritu naiteke. Horrekin batera, esango nuke nahiko ondo patinatzen dudala.

Urte polita egin duzu aurretan.

Burdinolarekin eta euskal selekzioarekin jokatu dut eta liga irabazi dugu bai infantiletan eta baita gazte mailan ere. Eta, Espainiako ligan hirugarren

sailkatu gara. Horrekin batera, Madrilen jokatu genuen Espainiako infantil mailako txapelketan seigarren sailkatu ginen. Uste dut lan handia egin dudala aurretan, eta hau sari moduan hartzen dut. Oso urte polita izan da, egia esan.

Zer behar du hockeyko defentsa on batek?

Alde batetik, erreflexu onak izatea eta, aldi berean, azkarra izatea. Eta bestetik, defendatzen ari zarenean posizio ona mantentzen jakitea. Horiek nabarmenduko nituzke.

Espainiako selekzioaren egongo den euskaldun bakarria zara?

Ez, Bilboko Metropolitano taldetik ere hainbat jokalariratu izango dira selekzioan.



BKE

Aste bateko campusetik, hirukora

Orain arte, BKEko futbol sailean astebeteko campusak egiten ibili dira, eta pandemia ostean antolatzaileek erronka berria jarri zioten euren buruari: "Hiru asteko campusa egitera animatu gara eta oso ondo ibili gara, jendeak bikain erantzun du. Lehenengo astean 160

neska-mutiko izan genituen eta beste bi asteetan, 80. Futbolaren bueltan ekintza ezberdinak egin ditugu, baita bestelako kirol jarduerak eta jolasak egin ditugu, eta baita txangoak ere; balorazio ona egiten dugu", adierazi du Mikel Larrañagak.



IMANOL SORIANO

Bi podium Lokatzarendako

Bolintxo Okindegia-Lana taldeko neskek ondo ibili ziren joan den egubakoitzean Bergaran antolatutako San Martzialgo igoeran —Bergara Hiria saria—: batetik, Itsaso Plaza arrasatearra gazte mailako onena izan zen —argazkian—; eta, bestetik, Gipuzkoako txapelketara begira Itsaso Askasibar elgetarra hirugarren sailkatu zen.

Musika eta ikuskizunak datozen egunetarako

Gaur bertan emango dio amaiera The Big Marteen's taldeak aurtengo Berumuga musika zikloari eta uztailleko Usondoko emanaldiak La Furiaren kontzertuak itxiko ditu; halaber, abuztuan, familientzako bi lan izango dira ikusgai Fraiskozuri plazan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Datozen asteetan kultura ekitaldi eskaintza zabalaz gozatzen auzokari egongo da, musikatik hasi eta magia nahiz bestelako ikuskizunek hartuko baitituzte herriko txokoak.

Berumugaren azkena

Gaur, Berumuga egitasmoaren azken kontzertua izango da Espoloiaren, gaueko hamarretan hasita. Oraingoan, The Big Marteen's Montpellerko (Frantzia) taldearen txanda izango da, eta euren swing eta blues doinuek giroa dute egubakoitz gaua. Vince Bassou gitarrista, harpa-jotzaile eta abeslariak gidatutako dira Remi Pelegras, Simon Laurent, Hugues Lehenbre, Richard Altier eta Auguste Caron musikariak.

Abesti propioek nahiz bertso handiek osatutako errepertorio dantzagarria taularatuko dute. Swing, rhythm-and-blues eta rock-and-roll zaharrenaren testuinguruan murgiltzen da banda frantses hau.

Uztailaren lehen eman zitzaion hasiera Berumugari eta orduetik nazioarteko eta Euskal Herriko hiru talde pasa dira Espoloiaren aurretik: Son Rompe Pera mexikarrak, Arima Soul donostiarrek eta The Recerend



La Furia, promoziorako argazki batean. JAVIER PORTILLO

Shawn Amos & The Brotherhood amerikarrak.

La Furia, uztailaren 28an

Berumuga ez da uztailerako antolatutako egitasmo bakarra. Usondoko gauak alaitu dituzte orain arte Pelaxek, Ertzakek, Potx eta Lotxek eta Liherrek. Ekimen honetan azken kontzertua eskaintzea falta da, eta La Furia musikatu du Usondo Parkea datorren egunean, gaueko hamarretan hasita.

Post mortem disko berria eta *Pecadora* aurreko lana eszena-

ratuko dituela aurreratu du artista nafarrak. Guztira, lau emakume igoko dira oholtzara: DJa, bi dantzari eta, nola ez, La Furia bera, musika guztiari ahotza jartzeko prest. Emanaldiari dagokionez, zerbait berezia prestatu dute: "Ez da ikuskizun musikala izango soilik. Iruditzen zait bisualki interesgarria izango dela. Xehetasun guztiak ongi zaindu ditugu; bai estetika, bai edukia, baita argiztapena ere".

Abestiak kantatu bai, baina kontakizun bat taularatu nahi dute emanaldian, eta "istorioa

denen artean kontatzen" saiatzen direla dio, "bakoitza bere ikuspuntutik. Batzuek dantza jartzen dute; nire kasuan, berriz, ahotza".

Musikaria nafarra den arren, Arrasate du bizileku eta aitortu du gogo "handiarekin" datorrela Bergarara: "Asko maite dudana herria da Bergara. Denbora gutxi daramat bailaran bizitzen, baina oso ondo hartu naute hasieratik. Arrasatetik gertu jotzeak eta jendea ezagutzen dudana lekuetan jotzeak ilusio handia egiten dit".

Bartzelonan, Cadreten eta Getafen eman dituzte kontzertuak, besteak beste, La Furiak azken hilabeteetan. Dena den, etxera itzultzea "gozamina" dela aitortu du: "Egunero gurutzatzen zaren eta gauzak partekatzen dituzun jendearentzat jotzea eta euren aurrean aritzea luxua da; asko baloratzen dut".

Lantaldearen inguruko hitz onak besterik ez du izan: "Neuk aukeratu dut eta guztiz harro nago". Proiektuaren ekoizle nagusietako bat Iñaki Bengoa da, Arrasateko Shot! estudiokoa. Hura ere bertan egongo da, eta horrek "lasaitasuna" ematen diola azaldu du. Gainera, dio horrek ere "kalitate handia" ematen diola ikuskizunari.

Sorpresez galdetuta, badauka zerbait buruan. Ez du gauza handirik aurreratu, ordea: "Badaukat zerbait pentsatuta. Espero ez dituzten gauzez gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek".

Ikuskizun integrala eskainiko du La Furiak Usondon. Euria eginez gero, Espoloiaren lekualdatuko dute.

Abuzturako bi ikuskizun

Urteko zortzigarren hilabetean bi ikuskizunek gozatzeko auke-

ra izango dute etxeko txikiek. Biak ala biak Fraiskozuri plazan izango dira, arratsaldeko zortzietan hasita. Alde batetik, Akelar taldearen *Aztikeriak* magia emanaldia izango da abuztuaren 3an; bestetik, Zirika Zirkus taldearen *Hemendikara* emanaldia.

Txoborro eta Tor magoek osatzen dute Akelar taldea, eta *Aztikeriak* ikuskizunarekin etorriko dira Bergarara. Mago baten deskuidua du oinarri lanak, ikuskizun batera joatea ahazten baitzaio lo hartu duelako. "Unibertso magiko bat, antzerkia eta magia baliatuz" sortu dute bi magoen magia saio "erabat berritzailea".

Abuztuaren azken egunean, 31n, Amaia Leoz, Iraia Garcia, Luis Lainez eta Ainhoa Juaniz Zirika Zirkuseko kideen txanda izango da, *Hemendikara* taularatuko baitute. Ez da faltako musikarik, dantzarik, zirkuko trebeziarik eta umorerik ekitaldiak dirauen bitartean. Diotenez, "umorea, maitasuna, aniztasuna eta berdintasuna izango dira nagusi".

Zirkuko konpainia nomada baten istorioa hartuko dute ardatz, eta zirkuko egunerokotasunari ekingo diete antzezleek, ikusleak kanpamentura hurbildu direla ohartu arte. Une horretatik aurrera, eszenografia muntatu eta emanaldiari hasiera emango diote. Euren herrietako kultura eta euskalduna nahastuko dituzte, besteak beste.

LA FURIAK DIO EGUNERO GURUTZATZEN DITUEN PERTSONEN AURREAN JOTZEA "LUXUA" DELA

Soraya Garciaren 'Kritika' olio-pinturen erakusketa Aroztegin

Garciaren lanak ikusgai daude jada; If Matxikorenak, berriz, abuztuaren 12tik irailaren 4ra ikusi ahaliko dira

I.A.A. BERGARA

Datozen asteetan, Bergarako Udalak antolatutako bi erakusketa hartuko ditu Aroztegi aretoak: alde batetik, Soraya Garcia Suarezren *Kritika* izeneko olio-pinturen erakusketa izango da

ikusgai gaurtik abuztuaren 7ra bitartean. Haren lanetan gizarte-kritika egiten du hizkuntza pikturikoaren bidez. Ikusleak partaide sentiaraztea du helburu proiektu honek, gai garaiki-deak landuz.

Bestalde, If Matxikoteraren ilustrazioak ikusteko aukera izango da abuztuaren 12tik irailaren 4ra. Gogoetarako eta ideia-trukerako baliatzen du arte-sorkuntza Uztaritzeko artistak. Sortzeko orduan, haren bizipenetatik abiatzen dituen arren, gai unibertsalak lantzen ditu.

Ordutegi honetan bisitatu ahal da Aroztegi: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.


Errioxan egingo dute kontzertua organo ikasleek bihar

Bergarako Musika Eskolako organo ikasleek Bañaresko (Errioxa) Santa Cruz elizan kontzertua eskainiko dute bihar, arratsaldeko zortzietan hasita. Guztira, sei kantu izango dira entzungai. Pieza bana joko dute Lorea Larrañaga, Leo Juaristi, Peio Lete, Elena Laka eta Miren Azkarate ikasleek: *Batalla del 5. tono*, *Tiento de 2 tono por ge-*


solreut sobre la letanía de la virgen, *Matin hymn*, *Corrente italiana* eta *Gavotte* abestiak, hurrenez hurren.

Musika Eskolako organo irakasle Josean Pascualekin joango dira ikasleak, eta hark emango dio amaiera kontzertuari, *Quatro diferencias sobre Guárdame las vacas* piezarekin.

Aipatzekoa da Josean Pascual organo irakaslea Donostiako San Vicente parrokiako organo-jotzaile ofizial izendatu duela duela gutxi.



18. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*



Sardinia | Argazkia: Aritz Murgia Mendizabal



Laredo | Argazkia: Susana Gartzia



Alaia, Abartzuzan freskatzen | Argazkia: Iñigo Zubia



Gastiaín | Argazkia: Ibernalo Iparragirre Ortega



Argazki guztiak kanal berezi honetan: <https://labur.eus/udakoargazkiak-2022>

MARTXAN DA!

Goienaren Udako Argazkien
Lehiaketa abian da! Nondik nora
ibiliko zara aurten? Hurbil geldituko
zara ala urrutira joango zara?

Argazkiak posta elektronikoz
(argazkiak@goiena.eus) edo
Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07)
bidal ditzakezu; uztailaren 15etik irailaren
19ra arte –biak barne–.

Sariak

Zu ikusi nahi zaitugu; nondik nora ibili zara?

Bidali zure argazkiak Goienara eta sari hauetako bat
irabazteko aukera izango duzu:

- 1. saria:** Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiei
esker, Kantabrian gau bat eta gosaria bi lagunendako.
- 2. saria:** Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker,
Samsung Galaxy A12, 32GB eskuko telefonoa.
- 3. saria:** Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako
afaria edo bazkaria.

Gainera, **publikoaren saria** ere izango dugu,
Bergarako Ereindajan-en eskutik: bertako eta
kalitatezko produktuen saski ederra.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: -Egilearen izen-abizenak.
-Harremanetarako telefonoa. -Debagoieneko zein herritakoa den edo zeinetan
bizi den egilea -Argazkia non ateratakoa den.
- Argazkiak eta datu GUZTIAK posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo
Whatsapp/Telegram (688 69 00 07) bidez bidali daitezke.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 15etik irailaren 19ra arte (biak barne).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok (sare sozialak salbu).
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke.
- Argazkiek originalak izan beharko dute.
- Udaoko argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea
edo beste uda batekoak.
- Hiru sari nagusiak Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatutako epaimahaiak
aukeratuko ditu. Argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 23tik 28ra Publikoaren Saria aukeratzeko epea zabalduko da. Lehiaketan parte
hartu duten argazki guztien artean aukeratu da Publikoaren Saria, bozketa bidez.
- Irabazleak nortzuk diren irailaren 30ean emango da aditzera, GOIENA aldizkarian eta
Goiena.eus-en.
- Saria jasotzeko, irabazleei eskatuko zaie lehiaketaren babesleekin argazki bat ateratzeko.
- Argazkiak Goienaren hainbat euskarritan argitaratu daitezke: Goiena.eus atarian,
GOIENA aldizkarian, Puntua aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du,
egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero,
egilearen izena adieraziko da.

Oinarriak eta lege oharra osorik: <https://labur.eus/oinarriak-2022>

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

BERGARA
EREIN
DA
JAN

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

Hasi dituzte ur-zikinen kolektoreko lanak

Bost hilabeteko epean egingo dituzte lanak, eta 534.487,52 euroko aurrekontua dute. Bestalde, Uraren Euskal Agentziak jakinarazi du Antzuolako saneamendu-sarea Bergarako kolektorearekin konektatzeko azken zatiaren proiektua egiten ari direla

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolatik Bergarako arazte-gira ur-zikinen eramateko, kolektorearen bi zati egitea falta da. Lehen zatiko lanei astelehenan ekin zieten, eta jada neurketa lanak eginak dituzte.

Bost hilabeteko epean egingo dituzte lanak, eta esleitutako obraren aurrekontua 534.487,52 eurokoa da, BEZa barne.

Hala, guztira 253 metro eta bederatzi kontrol-putzu dituen kolektorea eraikiko da, 400 milimetroko diametroarekin. Aristi Berri baserritik zertxobait ibaian behera eginda, Deskarga eta Ezkitza errekek batzen diren puntuan hasiko dira lanak. Puntu horretan amaitzen da kolektorea, eta errepedearen beste aldeko bidegorriaren azpian dagoen kolektorearekin lotuko dela jakinarazi du Uraren Euskal Agentziak. Horrez gain, Antzuolako saneamendu-sarea Bergarako kolektorearekin konektatzeko azken zatiaren proiektua egiten ari direla ere baieztatu dio GOIENARI.

"Guri proiektua lantzen ari direla ere esan digute; orain, ikusi beharko da 2022rako edo 2023rako izango den, eta ea, behingoz, gure ur-zikinen Bergarako arazte-gira eramatea lortzen dugun. Izan ere, kolektorearen zati hau egin arren, ur-zikinen errekarat bilatzen jarraituko dugu. Hau da, Galtzako zubitik Bergararainoko zatia egitea faltako litzateke", azaldu du Beñardo Kortabarriak, Antzuolako alkateak.



Langile bat lehen neurketa lanak egiten Aristi Berri inguruko gunean. M.A.

ALDABE ITURRIA BABESTEKO KONPROMISOA HARTU DU URAREN EUSKAL AGENTZIAK

torearen zati hau egin arren, ur-zikinen errekarat bilatzen jarraituko dugu. Hau da, Galtzako zubitik Bergararainoko zatia egitea faltako litzateke", azaldu du Beñardo Kortabarriak, Antzuolako alkateak.

Trafikoan eragina

Abuztuko bigarren hamabostaldian tarteka erre bat itxi egingo dutela jakinarazi dute; izan ere, lanekin jarraitu ahal izateko, txandakako pasoa emango zaie autoei Aristi Berri baserritik behera dagoen lehen bihurgunea pasa eta berehala dagoen puntuan.

Aldabe iturria

Aldabe iturria babesteko konpromisoa ere hartu dute, eta iturria zubiaren bestaldera eramango dute.

Erreka garbituko dute

Zapatuan auzolanean erreka garbitzeko dei egin die Udalak antzuolarrei. Izan ere, herriko jaien ostean, plastikozko hainbat edukiontzi errekan daude, besteak beste, une honetan. Hala, Garbiketa lanaren ostean, hamaiketako egingo dute. Auzolanean parte hartzeko, udaletxean eman behar de aurrez izena, 943 76 62 46 telefonon.



ANTZUOLAKO UDALA

Normaltasunez jardungo dute udal bulegoek abuztuan

Udal zerbitzuek abuztuan ez dute aparteko aldaketarik eta ez dute etenaldirik egingo. Hala, 07:00etatik 14:00etara bitartean egongo da udal bulegoa irekita. Eguenetan, ohi moduan, bake epaitegiko zerbitzua egongo da. Udal Liburutegia, aldiz, itxita egongo da abuztuan.

Aisialdirako aukerei dagokienez, Sagasti auzoko ur-jolas

parkea izango dute herritarrek, besteak beste, eta irekita egongo da normaltasun osoz abuztuan, neska-mutikoen gozamenarako: 10:00etatik 20:00etara. Eskolako patioa eta udal pilotalekua ere zabalik egongo dira herritarrendako.

Bestalde, udal gimnasioa hamabost egunez itxiko dute, besteak beste, garbiketa lanak egiteko. Baina abuztuko lehen eta azken asteetan irekita egongo da gimnasio zerbitzua herritarrendako.

Udako argazki lehiaketa abian du Arrola taldeak

Arrola mendizale taldeak uda sasoirako argazki lehiaketa martxan jarri du. Hala, parte-hartzaileek Arrolako kamiseta jantzi eta udako argazkia atera beharko dute. Ondoren, sare sozialen bidez parteka dezakete, Instagramez (@arrolamendizaleelkartea) nahiz posta elektronikoki bidez argazkia bidalita (arrolamt@gmail.com).

Irabazlearendako sari "mundiala" gertu dutela iragarri dute Arrolako kideek, eta mendiko material sorta ederra eskuratu dezake argazki irabazleak.

Argazkiak bidaltzeko azken eguna irailaren 20a da.

Arrolaren 50. urteurrenaren baitan, antolatutako ekimena da; gogoratu kamisetak ez ezik, Arrolako logo berria daramaten kantineplorak ere eskuratu daitezkeela elkartera jota.

Urriaren 1ean egingo du Arrola herriarrek festa berezia.

Bigarren eskuko azokarako arropa batuko dute bihar

Andramanuelak emakume taldeak eta Anelkar elkarteak elkarlanean bigarren eskuko arropa azoka antolatzen dihardute. Helburua da jantziei beste bizitza bat ematea, besteak beste. Hala, bihar, uztailak 23, herriarren arropa bilduko dute Olanaren, 11:00etatik aurrera; eta irailaren 24n, berriz, azoka egingo dute.

Bertan batuko den dirua Anelkarrek dituen hiru proiektu bultzatzeko eta sustatzeko erabiliko da -Saharako, Kongokoa eta Senegalgoa, hurrenez hurren-. "Uztailan arropak batu eta sailkatu egingo ditugu. Ondoren, prezio bat jarriko zaie eta antolatu egingo ditugu azokan saltzeko gertu izan ditzagun".

Haurrendako jostailuen truke azoka ere jarriko dute. Hala, erabiltzen ez dituzten jostailuak egunean bertan eraman ahalko dituzte.

Aseginolaza parean buelta hartuta

Gaur egun, Aseginolaza enpresa parera heltzen da Antzuolako bidegorria; Diputazioaren asmoa, ordea, ur-kolektorearen azken faseko lanak egitearekin batera bidegorria Bergararaino eramatea da, falta zaizkion 200 metroak eginez. Bien bitartean, herritarrek bidegorriaren amaieran buelta hartzen dute berriro Antzuolara igotzeko.



Antzuolarrak buelta hartzen bidegorriaren amaieran. M.A.

ANTZUOLAKO JAIK 2022



Antzuolarrak larrain dantzan parte hartzen Herriko Plazan. AITOR AGIRIANO

Bero latzari aurre eginez, "jai parte-hartzaileak eta jendetsuak" izan dira

Herritarren parte-hartze handiarekin ospatu dira aurtengo jaiak. Festarako gogoia eta beroa izan dira protagonista lau egunetan zehar; bestetik, izan da bestelakorik ere, eta herritarrek gogor salatu dute eraso homofobo bat gertatu izana txosnagunean

Maidar Arregi ANTZUOLA

"Gogotsu" eta giro ezin hobean ospatu dituzte antzuolarrak festak. Beñardo Kortabarria alkatetik jaietako parte-hartzea nabarmendu du. Era berean, gertatutako eraso homofobo ere salatu du: "Jaiak oso ondo joan dira, gertatutako eraso homofobo izan ezik. Erabat salatzen dugu gertatutakoa. Horrelako jarrerak ezin dira onartu".

Jai Batzordeak ere ildo berean egin du balorazioa: "Jaiak jendetsuak izan dira; egubakoitzean eta zapatuan, batik bat. Tenperaturak oso altuak izan dira egunez, baina, bero itogarriak sortu dezakeen deserosotasunaz gain, ez du aparteko endredorik ekarri. Egongo dira hobetzeko gauzak, baina, orokorrean, ekintzak ongi egin dira. Ikuskizunetan jendetza ibili da, eta kale giroa ederra izan da, jai gogoia

eta umore ona izan dira nagusi. Dena den, mutil talde batek eraso homofobo bat gauzatu zuen zapatu gauean txosnagunean, eta horrelako jarrerak ez ditugu onartzen, eta gertaera salatu nahi dugu".

Gogor sutu dituzte kanoiak

Bero latzari aurre eginez, gogor sutu dituzte aurten kanoiak Alardean. 200 antzuolar inguruk parte hartu dute errerepresentazioan. Amaiera emozioz beterikoa izan zen: Alardearen ibilbidean bidelagun izandako lagunak gogoan izan zituzten eta Juan Carlos Gomezentzat mairuaren papera hezuramamituz azken Alardea izan da aurtengoa. 2009an hasi zen Juan Carlos Gomez Alardean, eta gazteei paso eman nahi diela esanez agurtu du urte askoan egindako mairuaren pertsonaia. Alardeko taldeko

kideek eskerrak eman nahi izan dizkiote egindako lanagatik Gomezi, eta baita honek eskerrak bueltan eman ere, "bihotz-bihotzez, eskerrik asko" esanez. "Alarde ederra ikusi eta bizi izan genuen eta hau posible egin duten guztiak eskertu nahi ditugu. 200 herritar inguruk egindako auzolana eredugarria izan da", dio elkarteak.

Jaietako azken egunean, aldiz, paella eta euskal kantuak izan ziren nagusi *Ez dot moztuko bizarra* taldeak antolatutako bazkarian. 60 bat lagun bildu zira mahaiaren bueltan, eta bapo bazkaldu eta kantu giroan jardun zuten. Taldeak jakinarazi du zozketako zenbaki sarituak zeintzuk diren: lehen saria 760 zenbakiarendako (ordezkoa: 97) eta bigarren saria, aldiz, 667 zenbakiarendako (ordezkoa: 92).



Ikurrin-dantza. IMANOL SORIANO



Kuadrilla-jokoak. AITOR AGIRIANO



Egueneko kantu afari herrikoia, plazan. AITOR AGIRIANO



Juan Carlos Gomezi omenaldia, Alardean. AITOR AGIRIANO



Eraso homofobia gaitzetsi dute

Erasorik ez erantzun barik lelopean, jaietako zapatu gauean txosnagunean eraso homofobo bat gertatu zela salatu dute antzuolarrak Zurrategiko plazan. Andramanuelak taldeak eta Txosna Batzordeak azpimarratu dute "horrelako gertaeren aurrean" ez direla "isilik geratuko".

Gaurko bukaera jaiarekin amaituko dira udalekuak

Festak 12:00etan izango du hasiera eta denen artean prestatutako ikuskizuna egingo dute gurasoen eta herritarren aurrean neska-mutikoeek. Oihana izan da gaia aurten, eta oihana irudikatuko dute landutakoa eta bidean ikasitakoa erakusteko

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Sugandilak, kameleoak, tximuak, zebrak eta lehoiak izan dira aurten udaleku irekietan. Guztira, 2 eta 12 urte arteko 82 ume. Nerea Villa, Uxue Larrea, Paula Palacios, Amaia Otxoa, Sara Ugarteburu eta Maitena Mañarikua ibili dira lau asteotan hezitzaile lanetan. Behin-behineko balorazioa positiboa da. "Erdiko bi asteetako eguraldiak ekintza asko egiteko aukera eman digu; irteera egin dugu Antzuolara eta bertako ur txorrotetan ibili gara. Ur putzuetan ere dezente ibili gara. Umeak bi taldetan -LH eta HH- banatuta egoteak autonomia handiago eskaini digu. Talde nahasketak adinaren arabera izan dira, eta batzuen erritmoak ez du besteena baldintzatu", azaldu du Nerea Villak.

Aire zabaleko ekintzak

Ekainaren 27an zabaldu zituen ateak udaleku zerbitzuak, eta lau asteotan gehien-gehienetan eguraldiak aire zabaleko ekintzak egitea ahalbidetu du. Asteotan oso ohikoa izan da udalekuetako ume taldeak harako edo honako bidean ikustea. Sarri, gainera, eskolako elastiko lan-jarekin soinean.

Amaierako festa gaur

Gaur izango dute amaiera 2022ko udaleku irekiek. Ohikoa den moduan, agurreko jaialdia egingo dute neska-mutikoeek eta bertaratzeko aukera duten gurasoen eta herritarren aurrean egingo dute saioa, 12:00etan hasita. Lau asteotan askotariko ekintzak egin badituzte ere, oihana izan da udalekuetako gai nagusia, eta sormena landuz gai horren bueltako makina bat ikuskizun prestatu dute jaialdirako. Azken bi urteotako murrizketen ostean, familieek ere eskertu dute zerbitzua normaltasuneraino itzuli izana.



Ume talde bat, bero handiko egunetan jarritako ur putzuetako batean. UDALEKUAK



Goiz pasa, motxilak bizkarrean. UDALEKUAK



San Fermin eguneko entzierroa prestatzen, San Roke kalean. UDALEKUAK



Liburuak Elgetako udal liburutegian. MIKEL AGIRRE

Azken egunak liburutegian udako irakurketak mailegatzeko

Gaur egun, eleberri beltza eta eleberri historikoa dira elgetar erabiltzaile askoren aukera udarako

L.Z.L. ELGETA

Udako oporrak direla-eta uztailaren 29an itxiko ditu ateak Elgetako liburutegi zerbitzuak eta irailaren 7an zabalduko ditu berriz. Hauek dira, beraz, azken egunak abuzturako maileguak egiteko. "Ohiko mailegu epea 21 egunekoa izaten da, baina, abuztuan liburutegia itxita egongo denez, egunotan irailerako ematen ditugu maileguak", azaldu du liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak.

Erritmo aldaketa sumatzen dela ere azaldu du. "Neguan mailegu kopurua handia izaten da, eta udaberrian jaitsi egiten da uztailaren berrira ere igotzeko. Erabiltzaile kopurua neguan baino txikiagoa da uztailan, baina mailegu kopurua igo egiten da udaberriarekin alderatuta. Horrek esan nahi du dauden erabiltzaileek mailegu gehiago egiten dituztela". Genero auke-

raketari dagokionez, neguko dinamika jarraitzen dela dio. "Une honetan eleberri beltza eta historikoa dira gehien mailegatzaren direnak. Liburu eramangarriak eta irakurtzeko errazak lehenesten ditu jendeak. Irakurketa sakonak negurako izaten dira gehiago". Euskarazko liburu arrakastatsuen, oraindik ere, Amets Arzallusen eta Ibrahima Balderen *Miñan* dela dio.

Eskaientza digitala ere bai

Pandemian digitalak gora egin zuen Elgetan ere. "Erabiltzaile berri asko sortu ziren. Dena den, iaz itzuli ginen hemen pandemia aurreko kopuruetara. Erabiltzaile gehiago daude orain eLiburutegia erabiltzen dutenak, baina paperezkoa ere mantendu egin da. Gure kasuan bai behintzat". Etxeko ordenagailu, tableta eta sakelakotik jaitsi daitezke liburuak eLiburutegitik.

Elgeta eta Kanpanzar arteko errepidean lanak iragarri dituzte

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane Oiarbidek azaldu du hamar bihurgunetan ikusgaitasuna eta segurtasuna handitzeko lanak izango direla. Hala, errepidea sei metroraino zabalduko dute. Aurreikuspena da proiektua urrian jartzea jendarean eta lanak otsail aldera hasia (Ikus 6. orria).

Lorenzo Askasibar eskultore eta artista elgetarra hil da

Hilaren 17an hil zen, Gasteizen, 91 urterekin. Gai, trataera eta material ugari 700 artelan baino gehiago egin zituen artista ibilbidean eta urtebete da herrikideek omenaldia egin ziotela; izan ere, Miguel Angel Elkoroberezarren *L. Askasibar eskultore baten testigantza* liburu omenaldi ekitaldi bilakatu zuten (Ikus 40. orria).

"Plazera sentitzen dut bizikletan nabilenean"

ITXASO ASKASIBAR BELAR TXIRRINDULARIA

Hautzarotik du bidelagun bizikleta elgetarrak. Lasterketen denboraldia amaitzera doan honetan, afizioaz, egunerokoaz eta txirrindularitzaz aritu da solasean jator.

Jon Irizar Aranguren ELGETA

Txikitatik du Itxaso Askasibar Belarrek (Elgeta, 2007) pedalei eragiteko zaletasuna. 8 urterekin mendiko bizikletarekin hasitako bideari errepidean ari zaio segida ematen. Bolintxo Okindegia-Lana taldeko kadete mailako txirrindularia da gaur egun.

Elgetarako igoerak ondo ezagutuko dituzu...

Ondo ezagutzen ditut, bai. Aldapa behera hasten ditut entrenamenduak, eta sarritan aldapa gora amaitu. Batzuetan, baina, Bergaran gelditzen naiz; etxekoei deitu, eta autoan egiten dut Elgetara bitartekoa.

Zein alderditatik igotzea duzu gus-tukoen?

Arrasatetik, Kanpanzarko bide zaharretik. Luzeena da distantzia, baina baita politena ere. **Eta bada inoiz igotzen ez duzun alderdirik?**

Soraluzetik, Sagar-Errekatik, inoiz ez dut igo errepideko bizikletan. Jarriz gero, igoko nukeela uste dut, baina aldapa handia dago.

Nondik dator kizu bizikletarekiko zaletasuna?

Txikitatik ibili izan naiz bizikletan. Duela urte batzuk, aitak mendiko bizikletako munduko txapelketa ikustera eraman ninduen Andorrara, eta hangoa ikusita, zera pentsatu nuen: "Nik ere hau egin nahi dut".

Txirrindularitza dedikazio handia eskatzen duen kirola dela esan ohi da. Hala da?

Hala da, baina ondo daramat. Plazeragatik, aisialdiko ordu asko pedalei eragiteko erabiltzen ditut; ez inork horretara behartzen nauelako, nik hala nahi dudalako baizik.

Sakrifizio batzuk ere egin beharko dituzu, beraz.

Beti dago zerbait alboratu beharra. Adibidez, lagunekin jai giroan nagoenean ezin izaten dut ordu txikiak arte gelditu



Askasibar, esfortzu betean. YON SUINAGA

"LEHIATU NAHI BADUGU, SARRITAN MUTILEKIN ARITZEA IZATEN DA GURE AUKERA BAKARRA"

lasterketaren bat badut. Baina lasterketan bertan gozatzen dudanarekin, gustura egiten dudan zerbait da. Beste kontu bat da, ordea, joan den egubakoitzekoa: San Martzialgo Igoera ostein taldekideak Antzuolara joan, goiz erretiratu domekan lasterketa genuelako... eta beroagatik proba bertan behera gelditzea. **San Martzialgo Igoera aipatuta, bosgarren izan zinen, podiumetik hamaika segundo eskasera.**

Sorpresa izan zen niretzako ere! **Eta denboraldia nola doa?**

Lehen urteko kadetea naizela kontuan hartuta, ondo ari naizela uste dut. Geroz eta proba gehiago izaten diren arren, esan beharra dago gure adineko mutilek baino dezente lasterketa gutxiago izaten ditugula. Hala, haiekin ere aritzen gara noiz-behinka. Asteburu honetan, esaterako, ez dugu beste auke-

rarik. Biharko, emakumezkoontzako proba bat zegoen aurreikusita, baina bertan behera gelditu da. Ondorioz, domekan Azpeitian gizonezkoekin lehiatuko gara. 50-60 kilometro arteko probak izaten dira, beste erritmo bat izaten da hasieratik... Gogorra egiten zaigu, baina lehiatu nahi badugu, sarritan ez dugu beste aukerarik izaten. **Zeintzuk dira etorkizunera begira dituzun erronkak?**

Behetik gora egin dut probaz proba, eta denboraldia nola amaitu dudana ikusita, aurtan amaitu dudana maila emanez hasi nahiko nuke datorren sasoi. Bigarren urteko kadetea izango naiz, gainera. Hala ere, udan lasai ibili nahi dut. Ostein jarriko naiz datorrenari begira. **Domekan hasiko da emakumezkoen lehen Frantziako Tourra. Jarraitzeko asmorik bai?**

Bai, bai, jarraitzen dut emakumezkoen txirrindularitza. Eta Tourra izanik, ikusiko dut, noski.

Eta faboritorik?

Annemiek Van Vleuten aurrean ibiliko da, ziur. Elisa Longo Borghini ere ikusten dut podiumean. Eta adi Marianne Vos-ekin.



550 lagun batu ziren zapatuko herri bazkarian. AITOR AGIRIANO ARRESE

Ferixa Nagusiko Jaien balorazio "oso positiboa" egin du Udalak

Parte-hartzeaz eta sortutako "giro onaz" harago, eskerrak eman dizkiete lanean aritu diren boluntarioei

J.I.A. ELGETA

"Gogo handia nabaritu da berriz ohiko martxa hartzeko". Hala adierazi du Elgetako jarduneko alkate Ane Bilbaok. Ganadu azokaren gorabeheratik harago, jaien balorazio "oso positiboa" egin du Udalak: "Azpimarratzekoa izan da lau egunetan herri-tarrek izan duten parte-hartzea, baita sortu den giroa ere".

Mozorro Egunean "jende asko" mozorrotu zen, Bilbaoren hitzetan; "arrakastatsuak" izan ziren haurren zein erretiratuen bazkariak; eta azken urteetako bigarrena segika, zapatuko herri

bazkaria izan zen ekintzarik parte-hartzaileena: "Eguraldi ona lagun, 550 pertsona batu ginen paella-janean".

Aurrera begira

"Goizegi" da berrikuntzak gelditzeko etorri diren jakiteko: "Baloratu egin beharko dugu, adibidez, zapatuko plazako kontzertura itzuli, edo elektrotxar-rangaren formatu berriari hel-du". Halaber, eta "gazte kuadrilla asko" batu arren, jolas parte-hartzaileetan "jende nagusia-goa ere animatzea" gustatuko litzakeela adierazi du Bilbaok.



LARRAITZ ZEBERIO LEKUONA

Ardofaktoa Ozkarbin

Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, orain bi hilabete eskas kaleratutako *Ardo* disko-liburua aurkeztu zuten Ozkarbi elkarteak Andoni Tolosa *Morau*-k eta Beñardo Goietxeek aurreko astean. Umoretik, ardoaren bueltan sortzen direnak izan zituzten kantugai. Tarte atsegina igarotzeko aukera izan zuten kontzertura joan ziren musikazaleek.

Berezaon ikusten du EAJk kirolgune berria

Oñatirako "kirol-hiri berri bat" proposatu du EAJk. Bi futbol zelai, kanpoko bi igerileku, gimnasioa eta bi kantxa jasotzen ditu, besteak beste, eta Korriuena eremuan egongo litzateke. Udal Gobernuak "harriduraz eta kezka" jaso du asmoa

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Futbol zelai berria eta kanpoko igerilekuak dira EAJk Oñatirako proposatu duen "kirol-hiriaren" erronka nagusiak. Jeltzaleen "eskaera historikoak" diren bi gai horien irtenbidea litzateke proiektu hau. "Futbol zelai berriaren beharra dutela Aloña Mendiren aspaldiko eskaera da. Herriar asko dira kanpoko igerilekuak gura dituztenak. Eta bi eskaera horiek izan dezaketen irtenbidea da gure proposamen hau. Honek ez du esan gura orain egingo denik, behar horiei soluzioa ematerakoan epe ertaineko edo luzerako egitasmoa dela soilik. Gure ideia zein den azaldu gura izan dugu", dio Angel Biain jeltzaleak. Biainek aurreratu du "proiektu estrategikoa" dela hau eurendako eta herrian identifikatu dituzten beste premia batzuen inguruko "proiektu estrategikoak" ere egiten ari direla, eta datozen hilabeteetan aurkeztuko eta erakutsiko dituztela.

Urrutxun ordez, Berezaon

Proiektuaren berri emateko EAJk bidalitako oharrean dio Aloña Mendi elkarteak "hamarkada bat baino gehiago" daramala Azkoagaingo zelaiaren "egungo egoera deitoragarria konpontze-



Oñatiko jeltzaleek duten proposamena kirol gune berrirako. OÑATIKO EAJ

ko eskatzen", eta egoera osotasunean aztertze eskaera egin duela "behin baino gehiagotan" alderdi jeltzaleak, "EH Bilduren gobernu taldeak emandako konponbideen ondoren, adabaki bat bestearen atzetik". Biainek zehaztu duen moduan, futbol zelai berria ezin daiteke egungoa dagoen eremuan egin, "espaziorik ez dagoelako". Urrutxu zen horretarako jeltzaleek egoki ikusten zuten ingurua, baina, azkenean, hori alboratu eta beste toki baten bila hasi ziren: "Atletismo pista egingo da han

eta erdiko espazioari ere eman go zaio erabilpena. Azkoagaingek erabilera handia du eta entrenatzeko ere beste toki bat behar da".

Kostu ekonomikoa

Kanpoko igerileku irekiak egitea ere proposatu du EAJk, eta oharrean dio: "Adin guztietarako egokiak diren igerileku horiek jasagarriak eta ekologikoak izango lirateke: ura behar bezala erabiliko litzateke, produktu kimikoak erabiltzea saihestuko litzateke eta prozesu naturala-

goak erabiliko lirateke ura garbi edukitzeko". Baita Usakoren "alternatiba" izango direla, "azken honen izaera naturala nolabait berreskuratuz eta zainduz". Proiektuaren kostu ekonomikoari buruz, oraindik zehaztu barik dutela baieztatu du Biainek. "Bi behar horiei erantzuteko dugun ideia azaldu dugu. Gero hasiko ginateke lantzen".

EH Bildu: "Arduragabea" da

Proiektu hau "harriduraz eta kezka" jaso duela dio, bere aldetik, Udal Gobernuak. Dio, ohar bidez, hedabide eta etxeetara bidalitako eskuorri bidez eza gutu duela jeltzaleen "Berezaoko makro-azpiegituraren proposamena", eta uste du "arduragabea" dela "irudi soil baten oinarrituriko tamaina horretako proposamena, egungo testuinguruan, aparteko informazio barik -aurrekontua, egingarritasuna, proposamenak beharrezko lituzkeen bestelako esku-hartzeak...-", zabaltzea. "Gainera, futbol zelai berriaren kokapenaren inguruko azterketa bat da martxan. EAJren ekarpenez, aurrekontuetan sartu zuen Udal Gobernuak. Eta orain, Aloña Mendirekin elkarlanean, lanketarekin dabil Udala. Oraindik ez da azterketa horren emaitzarik, baina EAJk futbol zelairako lekua irmoki aukeratua omen du dagoeneko. Ez dugu azterketa eskatu izanaren zergatia ulertzen".

Bestetik, Udal Gobernuak uste du EAJk ez duela Aloña Mendiren eskaera kontuan hartu, "kirol elkarteak beharrezko ikusten baitu ohorezko mailan jokatzeko zelai batekin batera, entrenatu eta gazte zein erreional mailan jokatzeko balio lezakeen bigarren futbol zelai

bat -aurkezturiko irudiak futbol zelai bat eta kantxa bat ditu barnebildurik-. Halaxe azaldu izan digute Aloña Mendiko kideek aldian aldian haiekin ditugun bileretan".

Zubikoa kiroldegiko lanen mailegua ordaintzen segitzen dutela ere gogorarazi du oharrean Udal Gobernuak: "EH Bildu Udal Gobernuan sartu zenean, 5,7 milioi euroko zorra zuen Udalak. Zorra zerora eroatea eta hori egin arte Zubikoa eraberritzea ez ekitea erabaki genuen. Aho bateko onarpena izan zuen proiektuak. Kezagarria da Zubikoa moduko exijentzia handiko azpiegitura bat inauguratu berrikan Berezaoko moduko makro-azpiegitura bat proposatzea". Ekonomikoki egonkor mantentzearen garrantzia ere azpimarratu du, batez ere, "ohi-koak ez diren egoerei men eginez, Covid-19aren kasuan berretsi den moduan" eta gaineratu du: "egoera ekonomiko egonkorari eta zentzuz kudeatzeko gaitasunari esker egin ahal izan ditugu egindako guztiak".

Proiektu gehiago

Angel Biainek adierazi du Oñatiko Euzko Alderdi Jeltzaleak herrian ikusten duten eta herriarrek helarazten dieten "zerbitzu falte" erantzuten jarraituko duela lanean, eta badutela asmoa beste proiektu estrategiko batzuk ere aurkezteko. Horietako batzuk dagoeneko lantzen ari direla ere esan du.

UDAL GOBERNUAK "HARRIDURAZ" HARTU DU "IRUDI SOIL" BATEN OINARRITURIKO EAJ-REN ASMOA

Trafiko kontrolak ari dira egiten herrian udaltzainak

Trafiko arduradunek aldian-aldian egiten dituzten kontroletara batu da Udaltzaingoa eta herriko hainbat puntutan kontrolak jarriko dituzte uztaileko azken bi aste hauetan, goizez eta arratsalde. Dokumentazio, alkohol eta droga kontrolak egingo dituzte, zehazki. Kontroletan, ibilgailuak, motorrak eta bizikletak geldituko dituzte.

Udako ordutegia izango dute hainbat zerbitzuek abuztuaren

Abuztuaren 1etik aurrera udako ordutegia izango dute hainbat udal zerbitzuek. Herriararren Arreta Zerbitzua, adibidez, 08:30etik 14:30era egongo da zabalik. Liburutegira ere goizez bakarrik joan ahal izango da, 09:30etik 13:30era, eta kiroldegia, berriz, 10:00etatik 20:00etara egongo da irekita astelehenetik zapatara bitartean.

Argia kenduko dute herri osoan abuztuaren 10ean

Argindarraren erdi-tentsioko sarean mantentze-lanak egingo ditu Oñargik abuztuaren 10ean, eta, lan horiek egiteko, argia kenduko du lau orduz. 15:00etatik 19:00etara izango da argi etena eta herri osoari eragingo dio. Tarte horretan aparatu elektronikoak deskonektatzea gomendatu du Oñargik. Abisatu barik emango dute berriz argia.

Madalenako eta Lezesarriko jaiak datozen asteburuetan

Egubakoitz arratsaldean egingo den bizikleta martxarekin hasiko dira domekara arte iraungo duten Madalenako jaiak. Kontzertua, mus txapelketa, erromeria, pilota partiduak eta auzo afaria egingo dituzte, besteak beste. Uztailearen 30ean, berriz, Lezesarrikoak ospatuko dituzte, auzo bazkariarekin eta umeendako ekintzekin.

Datorren irailean itxiko dute elkartasun biltegia betirako

Kale Zaharrean dagoen elkartasun biltegia itxi egingo dute irailean betirako. Larrialdi egoerak artatuko dituzte abuztuaren baina ez du ohiko ordutegia eta zerbitzua izango. Emausek eramango ditu gelditzen diren arropak irailean, eta itxi egingo dute. Ez da ordezko arduradunik aurkeztu eta ez dute beste irtenbiderik aurkitu.

"Kartzela da Lesbos errefuxiatuendako"

LEIRE ETXEBERRIA HOTZ OÑATIKO KIDEA

Hilabete egin du Leire Etxeberria oñatiarrak boluntario Lesbosen, Zaporeak gobernuz kanpoko erakundearekin, eta hango errefuxiatuen egoera kontatu dio GOIENARI

Goiena komunitatea

Hotz Oñati / OÑATI

Lesbos uhartea "turistentzat paradisua eta errefuxiatuendako infernua" dela dio oñatiarrak, haren ahizpa Idoia Etxeberriak egindako elkarrizketan.

Zaporeak proiektuan sei urte daramatzate errefuxiatuentzat janaria prestatzen, 2019tik Lesbosen. Zertan aldatu da egoera ordutik?

Lehen baino askoz errefuxiatu gutxiago iristen dira, baina ez da errefuxiatu ez dagoelako, Europak gero eta oztopo gehiago jartzen dituelako baizik. Gainera, Frontexeko poliziek itsasoaren kontrola bereganatu dute. Errefuxiatuen ontziak detektatu, eta buelta emanarazten diete. Lagundu beharrean, bidali egiten dituzte, adibidez, uretara tiroak jaurtiz.

GKEek egin dezakezue zerbait hori gerta ez dadin?

Debekatuta dago GKEek itsas-behaketa egitea eta Frontexeko ontziei argazkiak ateratzea. Polizia berehala agertzen da. Errefuxiatuen kanpalekura sartzeko baimena duten GKEei, berriz, konfidentzialtasun-hitzarmena sinarazten diete: ezin dute kanpalekuan ikusitakoaren berri eman. Zaporeak proiektuko sukalde kanpalekutik kanpo dago. Kanpalekua lur-mutur batean dago, itsasoz inguratuta eta hesituta. Sarreran istiluen aurkako bi furgoneta eta polizia mordoa dago, ezin dira gaueko hamarrak ondoren sartu edo atera, arakatu egiten dituzte... Babesleku baino gehiago, kartzela da.

Diozu kontraste handiko uhartea dela Lesbos.

Bai. Uharte ederra da. Safos poetaren jaioterria; *lesbiana* hitzak bertan du jatorria. Ur gardenak, lasaitasuna. Termak, gazteluak, olibondoak... Turistak egun-pasa joaten dira Turkiara, ferriyan, baina errefuxiatuek bizitza arriskuan jartzen dute egunero. Paniaguda herrixoan,



Hotz Oñatiko kide Leire Etxeberria Lesbos uhartean.

"TURISTENDAKO JATETXEETATIK KANPALEKUKO ARGIAK IKUSTEN DIRA GAUEZ"

turistendako jatetxeetatik kanpalekuko argiak ikusten dira gauez. Bi bizimodu erabat desberdin, toki berean.

Zenbat lagun daude kanpalekuan? 1.200 errefuxiatu inguru daude egun: batez ere, Afganistan, Somalia, Kongoko Errepublika, Siria eta Kamerun herrietakoak. Lehen, hiru kanpaleku zeuden; orain, bakarra. Moria -2020an erre zen- 1.200 pertsonarentzat zegoen prestatua, baina 2019 bukaeran 20.000 pertsona zeuden. Infernua zela diote bertan egon ziren errefuxiatuek: ordutako ilarak janaria lortzeko eta dutxatzeko... Arratoiak. Borroak eta bortxaketak gauero. Greziako Gobernuaren ardurapean zegoen Moria kanpalekua. Eta baita oraingoa ere. Zaporeak-eko sukaldean boluntario dabilen errefuxiatuetako batek, Nazik, lau urte daramatza Lesbosen,

senarrarekin eta hiru seme-alabekin. Morian oso gaizki egon zirela esan zidan, eta oraingoa "pixka bat hobeto" daudela. Penagarria da. Beste eredu batzuk posible dira. Aurretik egon zen bat, Pikpa GKEk eramaten zuena, oso eredu garria zen. Sariak ere irabazi zituen... baina itxi egin zuten.

Zer etorkizun dute Lesbosen errefuxiatuek?

EBk Turkiarekin sinatutako akordioaren ondorioz, asilo-eskaera egin ahal izateko, Greziako uharteetara iristen diren errefuxiatuek Turkia haientzat ez dela herrialde segurua demostratu behar dute; bestela, Turkiara bidaltzen dituzte bueltan, ez haien jatorrizko herrialdeetara. Hori gaindituta, asilo-eskaera eskatzeko prozesu luzea abiatzen dute: askok lau urte igaro dituzte erantzunaren zain. Greziar pasaportea lortzen duten Grezian ez dute etorkizunik ikusten, eta Europako beste herrialde batera joaten dira. Baina han berriz egin behar dute asilo-eskaera, eta gehiengotik ukatu egiten diete, eta Greziara deportatu, herrialde seguru delako.



NABARRALDEKO OÑATIARRAK

Nafarroakoa, ikurrinarekin

Nafarroako bandera eta ikurrina elkarrekin egongo dira aurrerantzean plazako mastan, "herri bakarraren bi ikur direla adierazteko". Horixe eskatuz Bi ikur, herri bakarra mozioa eraman zuen Nabarraldeko taldeak ekaineko osoko bilkurara, eta Amaiurko batailaren 500. urteurren egunean bete zuten han onartutakoa.

GORA ETA BEHERA



Pilotan egiteko, zikina jaso behar lurretik

Arantzazuko frontoira joan eta "sorpresa desatsegina" hartu zuen herritar batek duela aste batez: "Janari hondarrak eta pakete hutsak zeuden lurrean, ez dagokien tokian".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

"Hobeto entrenatuta egin dut aurtengo Kantoikrit"

MIKEL OLALDE KANTOIKRIT LASTERKETAKO IRABAZLEA

Hasiera-hasieratik ipini zen lasterketa buruan Mikel Olalde oñatiarra eta itzuliz-itzuli eutsi egin zion lehen postuari. Gainera, lehenengoz irabazi du etxeko batek

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Inoizko Kantoikrit oñatiarra izan da aurtengoa; 32 txirrindularik hartu zuten parte, eta haietatik zazpi oñatiarrak. Eta, lehenengoz, etxeko ziklista bat izan zen txapeldun. Are gehiago, hamabik bukatu zuten proba, eta horietatik bost etxekoak ziren. Mikel Olalde izan zen irabazlea. Atzetik, bigarren eta hirugarren posturako, lehia gogorra izan zuten Iñigo Mugarza oñatiarrak eta Jose Enrique Henríquez marindarrak. Azken hori sailkatu zen bigarren, esprintean.

Espero zenuen garaipena?

Ez, egia da aurrez parte hartu izan dudala beste hiruzpalau aldiz, baina aurrez gehiago entrenatu naiz eta banekien beste urte batzuetan baino hobeto egingo nuela, baina ez neukan esperantzarik irabazteko.

Ze sentsazio izan zenituen lasterketan?

Banekien lehenengo lauzpabost bueltak gogorrenak izaten direla, agudo hasten delako lasterketa. Gero, laugarren bueltaren inguruan lehenengo postuan jarri nintzen eta hor, azkenean, estutu egin nuen, gutxi gorabehera, hamargarren bueltara arte, eta horren ostean lasaia goan nintzen eta gustura ibili nintzen.

Nola prestatu duzu aurtengoa?

Normalean, mendiko bizikleta-ekin ibiltzen naiz mendian, nahiz eta errepedekoa ere badaukadan. Urte osoan ibili naiz entrenatzen. Egia esan, ez naiz ibiltzen askorik piñoi finkoarekin, azken asteetan ibili naiz apur bat, baina, bestela, ez naiz ibiltzen.

Lasterketaren zirkuituan entrenatu zara ala ez?

Ez, Olatera edota Elorregira joan izan naiz bizikleta horrekin. Mendiko bizikleta hartzen dudanean ere, Oñatiren bueltan ibiltzen naiz.



Mikel Olalde, Xabier Barrena antolatzaileak emandako sariarekin. IMANOL SORIANO

"NORMALEAN MENDIKO BIZIKLETAN IBILTZEN NAIZ ETA ERREPIDEKOAREKIN ERE BAI"

Ze berezitasun ditu Kantoikrit lasterketak?

Arlo teknikoa landu behar da horretarako, ez da nahikoa indarra lantzea. Galtzada-harritik pasa behar izatean, tekniko bihurtzen da lasterketa. Eta bestela, ni oso gustura ibiltzen naiz zirkuituak dauzkan bihurtuneetan. Beste batzuek, kanpokoak izanda, zirkuitua ere, agian, ez dute ondo ezagutzen, baina nik, behintzat, ibilbidea ondo ezagutzen nuen lasterketa aurretik, eta horrek lasaitasuna ematen du.

Aurten, baina, inoizko lasterketa oñatiarra izan da. Zazpi txantxi-kuarrek hartu duzue parte.

Bai, eta horiek, behintzat, ondo ezagutzen dugu zirkuitua.

Ibilbide motzak nahiago dituzu luzeak baino?

Bai. Lasterketa honek berrogei minutu inguruko iraupena izan

du niretzat eta ia denbora gehienean topera joan beharra dago. Distantzia luzeak baino nahiago ditut motzak.

Parte hartu izan duzu piñoi finkodun halako beste lasterketaren batean?

Oñatikoez gain, Durangon hartu nuen parte behin, baina ez zen honen mailakoa. Horrelako lasterketa askorik ez dago inguruan eta kanpotik etortzen direnek ere esaten dute estatu mailako politena hau dela.

Gauetz izateak badu xarma berezirik?

Lasterketa oso polita da, bai. Antolakuntzak ere lan bikaina egiten du eta halako bat etxean egitea oso polita da.

Publiko ugari ere izan zen kale bazterretan animatzen.

Bai; horrek urduritasuna eta presioa ere ekartzen ditu, kuadrillakoak eta familiakoak ere izan zirelako animatzen.

Pandemia tarteko, bi urteko etena izan du lasterketak.

Bai; iaz ere izena eman nuen, baina, azkenean, bertan behera gelditu zen. Eta aurten apur bat gehiago entrenatu naizenez, gogo berezia neukan parte hartzeko. Datorren urtean ere parte hartuko dudala pentsatzen dut.

Ganbara Abesbatza, Donostiako Musika Hamabostaldian

Arantzazuko santutegian abestuko du abuztuaren 25ean, eta aurrez irekiera ekitaldian ere bai

A.T.G. OÑATI

Haritza eta ihia. Soroabali omenaldia izeneko kontzertua izango da abuztuaren 25ean Arantzazuko santutegian, Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan. Pablo Soroabali konpositore donostiarren jaiotzaren 125. urteurrena betetzen den honetan, Ganbara eta Easo abesbatzek haren "errepertorio euskaldunena" maituko dute, euskal folklореaren ondarea osatzen duten kantuen aukeraketa eginda. Bertan parte hartuko du, besteak beste,

Oñatiko Aita Madina txistulari taldeak ere.

Sarrerak dagoeneko 18 eurotan eskura daitezke –13 eurotan ikuspen murriztuan– *Tickets. quincenamusal.eus* helbidean.

Dena den, horren aurretik ere hartuko du parte Ganbara Abesbatzak musika hamabostaldiaren irekiera egunean, abuztuaren 2an. Donostiako San Inazio elizan izango da emanaldi hori 20:30ean. Kontzertu horretarako ez da sarrerarik hartu behar eta doan sartu ahal izango da edukiera bete arte.



AMAI A TXINTXURRETA

Kendu dute belarra Azkoagainen

Belar artifizial berria jarri, zelai azpian dagoen drainatze arazoa konpondu, horma indartu eta sarea aldatuko dituzte Azkoagainen, eta dagoeneko egin dituzte lehen lanak. Argazkiko itxura zeukan eguazten eguerdian; ordurako, aurretik zegoen belarra kenduta. Lanak abuztua bukatu orduko amaitzea aurreikusten dute.

Omagoren kontzertua eguaztenean Lazarraga lorategian

Kalean 2022 egitasmoaren barruan uztailan eskainiko den azken kontzertua izango da eguaztenean, hilak 27, Omago taldeak Lazarraga lorategian emango duena. 19:00etan izango da. Abuztuko etenaren ostean, irailaren 4an, domeka, itzuliko da egitasmoa Errementari plazara, *Turistreatzen* kale antzerkiarekin, 19:00etan.

Izen-ematea zabalik datorren ikasturteko fitness ekintzetan

Hamasei fitness ikastaro eskainiko dituzte Zubikoan datorren ikasturtean, irailaren 15etik aurrera. Hilaren 31ra arte, aurretik ibili izan direnek izango dute lehentasuna izena emateko, eta aukera zabalduko zaie herriar guztiei abuztuaren 1etik irailaren 8ra. Online eman behar da izena, edo, bestela, kiroldegiko harrerara joanda.



Realaren eta Bartzelonaren arteko partidarako sarrerak **futbol zelaiko tokirik onenean**



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Bartzelona partida (abuztuaren 21a, 22:00etan) beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.



Eserlekuak
Premium gunean



Catering
zerbitzua



Aldageletako tunelean
jokalariak ikusteko aukera



Ikus-entzunezko
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu
pertsonalizatua



353 metro karratuko
gunea

**Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!**



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

**goiena[”]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Ivan Velasco arrasatearra, taldeko auto barruan. MOVISTAR

"Zaleek maitatu edo gorrotatu egiten dute Movistar"

IVAN VELASCO MOVISTAR TALDEKO ZUZENDARIA

TXIRRINDULARITZA Arrasatekoa lehen urtea ari da egiten Movistar taldearekin Tourrean zuzendari lanetan; egun batzuk etxean egin eta gero, lasterketan murgilduko da gaur

Xabier Urtzelai ARRASATE

Ivan Velascok (Arrasate, 1980) badaki zer den Tourrean lan egitea, bai txirrindulari moduan [2010ean 62. sailkatu zen eta 2011n bertan behera utzi zuen lasterketa] eta baita Astana taldearekin zuzendari lanetan ere. Movistarren, baina, lehenengo Tourra du, eta, egun batzuk etxean egin eta gero, asteburuko etapetarako lasterketan sartuko da berriro ere. Bertatik bertara jarraitu nahi du taldekideek zapatuan La Capelle

Marival eta Rocamadour artean egingo duten erlojupekoa.

Etiket berdin ikusten da lasterketa?

Ez, burbuila horretatik irteterakoan gauzak beste modu batean ikusten dira, edo beste gauza

"ETXETIK EZ DA LASTERKETA BERDIN IKUSTEN, BURBUILATIK IRTETEN ZARA"

batzuei ere erreparatzen diezu. Esaterako, lasterketa kanpotik ikusteko aukera daukazu, kirol prentsa irakurtzen duzu, sare sozialetan taldeaz esaten den hori ikusten duzu... Lasterketa barruan zaudenean horrenbeste gauza daude egiteko, zaila da halakoei erreparatzea.

Eta etxetik zer ikusi duzu?

Ba, lehenagotik badakigun hori, jendea oso zorrotza dela taldearekin, eta, bereziki, Espainia mailan taldeari egur dezente ematen diotela. Bai gauzak egi-

ten dituenean, eta baita egiten ez dituenean ere. Taldeak kritika larregi jasotzen ditu. Batzuetan, merezitakoak izango dira, hori ere badakit, baina beste batzuetan... Gainontzeko lurraldeetako zaleek ez dakit ze jarrera izango duten euren taldekideekin, Frantzian, Inglaterra... Baina Espainia mailan zaleekin ez dago erdibiderik, edo maitatu egiten dute Movistar edo gorrotatu egiten gaituzte. Baina taldean kontziente gara horretaz eta lasterketan zaudenean isolatu egiten zara apur bat; izan ere, txirrindulariari kritika horiek guztiak iritsi egiten zaizkio, eta ez dute laguntzen. **Hala ere, ez dakit bidezkoa den UAeri, Ineosi eta Jumbori eskatzen zaizkion emaitzak eskatzea Movistarri...**

Nire ustez, hor dago gakoetako bat. Hain zuzen, aipatu dituzun hiru talde horiek hirukoiztu egiten dute guk daukagun aurrekontua. Denen ahotan dagoen UCiiko ranking hori ikusten baduzu, gu atzean gaude, eta horrek erakusten du azken hiru urteetan ez ditugula emaitza onak batu. Hala, gaur egungo txirrindularitzan, bistan dago lasterketak irabazteko ziklista onak behar dituzula, eta horretarako dirua behar dela.

Sailkapen horrek arduratzen zaituzte?

Bueno, urte hasieratik oso presente dugu puntuak behar ditugula; hemen ere futboleko moduan gertatzen da: puntu nahikoa ez baduzu, gorengo maila galtzen duzu. Eta hori presio gehigarri bat da, bai.

Giroa ez zen nahi modukoa izan, eta Tourra plaza zaila da puntuak batzeko.

Bai, baina Girora talde konkretu batekin joan ginen eta bagenekien zer egiteko kapaz ginen, eta Tourrera beste talde batekin etorri gara, eta helburuak garbi. Enric Mas azken lau zapa-bost itzuli handietan bost onenen arteko borrokan ibili da. Baina ez du zorte batere onik izan, besteak beste, aurtan hiru erorketa txar izan dituelako, eta momentu txarretan, gainera,

"ASTEBURUAN TOURREAN IZANGO NAIZ, TALDEAK ERLOJUPEKO ONA EGITEA NAHIKO NUKE"

ondo zegoela erakusten ari zenean. Eta hor puntua asko joan zaizkigu. Tirrenon azken jaitsieran erori zen, podiuma zapaltzeko borrokan zebilenean. Itzulian ere, azken egunean, Arraten gora, indartsuena izan zen eta ondorengo jaitsieran erori egin zen, eta Dauphinen berdin, oso erlojupeko txukuna egin zuen, ondo zegoen eta mendiko etapan erori eta etxera joan zen. Eta Tourrean, etapa erabakigarrienetako batean, zer eta txakalaldi galanta hartu zuen. Hori azken mendatean bada, gaitz erdi, baina Galibierren pasa zitzaion, asko falta zenean, eta hor minutu pila galdu zituen. Horri buelta ematea ez da batera erraza. Eta joan den martitzeneko etapa zangotrabatu egin zitzaigun erabat: Masek huts egin zuen ez zuelako ihesaldia hartu; hor ez ginen ondo egon. **Matteo Jorgenson harritxia da.**

Bai; oso detaile politak dabil erakusten, ihesaldietan sartzen dabil etengabe, motorra dauka, lasterketa irakurtzeko gaitasun handia duela erakusten dabil...

Tourrean zein izan da zure ardura?

Chente Garcia dabil zuzendari nagusi, eta Patxi Vila, Pablo Lastras eta hirurok txandaka ibili gara. Hala, gutako bakoitzak zeregin ezberdinak ditu, nahiz eta erabakiak guztion artean hartzen ditugun. Chente taktikaz arduratzen da, eguneko plan-gintza antolatzen du... Eta bigarren zuzendariak gehiago egiten du etapa osteko balorazioa, hurrengo eguneko etapa errepasatzeko materiala prestatzen du, ibilbidea aztertzen du... Aurre-rapauso handiak egin dira, alde horretatik, eta detaile guztiak ematen dizkiegu txirrindulariei. **Egun hauetan zer ikusi nahiko zenuke?**

Hamar onenen artean egotearen borroka ezin dugu alde batera utzi, hor puntuak daudelako, baina gustatuko litzaidake Masek mendiko etapetako batean ezustea ematea, nahiz eta zaila izango den. Horrekin batera, erlojupekoetan hobetzeko taldean lan handia egin dugu, eta emaitzak ikusi nahiko nituzke.

Jarraian etorriko da Vuelta.

Bai, eta sekulako parte-hartzea egongo da edizio honetan. Roglic, Pogacar, Simon Yates, Carapaz... Oso ziklista onak egongo dira, eta zailagoa izango da emaitza onak batzea, baina balio handiagoa izango dute.

Zabaldute Ikazkin Traileko izen-ematea

MENDI LASTERKETAK Aurkeztu dute irailaren 10ean Aretxabaletan egingo duten mendi lasterketa. Lasterkariak Kurtzebarri igoko dute lehenengo, eta Degurixa aldera egingo dute gero. 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibela izango du probak

X.U. ARETXABALETA

UDA kirol elkartearen 75. urteurrena aitzakia aproposa izan da Ikazkin Trail antolatzeko. Baina martitzeneko aurkezpen ekitaldian Julen Ezeizak nabarmendu zuen ez dutela edizio bakarria antolatuko, asmoa dela lasterketa urtero egitea. Eta horretarako dituzten osagaien artean dago, bereziki, ibilbidea: "Horixe nabarmenduko nuke nik, lasterketak izango duen paisaia ikaragarria dela".

Hasteko, Kurtzebarri

Lasterketa Aretxabaletako herriaren hasiko dute, eta Urkulutik eta Arientzatik pasata lasterkariak Kurtzebarriko bidea hartuko dute. Hor izango du ibilbidea puntu gorena (1.138 metro), eta handik Degurixa aldera joango dira, Basobaltz zeharkatuta: "Leku oso berezia da Basobaltz, izena apropos jarrita dauka, eta askorendako ez da batere ezaguna. Bat baino gehiago harrituta geratuko da handik pasatzerakoan", dio Julen Ezeizak. Hala, Degurixara jaitsi eta Andarto Txiki inguruetatik pasata, lasterkariak itzulerako bideari ekingo diote, Urkulurantz osteria ere. Hor, Ojala Zelaitik pasatuta herrigunera iritsiko dira, 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positiboa gainditu eta gero.

Sei anoa-postu

Lasterkariak, guztira, sei anoa-postu izango dituzte: Arientzan (3. kilometroa), Kargalekun (7. kilometroa), Degurixan (10. kilometroa), Muñakolatsan (14. kilometroa) eta Urkulun (18. kilometroa). Degurixakoan jatekoak eta edatekoak emango dituzte eta gainontzekoetan edatekoa emango dute.

Lasterketan parte hartzeko izen-ematea *rockthesport* webgunearen bitartez egin behar da (25 euro).



UDAko ordezkari Julen Ezeiza eta Ainara Muga, aurkezpenean. GOIENA

"Lasterketa egiteko modu asko daude, baita kuadrillan ere"

JULEN EZEIZA ANTOLAKETA TALDEKO KIDEA

Zer nabarmenduko zenuke irailaren 10ean egingo duzuen lasterketatik?

Zalantza barik, lasterketa pasako den parajeak nabarmenduko nituzke. Kurtzebarri igotzen lasterkariak sekulako bistak izango dituzte, Basobaltzen sartzen direnean pagadi oso berezia zeharkatuko dute, denok dakigu Degurixa zer-nolakoa den... Oso ibilbide polita izango du lasterketak, eta paraje ezberdinak izango ditu. **Distantzia eta gogortasun aldetik, Arrasate-Udalatz probatik gertu egon daiteke. Horrek esan nahi du animatzen direnek abuztuan lana izango dutela.**

Halako lasterketak modu askotara egin daitezke. Joan zaitezke lasterketan erabat sartuta eta estutzeko



GOIENA

asmoarekin, eta bai, asmo hori duenak ondo entrenatu beharko du, edo egin daitezke lasaia, ibilbideaz gozatzen, eta, nahi izanez gero, baita kuadrillan ere. Dorsalak banatuko ditugu, sailkapen bat egongo da... Baina ez nuke esango prestaketa gogorrik egin behar denik. Azken batean, halakoetan, gutxi batzuk egoten dira garaipenagatik borrokan, eta besteondako gozatzeko moduko lasterketa bat da.



Eider Egaña, talde berriarekin denboraldiurrea egiten. @ALAVESFEM

Eibartik Alaveserako saltoa egin du Eider Egaña oñatiarrak

FUTBOLA Elene Guridi aretxabaletarrarekin batera jokatu du Euskal Ligan; hiru urterako sinatu du

X.U. OÑATI

Beste debagoiendar bat fitxatu du Alavesek Euskal Ligan jokatu duen taldea indartzeko: Eider Egaña. Oñatiko atezainak Eibarren egin ditu azken urteak, eta, bigarren taldearen dinamikari sartuta egon bada ere, iazko ekainean debuta egin zuen lehenengo mailan.

Futbola eta ikasketak

Orain, berriaz, Alavesek fitxatu du, eta oñatiarrak talde gasteiztarrean egingo ditu datozen hiru denboraldiak. Hala, Egañaren asmoa da futbola eta ikasketak

bateragarri egitea, Soin Hezkuntzako ikasketak egingo ditu eta. Aipatu moduan, Alavesen ibarreko bi jokalaririk izango dira, bertan da-eta Elene Errasti. Aretxabaletako aurrelariak ere Euskal Ligako taldean jokatu du, baina hark ere iaz egin zuen debuta maila gorenean. Bigarren taldean jokatu dute biek, baina lehenengo taldearen dinamikari sartuta ibiliko dira.

Bi horiez gain, Uxue Iparagirre antzuolarrak Eibarko maila nazionaleko taldean jokatu du, eta baita Realean dabilen Elene Guridi oñatiarrak ere.

Oñatin amaituko dute, gaur, Caixabankeko lehen jardunaldia

PILOTA Artolak eta Martijak Ezkurdia eta Mariezkurrena izango dituzte aurrean, 22:00etan hasita, Zubikoan

X.U. OÑATI

Caixabank txapelketako lehen jardunaldia amaituko dute gaur, egubakoitza, Oñatin (22:00). Eta, hain zuzen, buruz buruko txapeladun Lasoren lesioak baldintzatu egin du gaurko saioa. Baiko enpresatik aurreratu dute sanferminetako lau eta erdikoan izandako lesioa gaintzeko bidean dela Laso, ondo errekupe-ratzen dabilena giharrean izandako hausturatik, baina, zoritarrez, ez da Oñatin egongo. Hala, Artolak hartuko du pilotari nafarra ordezkatzeko ardu-

ra, eta Martijarekin batera Caixabankeko txapelketa irabazteko bikote faboritoetako bat izango dute aurrean: Ezkurdia eta Mariezkurrena II.a izango dituzte aurrean.

Pilota jaialdiaren atarikoan, Victorrek eta Arbizuk Egituren V.aren eta Erostarberen kontra jokatu dute. Sarrerak, aurrez, Aloñamendi, Izarraitz eta Arrano tabernetan eros daitezke, eta Txokolateixan. Internetez, berriaz, 25 euroko sarrerak geratzen dira *entradasfronton.com* webgunean.

Danbaka, eskualdeko musika lehiaketa, abian

Goiena Komunikazio Taldeak, Bergarako Udalaren laguntzarekin, antolatu du; bost kontzertu izango dira, urriaren 14tik abenduaren 16ra, Seminarixoan, eta 2023ko urtarrilaren 13an jokatu dute finala; irailaren 18a da izena emateko azken eguna

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
2004an egin zen lehen aldiz Danbaka Musika Lehiaketa, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, Goibeko Kultur Elkartek eta Goienak elkarlanean antolatuta. Lau edizio izan ziren: 2004koaz gain, 2006an, 2008an eta 2010ean.

Komunitatearekin batera

Eguaztenean aurkeztu zuten bosgarrena Bergarako Udaleko eta Goienako ordezkariak, lehiaketa berriaren agertoki izango den Seminarixoan. "Azken urteotan ahailegin berezia egiten ari gara askotariko kultura adierazpenei lekua egiten. Testuinguru horretan, erabat kokatzen da Goienaren proposamena", dio Bergarako Kultura zinegotzi Kristina Markinak, eta zera gaineratu du Bergarako Udaleko Herriarren batzordeko lehendakari Ekaitz Aranberri: "Udal baliabideak eragilean eta herritarren esku jarri behar ditugula uste dugu. Kasu honetan, bailarako talde berriei emango zaie plaza, bate-tik, eta, bestetik, herritarrek musikarekin gozatzeko aukera izango dute. Modu horretan, gazteak ere ekarriko ditugu Seminarixora".

Danbaka Musika Lehiaketak Goienaren berezko helburuekin bat egiten duela adierazi du



Bergarako Udaleko eta Goienako ordezkariak Danbakaren aurkezpenean. XABI URZELAI

Goiena Kooperatiba Elkarteko presidente Monika Belastegik: "Gazteak Goienako hedabideetara erakarri nahi ditugu Danbakarekin. Bestetik, eskualdeko musikariei aukera eskaini nahi diegu eskualdeko askotariko musika adierazpenak haizatuz. Eta hori guztia, elkarlanean, komunitatearekin batera, hainbat kolaboratzailerekin".

'Danbaka.eus' ataria

Asteazabaldutako atari horretan daude lehiaketan parte hartzeko oinarriak eta bestelako

informazio osagarri gehiago. Edozein musika estilotako proposamenak onartuko dira, eta bakarka edo taldeka aurkeztu daitezke. Aurkezten direnen artean, baina, kideetako batek, gutxienez, Debagoienean errolatuta egon beharko du. Izena ematerakoan, hiru abesti original aurkeztu beharko dira, formatu digitaleko audioan. Eta abestiekin batera, biografia txiki bat, kideen izen-abizenak, argazki bat, harremanetan jartzeko telefonoa eta posta elektronikoko helbidea ere bai.

Irailaren 18a da izena emateko azken eguna, *Danbaka.eus* atariko *Izen ematea* atalean. Irailaren 27an jakinaraziko dira gero, atari berean, epaimahai-kideek aukeratutako hemeretzi lehiakideen izenak, eta hogeigarrena herritarrek erabakitze-ko aukera izango dute irailaren 27tik urriaren 2ra bitartean.

Hogeitahaldeen lehiaketa

Bost kontzertu izango dira, urriaren 14tik abenduaren 16ra, egubakoitzetan, 22:00etan hasita, Bergarako Seminarixoan. 30 minutuko emanaldia egin beharko du bakarlari edo talde bakoitzak zuzenean, eta, gutxienez, errepertorioko hiru abestiek euskaraz izan beharko dute.

2023ko urtarrilaren 13an jokatu dute finala. Sari nagusia diskoa grabatzea izango da eta Publikoaren Saria, berriz, abesti baten bideoklipa.

Gertuko jarraipena

Danbaka.eus atariaren gain, Goiena Komunikazio Taldeak uneoroko jarraipena egingo dio lehiaketari euskarri guztietan —*Goiena.eus*, Goiena telebista, GOIENA aldizkaria, *Puntua* aldizkaria eta Arrasate Irratia—, eta baita sare sozialetan ere: Instagramen eta Twitterren.

Kontzertu guztiak osorik grabatuko dira, eta ondoren, Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en eskainiko dira.

Sarrerak, hiru edo bost eurotan

Seminarixoan, harmailak kenduta, egingo dituzte kontzertuak, eta areto kanpoaldean beste gune bat egongo da, jan-edatekoekin eta musikarekin, atsedenaldira girotzeko. Sarrerak 5 eurotan salduko dira; eta Goienakide direnendako, 3 eurotan.

Lorenzo Askasibar eskultoreari azken agurra

700 artelanetik gora egin zituen, Euskal Herrian eta nazioartean, Elgetako eskultore figuratiboak

A. Aranburuzabala ELGETA

Gasteizko San Mateo parrokian egin zuten, eguaztenean, 1930ean Elgetako Jalotza baserrian jaio zen Lorenzo Askasibar Aranaren aldeko hileta elizkizuna. "16 urterekin hasi zen marrazketa eta zura lantzen, eta, pausoz pauso, askotariko gai, trataera eta materialekin 700 artelan baino gehiago egin zituen; horien artean, Bergarako San Pedro elizako *Pietatea*, 1957an", dio Miguel Angel Elkoroberezibar idazle eta haren lagunak.

Liburua eta omenaldia, iaz

L. Askasibar. *Eskultore baten testigantza* liburua aurkeztu zuen iaz Elkoroberezibarrek, eta, testuinguru horretan, omenaldia egin zioten Elgetan eta Bergaran. "Euskal eskultura figuratiboko adierazle gorenetakoa izan zen, Higinio Basterra handiaren garaiko klasikoaren artean azkena. Jesus Okina izan zuen lehenengo maisu eta mentore eta puntako artistak izan zituen irakasle geroago".

Eskulturarari eman zion bizitza eta eskulturak bizitza eman ziolaitortu zuen: "Atzera bueltatuko banintz, neure gogoz berriz izango nintzateke, nahiz eta lanbide oso gogorra den".

JOKIN OREGI, ANTZERKI ZUZENDARIA

GOIENA TELEBISTA, 'ELKARRIZKETTAP'

UZTAILAREN 27AN, EGUAZTENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



"Musika egiten pozik jarraitzea dut helburu"

ANDONI MOÑUX UGALDE TUBA-JOLEA

Espainiako Tuba-joleen Elkarteak Malagan egin duen nazioarteko topaketan bi sari "handi" irabazi ditu egunotan Vienako Grafenegg Festival-en dagoen bergararrak

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Amsterdameko kontserbatorioan lau urteko ikasketak egin ondoren, 2019a ezkeren Zurich bizi da, tuba instrumentuaren goi mailako ikasketak egiten.

Orkestra modalitateko lehen saria eta bakarlari modalitateko bigarrena jaso zenituen Malagan. Pozik?
Oso pozik lortutakoarekin! Musika lehiaketak asko dira, baina ez dago tuba instrumentuari bereziki eskainitako askorik, eta Espainiako Tuba-joleen Elkarteak (AETyB) antolatzen duena oso garrantzitsua da niretzat.

Juan Carlos Ribellesi eskaini zenezkion sariak. Nor da hura?

Azken hamarkadetan Euskal Herrian izan den musika-pedagogoa garrantzitsuenetakoa izan da. Tuba instrumentuarekiko maitasuna eta garrantzia sustatu du Donostiako Kontserbatorioko ikasleengan; adibidez, nigan. Zoritxarrez, osasun arrazoiengatik ezin izan da aurtengo nazioarteko jaialdian izan, eta faltan igarri dut.

Austrian zaude egunotan. Zertan?
Vienan egiten den *Grafenegg Festival*-eko orkestrarekin nago lanean; jaialdiko orkestrako tuba-jolea naiz. Musika klasiakoaren esparruan mundu mailako jaialdi garrantzitsuenetakoa da. Akademia moduan planteatuta dago orkestra hori, bi aste iraun du, eta bi kontzertu egiten dira. Jorrazten dugun musika, batez ere, musika moderno-garaikidea da.



Andoni Moñux Ugalde musikaria. A.M.

Egun Zurich bizi zara. Zer moduz?
Anne Jelle Visser Herbehereetako irakaslearekin tubako goi mailako ikasketak egiteko asmoz joan nintzen Suitzara, eta, ikasketak horiek egin ondoren, tuba-bakarlari espezializazioa egiten ari naiz orain. Bestalde, toki askotako orkestrekin eta taldeekin proiektu askotan hartzen dut parte; horien artean,

Bilboko eta Euskadiko orkestretan eta Frankfurtuko *Ensemble Modern* taldean. Era berean, mundu osoko orkestra sinfoniko askotan sarrera-probak egiten nabil, egunen batean musikari guztien ametsa den lan postu finkoa lortzeko gogoz.

Musikari moduan, ze puntutan sentitzen zara orain?

Musikarion egungo egoera konfiantzaz hartuta, eta ikasketak bukatzeaz dagoen gazte-profesional moduan, nire ibilaldiko puntu gakoan nagoela sentitzen dut. Urte hauetan nabarmenduko da zein den nire ibilaldi artistikoak hartuko duen bidea.

Abuzturako ze asmo?

Pare bat aste Bergaran egingo ditut, familiari eta lagunei bisita egiteko. Suitzara itzuliko naiz gero, eta *Lucerne Festival*-eko orkestran parte hartuko dut, musika garaikidea jorrazten duen proiektuan. Eta ondoren, nire goi mailako ikasketekin jarraituko dut.

Eta aurrera begira, zer diozu?

Errendimendu maila handia mantentzen eta igotzen jarraitu nahiko nuke, noski, eta neure burua, arlo pertsonalean zein artistikoan, ezagutzen jarraitzea. Bizitzak eramaten nauen lekuan musika egiten pozik jarraitzea da nire helburua.

Josune Murgoitio idazle eta kazetariaren eleberri berria

'Lo que sucedió en Turquía' liburuan, kulturategokortasun maitasun istorio korapilatsuak jaso ditu Arrasatekoak

A. A. ARETXABALETA

Aretxabaleta bizi den Arrasateko idazlearen bosgarren lanak—hirugarren eleberria—harreman hispaniar-turkiar baten barrunbeetan sakontzen duela dio egileak. "Turkiako familiaren eta

tradizioen eraginaren esparruan kokatuta dago, nazioarteko maitasun istorio konplikatuak da muina; erabat murgiltzen du irakurlea elkarri lotutako hiru gaietan: nazioarteko harremana, familia eta tradizioak".

Digitalean eta paperean

Destino Estambul sailaren barruan dago *Lo que sucedió en Turquía*; ekainaren amaieran argitaratu zuen, Amazonen bidez, bi bertsiotan, paperean eta digitalean.

Colores prohibidos liburuarekin abiatu zuen idazle ibilbidea. Harrezkero, hark sinatutakoak dira *Pasatiempos a lo turco*, Turkiari buruzko ikasgai jostagarrien gida eta *Viaje a Turquía: mujeres en Marmaris, Estambul y Diyarbakir* izenekoak.

Goienakideen txokoa

UZTAILEKO SARIAK



Bi lagunendako bi gaueko egonaldia Altsasuko San Pedroko Bidea turismo etxean
Parte hartzeko sariaren izena: Egonaldia

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ONATZARRO DAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremundenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" (barkidatzen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte hartzearen ezaugarriak egingo dira zozketan.
Irabazteko 1000/10000 lekuak dira, geroztik 10000 lekuak dira. Parte hartzearen ezaugarriak egingo dira zozketan.
Zozketaren emaitza 2022ko azaroaren 15ean irabazteko da. Zozketaren emaitza 2022ko azaroaren 15ean irabazteko da.
Zozketaren emaitza 2022ko azaroaren 15ean irabazteko da. Zozketaren emaitza 2022ko azaroaren 15ean irabazteko da.

Irabazi bi lagunendako otordua

UNZUETA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuo aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: uztailek 27

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jatekara
[barkidatzen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

BAZKIDETZA KUOTA: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA
APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxea ematen da errentan San Andresen. 65 metro koadrokoa, bi logela, sukalde-jangela, egongela eta komuna. Dena kanpoaldera begira. Eguzkitsua. Bi balkoi eta bietako bat ibxia. Telefonoa: 688 85 18 41 (Paulo)

Salobreña (Granada).

Granadako kostaldean etxea ematen da errentan abuzturako. Bi etxebizitza independenteko etxea da eta banaka edo elkarrekin har daitezke. Solairu bakoitza 75 metro koadrokoa da, bi logela, sukalde-egongela eta komunarekin. Dena kanpoaldera begira. Patio eta terrazarekin. Hondartzatik 400 metrora. Prezioa: etxebizitza bakoitzeko, terrazarekin, 750 euro asteko. Etxe osoa hartuz gero, 1.400 euro asteko. 669 22 69 62 (Josu) edo 658 72 62 71 (Eli)

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote baten-tzako etxe bila gabiltza Arrasaten errentan hartzeko. 658 90 79 77

Etxebizitza bila. Alokairuan hartzeko hiru logeladun etxe baten bila nabii Arrasaten, Aretxabaletan edo Aramaion. 682 40 53 38

Oñati. Ahalik eta azkarren etxebizitza bat, hiru logelakoa, hartuko genuke errentan. Telefonoa: 632 92 80 96

105. ETXEA OSATU

Bergara. Bergarako erdigunean gela bat hartuko nuke errentan. Telefonoa: 666 07 42 98

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Belorrieta kalean garaje itxia salgai, prezio onean. Telefonoa: 687 31 12 05

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Bi edo hiru logelakoa. 612 54 69 93

Arrasate eta Aretxabaleta. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Soziosanitario titulua daukat eta baita autoa ere. 680 87 38 66

Arrasate. Egunean zehar, baita orduka ere, zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. 643 47 40 94 (Alba)

Bergara eta inguruak.

Etxean bertan bizi izaten edo gauetan zaintza lanetarako gertu nago. Erreferentzia onak eta soziosanitario agiria daukat. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 12 51 27

Bergara eta inguruak.

Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. 4 urteko esperientzia dut haurrak zaintzen, eta Haur Hezkuntzako irakaslea naiz. Edozein zalatza galdetu. 634 42 85 11 (Andrea)

Bergara. Emakumea gertu egunez, gauze edo bertan bizitzeko pertsona nagusiak zaintzeko edo laguntzeko. Legezko agiriak ditut. 631 54 60 99

Bergara. Goizez eta gauzez pertsonak zaintzeko gertu. Legezko agiriak eta titulazioa daukat. 666 07 42 98

Bergara. Magisteritza ikasten dabilen neska euskalduna, arratsaldez umeak zaintzeko prest. 634 42 27 02

Debagoiena. 15:00etatik aurrera, baita gauze ere, nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago. Asteburuetan ere bai. Soziosanitario titulazioa daukat. 631 19 02 54

Debagoiena. Emakumea gertu egun osoz edo orduka pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. 631 75 03 97

Debagoiena. Emakumea gertu orduka zein gauetan zaintza lanak egiteko. 659 90 85 13

Debagoiena. Emakumea gertu tabernako zerbitzari bezala, nagusiak zein haurrak zaintzen edo garbiketan jarduteko. Asteazken zehar zein asteburuetan. 613 22 70 86 (Karen)

Debagoiena. Emakumezkoa prest asteen zehar edota asteburuetan nagusiak eta haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo taberna batean zerbitzari bezala aritzeko. 624 066 921 (Jeny)

Debagoiena. Esperientzia duen neska lanerako gertu: umeak eta nagusiak zaintzen edota garbiketan. 631 94 62 82

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten bada, hobeto. Telefonoa: 688 74 02 01

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila

BERGARA

Goiinak banatzailea behar du. 943 25 05 05 harpidetza@goiena.eus

nagusiak zaintzeko gertu. Legezko agiri guztiak eta erreferentzia onak aurkez ditzaket. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, baita baserrietan ere. 602 39 07 92

Debagoiena. Garbiketa eta zaintza lanak egiteko gertu nago, baita orduka ere. 657 59 57 65 (Maria)

Debagoiena. Gauetan edo egunean zehar orduka, zaintza lanak egingo nituzke. Baita asteburuetan ere. 632 69 40 90

Debagoiena. Gauetan edo goizetan zaintza lanak egiteko gertu nago. Ospitalean zein etxean. Autoa daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Haize giro-tu teknikaria naiz eta esperientzia dut, baita ere, soldatzen, margotzen, elektrizitatean edota igeltsu moduan laguntzen. 603 11 97 25 (Ricardo)

Debagoiena. Mutila gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Baita baserrietan ere. Legezko agiri eta titulazioekin. Telefonoa: 659 90 85 13

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: garbiketarako, zaintza eta abar. 643 47 39 37 (Yessid)

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. 672 55 67 35

Debagoiena. Mutila zaintza eta garbiketa lanetarako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Erreferentziak aurkez ditzaket. 602 87 65 07

Debagoiena. Neska euskalduna naiz eta lanean hasteko prest nago; umeak zaintzen, ostalaritzan edota fabrikari. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 79 28 37

Debagoiena. Orduka edo jardun osoz nagusiak zaindu eta garbiketarako egingo nituzke. Arrasaten bada, baita etxean bertan bizi izaten ere. Esperientziarekin. 634 94 30 78

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu

ERATU FISIOTERAPIA. OÑATI.

Fisioterapeuta behar dugu irailetik aurrera amatasun baja bat ordezkatzeko.

Geratzeko aukerarekin.

Bidali curriculumak: eratu@euskalnet.net

nago. Astelehenetik ostiralera edo asteburuetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 610 66 75 35

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan jardun nahi dut. Deitu 632 76 59 52 telefonora.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintza bost urteko esperientzia daukat eta baita soziosanitario titulua ere. Lan egiteko prest nago. 666 21 36 37

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak daukan neska zaintza eta garbiketa lanetarako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 631 93 11 90

Debagoiena. Tabernetan garbiketa lanak egiten edota etxeko langile moduan aritzeko gertu nago. Baita pertsonaren bat zaintzeko ere. 655 79 34 97 (Ana Luisa)

Debagoiena. Zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago, orduka, egunean zehar eta baita gauetan ere. Telefonoa: 627 03 16 40

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke egunez, etxean bertan bizi izaten, orduka zein asteburuetan. 692 23 16 15 (Helen)

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 34 11 68

Debagoiena. Zaintza lanetan jardun nahi dut; orduka, etxean bertan bizi izaten edo gauetan. Soziosanitario titulua daukat. Deitu 631 25 26 67 telefono zenbakira.

Garraiolari lanak. Esperientzia duen mutila, autonomoa, garraio lanetan jarduteko prest. Telefonoa: 616 82 83 20

Oñati eta inguruak. Eri-zaintza, medikuntza eta psikiatria ikasketak dituen emakumea hirugarren adineko pertsonak edo eta gaixoak zaintzeko prest. 943 78 06 76

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katua opari. Txerto guztiak ditu eta kartilla egunean. Osagarri guztiekin ematen da. 637 22 36 19

8. DENETARIK

801. SALDU

Ganaduarentzako pabiloia. Ganaduarentzako pabiloia salgai Arrasaten. 635 20 09 53

805. TRUKATU
Baserrian laguntza, trukean. Arrasate. Baserria, herrigunearikiko oso ongi kokatua. Baratza eta etxe inguruak zaintzeko laguntza behar da. Trukean, baratza ustiatzeko aukera. Aukera ona, nekazaritza ekologikoan jardun nahi duen lagun pare batentzako. Deitu 635 20 77 91 zenbakira

ESKER ONA



Felix Erostarbe Elorza



2022ko uztailaren 9an hil zen, 75 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2022ko uztailaren 22an.

ESKER ONA



Enrique Aguirre Lizarralde



2022ko uztailaren 7an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—
Ondra meza zapatuan izango da, uztailaren 23an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2022ko uztailaren 22an.

ESKER ONA



Juan Anjel Salegi Olazabal



2022ko uztailaren 19an hil zen, 64 urte zituela.

Etxekoen partetik, eskerrik asko agurrera gerturatu zareten guztioi.

Bergaran (Ubera), 2022ko uztailaren 22an.

ESKER ONA

Joxe Ocerinjauregui Artiñano



2022ko uztailaren 9an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko uztailaren 22an.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA



M. Isabel Merino Aguirre

2022ko uztailaren 20an hil zen, 69 urte zituela.

Agur Isabel bazoaz
Zu mundu hontatik
Zuk ibitako umorea
Maitatuaz betik
Poza ematen zendun
Alde guztietatik
Eta maiteko zaitugu
Gauz guztien gainetik.

San Miguel familia.
Arrasaten, 2022ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA



Juan Carlos Zubia Uribarren

2020ko uztailaren 20an hil zen.

Denborak ihesi, baina memoriak iraun.
Bi urte pasa dira, baina zu gure oroimen eta hitzetan.

Eskoriatzan, 2022ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA

Benedicta Larrañaga Eguren

2022ko uztailaren 18an hil zen, Gasteizen, 83 urte zituela.

Haren senarra: Agustin Ochoa Ibañez. Seme-alabak: Amaia eta Alberto, Imanol eta Cristina, Ainhoa eta Alberto. Bilobak: Beñat, Oltia eta Aroa. Anai-arrebak: Pedro (†), Maritxu eta Javier, Bittori (†) eta Luis Mari, Asun (†) eta Felix. Ezkon anai-arrebak: Felix eta Angelines, Carmen eta Jose Luis, Clemente eta Marci, Teo (†) eta Mari Carmen, Alfredo eta Maribel, Begoña eta Agapito, Angel Mari eta Pili. Illobak eta gainerako senideak.

Betirako elkarrekin nahi genuen, baina ezin izan da.
Patxo handi bat, egun handira arte!

Oñatin, 2022ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA



Jose Luis Ezkurra Arregi

2022ko uztailaren 19an hil zen.

Gauoko izar argitsuena
piztutzearekin batera,
lagun, lankide eta etxeko denak
zurekin gogoratzen gara
alaitasuna eta bizipoza
dituzularik dizdira.
Gure artean iraungo duzu
bizi garen artean.

Zure familia
Arrasaten, 2022ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA

Nerea Martin Urzelai

2002ko uztailaren 26an hil zen.

Gaztiak ginela,
zutaz ginen agurtu.
Bizitza zu barik izengo zala,
ezin gauen sinistu.
Denbora asko pasa dan arren,

ez zaittugu sekula ahaztu.
Zure irriaren soinu ederra
oso goguan daukugu.
Beti gure bihotzian Nerea,
asko maite zaittugu.

Zure kuadrilla.
Aretxabaletan, 2022ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA

Nerea Martin Urzelai

2002ko uztailaren 26an hil zen.

20 urtetan mundua eta geu aldatu garen arren,
zukanako maitasunak berdin-berdina izaten jarraitzen du.

Etxekoak.
Aretxabaletan, 2022ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA



Juan Anjel Salegi Olazabal

2022ko uztailaren 19an hil zen, 64 urte zituela.

Hainbeste momentu on,
hainbeste barre-argara...
Zure bizitasuna,
zure txispa,
zure indarra...
Hori dena eta gehiago
betiko gure bihotzetan.
Adiorik ez, Juan Anjel.

Elortza Olabe familia.
Bergaran (Ubera), 2022ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA



Juan Anjel Salegi Olazabal

2022ko uztailaren 19an hil zen, 64 urte zituela.

Ubera maitasunez erein eta gozatzen ibili zara gure artian.
Beti egongo zara Uberako bihotzian.
Lurrak goxo har zaitzala, Juan Anjel.

Uberako auzo elkarte.
Bergaran (Ubera), 2022ko uztailaren 22an.

OROIGARRIA



Juan Anjel Salegi Olazabal

2022ko uztailaren 19an hil zen, 64 urte zituela.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.

Bergarako lagunak.
Bergaran, 2022ko uztailaren 22an.

MEZA

Kontxi Landa Unanue

2022ko uztailaren 17an hil zen, 79 urte zituela.

Haren aldeko meza hurrengo domekan izango da,
uztailaren 31n, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2022ko uztailaren 22an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako
guztiei euren bidea aurkitzen
lagundu diegu, orain arte
bezala, eta guztiek izango
dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan
izan duzun konfiantzagatik
eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA

**Txakolina dastatzen**

Txakolina izan zen aurreko zapatuan egindako Arrasateko baserritarren azokako izarra. Debagoienean dauden hiru upategietako txakolina probatzeko eta erosteko aukera izan zuten herritarrek. Oñatiko Murgialdai eta Belaskua eta Arrasateko Kataide, hain justu ere.

**Euskara ikasten**

Arrasateko Udal Euskaltegikoak lanean dabilta Kulturetola, eta lehenengo eskolak eman dituzte han: hamaika nerabe egon dira euskara eskolak jasotzen ekainaren 27tik uztailaren 20ra arte. "Egunero-egunero etorri dira, alai eta irribarretsu. Txalo zaparrada haiendako".

**'Boluko zelaia' martxa**

Bergarako Musika Bandako kide ohi Jose Mari Arrondok eskatuta Alfredo Gonzalez Chirlaquek sortua, aurreko domekan estreinatu zuten jendaurrean, eta bi aldiz entzuteko aukera izan zuten bertaratutakoek, kontzertuaren hasieran eta amaieran. Gonzalez Chirlaquek Arrondori eskaini zion pieza, baita partitura eman ere. Lagun handiak dira biak, eta pozarren jaso zuen oparia Arrondok.

**Udako txapelketan**

Arima Galduak jugger taldekoak Santanderren egon ziren aurreko asteburuan, udako txapelketan parte hartzen. 32 taldek jokatu zuten, eta bergararrak 28. postuan sailkatu ziren. Bero galanta egin zuen -40 graduraino heldu zen termometroa- eta jokalariek batzuk zorabiatu egin ziren.

**Jaietan alkatearekin**

Uztailaren 14tik 17ra ospatu dituzte Antzuolako jai nagusiak. Askotariko ekintzak egin zituzten, eta horietako batzuetan udal ordezkariak ere parte hartu zuten. Beñardo Kortabarria alkatea aukera izan zuen herritarrekin egoteko eta jaiak partekatzeko.

Azkenpote kuadrillakoak, Toloñon

Arrasatearrek egun-pasa ederra egin zuten aurreko zapatuan Bastida aldean: Toloñora igo, San Ginesen hamaiketako ederra egin, Petralanda jatetxean bazkaldu, kuadrillako baten igerilekuan bainua hartu, eta ostekoak... Gainera, orain dela gutxi hil den Aido laguna gogoan izan zuten: Liverpool taldearen haren txapel bat jarri zuten Toloño gainean. Urteroko irteera izaten da. Itzela.

**Urrezko ezteiak**

Feliciano Davila eta Antonia Cabanillas bergararrek ezkondu zireneko 50 urteak ospatuko dituzte domekan, uztailak 24. "Zorionak, bikote! Egun ederra pasa ezazue, urrezko ezteiak ez dira egunero ospatzen eta. Segi zoriontsu izaten elkarrekin. Musu bana, familiaren partetik".

**Beroaren kontra, aparra**

Bergarako Santa Marina auzoan jaietan egon ziren aurrekoan. Auzotarrek ez zuten hutsik egin, eta kalean ibili ziren ospatzen. Bereziki, txikiak gozatu zuten domekako apar festan. Eguzkiak gehien berotzen zuenean, bainujantzia ipini eta ederto ibili ziren.

**Erraldoiekin ikasten**

Arrasateko Santa Marina auzoan jaiak ospatu zituzten aurrekoan. Herriko erraldoiak eta kilikiak egon ziren kalejiran, eta auzoko txikiak adi-adi jarraitu zituzten haien dantzak eta mugimenduak, ostean euren panpinekin pauso berberak egiteko.



ASTEA GOIENA TELEBISTAN



JOKIN OREGIRI ELKARRIZKETA
'Elkarrizkettap' Eguaztena, 21:00 eta 23:00




OLATZ LEGARDA FUTBOLARI OHIA EZAGUTZEN
'Luzapena' Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00

EGUBAKOITZA, 22	ZAPATUA, 23	DOMEKA, 24
08:00 Zirikatzen 16 08:30 Erreportajea: 'Mondra & Roll' 09:00 Zirikatzen 16 09:30 Harmailatik 10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Bizi Gipuzkoa 2 11:30 Akordeak 3 12:00 Hemen Debagoiena 13:00 Jaiak: Antzuolako jaiak 14:00 Albisteak 14:30 Bizi Gipuzkoa 2 15:00 Albisteak 15:30 Galdegazte: Aitor Zabaleta 16:00 Albisteak 16:30 Elkarrizkettap: Nora Salbotx 17:00 Albisteak 17:30 Harmailatik 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Zirikatzen 16 19:30 Akordeak 3 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Bizi Gipuzkoa 2 21:30 Bizi Gipuzkoa 3 22:00 Hemen Debagoiena 23:00 Kooltur: Odei	08:00 Asteko errepasoa 09:00 Akordeak 3 09:30 Hemen Debagoiena 10:30 Elkarrizkettap: Nora Salbotx 11:00 Galdegazte: Aitor Zabaleta 11:30 Erreportajea: 'Mondra & Roll' 12:00 Zirikatzen 17 12:30 Hemen Debagoiena 13:30 Jaiak: Antzuolako jaiak 14:30 Osoko bilkura: Bergara 15:30 Galdegazte: Aitor Zabaleta 16:00 Hemen Debagoiena 17:00 Asteko errepasoa 18:00 Elkarrizkettap: Nora Salbotx 18:30 Hemen Debagoiena 19:30 Kooltur: Odei 20:30 Zirikatzen 17 21:00 Galdegazte: Aitor Zabaleta 21:30 Hemen Debagoiena 22:30 Osoko bilkura: Arrasate 23:30 Jaiak: Antzuolako jaiak	08:00 Hemen da Miru 08:30 Hemen da Miru 09:00 Hemen da Miru 09:30 Galdegazte: Aitor Zabaleta 10:00 Asteko errepasoa 11:00 Elkarrizkettap: Nora Salbotx 11:30 Akordeak 3 12:00 Erreportajea: 'Mondra & Roll' 12:30 Osoko bilkura: Arrasate 13:30 Hemen Debagoiena 14:30 Zirikatzen 17 15:00 Akordeak 3 15:30 Hemen Debagoiena 16:30 Kooltur: Odei 17:30 Hemen Debagoiena 18:30 Asteko errepasoa 19:30 Kooltur: Pasadena 20:30 Hemen Debagoiena 21:30 Jaiak: Antzuolako jaiak 22:30 Osoko bilkura: Bergara 23:30 Kooltur: Pasadena

ZAPATUA, 23
ARRASATEKO OSOKO BILKURA
'Bereziak'
22:30

ZAPATUA, 23
BERGARAKO OSOKO BILKURA
'Bereziak'
14:30



MARTITZENA, 26
NHIL TALDEA GERTUTIK
'Hemen Debagoiena'
18:00/20:00/22:00
EGUNERO
EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK
'Albistegia'
14:00/15:00/16:00/17:00

ZORION AGURRAK



OÑATI
Aimar Igartua Zubia
Abuztuaren 8an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Asko maitte zaittugu! Patxo potolo bat familixako eta laguntxo danen partetik!



BERGARA
Unax Barrenetxea Gambra
Abuztuaren 3an. Zorionak, txapeldun! 9 urte! Patxo handi bat familixako danen partetik eta ondo ospatu zure eguna oporretan!



OÑATI
Maren Igartua Zubia
Abuztuaren 2an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Asko maitte zaittugu! Patxo potolo bat familixako eta laguntxo danen partetik!



ESKORIATZA
Zoe Silva Martins
Uztailaren 29an, 8 urte. Zorionak, neska handi! Ondo ospatu zure eguna lagun eta familia artean. Patxo handi bat amatxoren, aitaoren eta amamaren partetik.



OÑATI
Iraia Leibar Zumalde
Uztailaren 27an, 6 urte. Zorionak, Iraia! Jada sei urte! Iritsi da hainbeste desio zenuen eguna eta ondo-ondo ospatu. Patxo potolo bat etxekeon partetik.



OÑATI
Lea Perez Romaratezabala
Uztailaren 27an, 2 urte. Zorionak, politta! Egun zoragarria pasatu. Egin putz fuerte kandelairi! Izugarri maitte zaittugu. Infinito.



ARETXABALETA
Lide Urteaga Larrea
Uztailaren 27an, 5 urte. Zorionak, Lide! Patxo handi-handi bat!



ANTZUOLA
Amaiur Iparragirre Etxeberría
Uztailaren 26an, 2 urte. Zorionak, maitxia! Segi halako zoriontsu eta sorgintxo izaten. Besarkada potolo bat etxekeon, eta bereziki, Jareren partetik.



ELGETA
Malen Gorosabel Argiñao
Uztailaren 26an, 2 urte. Zorionak, Malen! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



BERGARA
Izar Goikoetxea Makazaga
Uztailaren 26an, 5 urte. Zorionak! Egun polit-polita euki eta primeran pasatu! Patxo handi bat familia osoaren partetik.



OÑATI
Ander Castell Tejada
Uztailaren 26an, 8 urte. Zorionak, Ander! Ondo pasatu eta disfrutatu zure eguna. Etxekeon partetik. Muxuak.



OÑATI
Oinatz Uzelai Aizpeolea
Uztailaren 25ean, 11 urte. Zorionak, Oinatz! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Muxu pila familixa guztiaren, eta bereziki, Auritzen partetik.



ESKORIATZA
Oskar Manex Maturana Sheen
Uztailaren 25ean, 10 urte. Zorionak familiaren partetik!



ELGETA
Nare Ahedo Alkalde
Uztailaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Nare! Topera ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo-potolo bat. Jarraitu orain bezain alaia izaten.



ESKORIATZA
Leire Garro D. de Gereñu
Uztailaren 25ean, 19 urte. Zorionak, guapetona! Ondo ospatu, parrandera! Muxu pila bat, familiako guztien partetik.



OÑATI
Noa Garcia Albizu
Uztailaren 24an, 4 urte. Zorionak, maittia! Ondo pasatu zure eguna eta jarraitu halako berezixa izaten! Patxo potolo bat etxekeon danen partetik, goxuen Ekirena!



BERGARA
Ane Arana Mendizabal
Uztailaren 24an, 9 urte. Zorionak, Ane! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna! Familia osoaren partetik!



ESKORIATZA
Bego Saez de Azkunaga
Uztailaren 24an, 53 urte. Zorionak, guapetona! Ederto ospatu eta jarraitu zaren bezalakoa izaten! Asko maitte zaitugu. Zure lagunak.



ARRASATE
Jon Martinez Canas
Uztailaren 23an, 6 urte. Zorionak, Jontxu! Topera ospatuko dugu zure urtebetze eguna familixa eta lagunuen artean.



BERGARA
Ekhi Manzanedo San Martin
Uztailaren 23an, 4 urte. Zorionak, Ekhi! Patxo mordo bat maite zaitxugun danon partetik.




BERGARA
Oier Gantxegi Gallastegi
Uztailaren 23an, 9 urte. Zorionak, Oier! Zure egunaz disfrutau. Muxu potolo bat etxeke eta bereziki, Enekoren eta Markelen partetik.



ARRASATE
Juliana Roca Montaña
Uztailaren 22an, 19 urte. Zorionak etxekeon partetik! Oso ondo pasatu zure eguna.



OÑATI
Laia Umerez Eceolaza
Uztailaren 22an, 8 urte. Zorionak, Laia! Ondo-ondo pasatu eguna eta jarraitu barre polit horrekin. Ah! Izeiren partetik, zorionak eta urte askotarako.



ARAMAIO
Mariasun Uribe eta Markel Arrizabalaga
Uztailaren 21ean, 80 urte eta 22, 7 urte. Urte askotarako bixoi! Topera ospatukou bixon egunak. Milaka muxu. Asko maitxe zaitxuztegu.



BERGARA
Sara Unamuno Andueza
Uztailaren 20an, 11 urte. Zorionak, printzesa! Musu potolo bat etxekeon, eta bereziki, Mikelen eta Lukaren partetik. Ondo ospatu zure eguna.



ARRASATE
Jare Bergaretxe
Uztailaren 19an, 7 urte. Zorionak, txiki! Jada zazpi urtetxo. Jarraitu zaren modukoa izaten. Patxo handi bat etxeke guztien partetik!




OÑATI
Iker Serrano Lopez
Uztailaren 19an, 12 urte. Zorionak, maittia! Primeran pasatu ezazu eguna. Etxeko danon partetik, mila musu.



ANTZUOLA
Axel Asensio Cabrera
Uztailaren 19an, 3 urte. Zorionak, Axel! Hiru urtetxo betetzen ditzuzula, txiki! Tope ospatuku! Patxo pila bat, batez be Dareren partetik!



OÑATI
Oxel Aranburu Larrañaga
Uztailaren 19an, 3 urte. Zorionak, Oxeltxo! Edarto ospatu zure eguna! Muxu handi bat etxeke danan partetik!



ARRASATE
Mikel Segovia Brasa
Uztailaren 18an, 5 urte. Zorionak, txiki! Patxo handi bat amatxoren partetik eta gozatu egunaz!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 22

ARRASATE Maalako Errebaleko jaiak

08:00etan, etxafuegoak; 17:00etan, umeentzako jolasak; 18:30ean, txokolatea Maalako madalenekin; 19:30ean, txikiteo musikatua; 21:00etan, estradetan afaria; 22:00etan, AZ Gaubelakekin musika; eta 23:00etan, suzko erruberak.

Maalako Errebalean.

OÑATI Madalenako jaiak

16:30ean, jaiak hasteko etxafuegoak; 16:30ean, bizikleta martxa; 17:00etan, pilota partiduak; 22:00etan, Motz, The Lio Eta Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek taldeen kontzertuak; eta 03:00etan, Jo Ta Txo Dja. *Madalena auzoan.*

ARETXABALETA Merkatarien eta ostalarien jaiak

16:00-19:00, puzgarriak umeendako, herriko hainbat lekutan; 19:00etan, Nhil taldea, Santa Rita lorategian; eta 21:00etan, Lowe taldea, Santa Rita lorategian. *Aretxabaletan.*

ARAMAIO Elh Malick musikaria Hamabostaldi Kulturalaren baitan, bakarlari senegaldarraren saioa. *Iturrieta sagardotegian, 19:00etan.*

BERGARA Santa Ana jaiak

20:00etan, jaien hasiera eta Santanatorren jaitsiera; 20:15ean, buruhandiak; 20:30ean, musika gaua; 20:30ean, Sorpresa taldea; 22:30ean, On The Go taldea; eta 00:00etan, Patxi Luqueren emanaldia. *Bolua auzoan.*

BERGARA Big Marteen's taldea Berumuga jaialdiaren baitan. *Espolioan, 22:00etan.*

OÑATI Profesional mailako pilota partiduak

Artola-Martija/Ezkurdia-Mariezkurrena II.a; eta Victor-Arbizu/Egiguren V.a-Erostarbe partiduak. Sarrerak, 25 euro. *Zubikoan, 22:00etan.*



OMAGO

OÑATI Omago taldea

Aitziber Omagogeaskoak, Iñigo Larrazabalek eta Oier Aldekoak sortu zuten taldea, 2018an. *Oso polita* biraren baitan, geldialdia egingo dute Oñatin, disko berria aurkezteko. *Eguaztenean, Lazarraga lorategian, 19:00etan.*

ZAPATUA 23

ARAMAIO Mendi martxa, eoliko proiektuen aurka

Arabako Mendiak Aske plataformak deituta. *Frontoian, 09:00etan.*

BERGARA Santa Ana jaiak

11:00etan, pintura eta margo lehiaketak; 12:00etan, umeendako jolasak; 13:00etan, txorizo-pintxoak; 13:15ean, poteoa Fanfarre Gezaltzaren eskutik; 14:30ean, herri bazkaria; 16:00etan, puzgarriak; 16:30ean, Txan Magoa; eta 19:00etan, Suker orkestra. *Bolua auzoan.*

ARETXABALETA Merkatarien eta ostalarien jaiak

11:00etan, umeendako ekintzak, Loratuk gidatuta, Iralabarri plazan; 12:30ean, Biotzatarrak fanfarrea Bedarreta tabernatik hasi eta Dagdaraino; eta 19:30ean, mariatxiak Ibarra tabernatik hasita. *Aretxabaletan.*

ARRASATE Bisita gidatu historiko-kulturalak

11:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz. Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Herriko Plazan.*

BERGARA 'Kritika' erakusketa

Soraya Garcia Suarezren pintura bilduma, abuztuaren 7ra arte. *Aroztegin, 12:00etan.*

OÑATI Madalenako jaiak

16:45ean, mus txapelketa; 17:30ean, puzgarriak; 18:30ean, erromeria Laja eta Lutxurdiorekin; eta 21:30ean, auzo afaria. *Madalena auzoan.*

ARRASATE 'Alive' eta 'Dye, dye' ikuskizunak

Udazabal egitarauaren baitan. *Zaldibar frontoian, 20:00etan.*

ARAMAIO 'Euskaldunen egunerokoa' film laburren sorta Izarren Azpiko Euskal Zinemaren baitan, Asier Altunaren lana. *Iturrieta sagardotegian, 22:00etan.*

DOMEKA 24

BERGARA Txistulari Bandaren kalejira

Auzoa girotuko dute, Santiago jaiak ospatzen. *Basalgo auzoan, 10:00etan.*

BERGARA Santa Ana jaiak

11:00etan, pilota partiduak; 12:00etan, VIII. patata-tortilla lehiaketa; 12:00etan, haurrendako puzgarriak; 13:00etan, apar festa; 13:30ean, kantu-poteoa, Boluko Otxotearekin; 17:30ean, *Umeak sukaldera* lehiaketa; 19:00etan, igel eta toka txapelketak; eta 19:30ean, Ibeer Dja. *Bolua auzoan.*

OÑATI Madalenako jaiak

12:00etan, meza; 13:00etan, pilota txapelketako finalak; 13:30ean,



LASALA

ARRASATE 'Alive' ikuskizuna

LaSala taldearen dantza ikuskizuna, Udazabal egitarauaren baitan. Askatasuna eta nork bere bidea aukeratzeko beharra irudikatuko dituzte dantzekin. Debalde. *Bihar, zapatua, Zaldibar frontoian, 20:00etan.*

luntxa; eta 18:30ean, Potx magoaren saioa. *Madalena auzoan.*

ASTELEHENA 25

BERGARA Santiago jaiak

11:00etan, meza; 12:00etan, trikitilariak, luntxa eta pilota partiduak; eta 14:00etan, bazkaria. *Basalgo auzoan.*

MARTITZENA 26

ARRASATE Ferrerías kaleko jaiak

08:00etan, etxafuegoak; 12:00etan, txistularien kalejira; 17:00etan, haur jolasak eta txokolate-jana; 19:00etan, erraldioen konpartsa txikia eta txistularien kalejira; 19:00etan, meza parrokian; 21:00etan, kale afaria; eta 23:00etan, dantzaldia. *Ferrerías kalean.*

OÑATI 'Paradisu zinema' filma

Ingelesa ez den hizkuntza batean egindako film onenaren Oscar saria irabazi zuen (1989) Giuseppe Tornatorren lanak. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUAZTENA 27

ARAMAIO Argi mozketa

Auzo guztietan, Oletan izan ezik. *Herri osoan, 10:00etatik 12:00etara.*

OÑATI Omago taldea

Aitziber Omagogeaskoak (ahots nagusia eta gitarra akustikoa), Iñigo Larrazabalek (gitarra elektrikoa) eta Oier Aldekoak (baxua eta teklatura) sortu zuten taldea 2018an. *Oso polita* biraren baitan, geldialdia egingo dute Oñatin, disko berria aurkezteko. *Lazarraga lorategian, 19:00etan.*

EGUENA 28

BERGARA Eguaztenetako azoka Herriko baserritarren garaiko eta bertako produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

OÑATI Dena taldea

Ondarrutarren emanaldia, gaztetxearen hamargarren urteurrenaren harira. Sarrerak, hiru euro. *Antixenean, 21:30ean.*

ARAMAIO 'Memoriaren istorioak' film laburrak

Izarren Azpiko Euskal Zinema zikloaren baitan, Aitor Alberdiren lana. *Iturrieta sagardotegian, 22:00etan.*

BERGARA La Furiaren kontzertua

Rap doinuekin bete du Arrasaten bizi den artistak *Post mortem* diskoa. Herriarren aurrean aurkeztuko du. Debalde. Euria bada, Espolioan. *Usondo parkean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 29

ARAMAIO Aldo Mila musikaria Hamabostaldi Kultureko emanaldia. *Iturrieta sagardotegian, 19:00etan.*

ARRASATE 'Akabo!' kale-antzerkia Barsanti taldearekin, Udazabal egitarauaren baitan. Dena galtzeaz dagoen pertsona batek bere buruaz igota. Atzera egin dezan konbentzitzen ahaleginduko dira ikusleak. *Seber Altube plazan, 20:00etan.*

ZAPATUA 30

ARRASATE Bisita gidatu historiko-kulturalak 11:00etan euskaraz eta 12:15ean gaztelerez. Izenak, aurrez, hemen: *turismo@arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Herriko Plazan, 11:00etan.*

OÑATI Lezesarri auzoko jaiak 12:00etan, luntxa Urrintxon, bertsolari eta trikitilariekin; 14:00etan, auzo bazkaria Urrintxon; 17:00etan, umeendako ipuin kontaketa; eta, 18:00etan, tatuaje eta aurpegi margotze tailerra. Bazkarirako aurrez eman behar da izena, jabetxean bertan. *Lezesarriin.*

OÑATI Espeleo-Arrikruz abentura Ohiko pasarelatik kanpoko abentura. Izenak, aurrez, hemen: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*. *Arrikruzten, 15:30ean.*

ARAMAIO 'Bizitza errealeko istorioak' film labur sorta Izarren Azpiko Euskal Zinemaren baitan, Juanma Canoren lanak. *Iturrieta sagardotegian, 22:00etan.*

ESKORIATZA San Inazio bezperako ikuskizuna Vulcano pirotekniakoek zuzenduta, Juan Carlos Zubiaren omenez egingo dute ikuskizuna. *Tren estazio zaharrean, 22:45ean.*

DOMEKA 31

ARETXABALETA San Inazio bola-txapelketa Lehenengo hirurendako, eta Muru-Alde elkarte bazkide onenarendako sariak egongo dira. *Bolatokian, 12:00etan.*

OÑATI San Inazio eguna Urbiako egun handia berreskuratu dute, pandemiak eragindako geldialdiaren ostean. 11:30ean, meza egongo da ermitan, eta ostean, bestelako ekintza batzuk, fondaren aurreko zelaian. *Urban.*

ZAPATUA 6

ARRASATE Bisita gidatua erdigunean Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Herriko Plazan, 09:00etan.*

DOMEKA 7

ARRASATE 'Udalara igoera, natura baliabideak ezagutuz' ibilaldia Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* edo 943-25 20 00. Herrigunetik Udalara joan bitartean naturak ematen dituen baliabide ezberdinak ezagutuko dira: landareak, fruituak noiz eta nola bildu, prestatu... 7,5 kilometroko ibilbide erraza. *Herriko Plazan, 09:00etan.*

OÑATI Espeleo-Arrikruz abentura Ohiko pasarelatik kanpoko abentura. Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*. *Arrikruzten, 15:30ean.*

ZAPATUA 13

ARETXABALETA Andramaixak *Zuk in, zuk jan* herri bazkariarekin hasiko dituzte Aretxabaleko jai nagusiak, gaurtik hilaren 17ra arte. Egitaraua osorik eta informazio zabala, 19. orrialdean. *Aretxabaletan.*

ZINEMA

EIBAR

COLISEO

Mis queridísimos hijos Egubakoitza: 20:00. Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

Entre la vida y la muerte Egubakoitza: 20:00. Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Padre no hay más que uno 3 Egubakoitza: 20:00. Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Top gun Egubakoitza: 19:25. Domeka: 11:30, 19:25.

Jurassic world Egubakoitza eta

zapatua: 19:10, 22:00. Domeka: 11:30, 19:10. Astelehenetik egunera: 19:10. **Lighthear** Egubakoitza eta zapatua: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

Llenos de gracia Egubakoitza eta zapatua: 21:35. Domeka: 12:00. Astelehenetik egunera: 19:25. **Minions** Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:35, 20:30, 22:30. Domeka: 12:00, 17:00, 19:35. Astelehenetik egunera: 16:30, 18:35, 20:30.

Thor: love and thunder Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:35, 22:10. Domeka: 12:00, 17:00, 19:35. Astelehenetik egunera: 17:00, 19:35.

Padre no hay más que uno 3 Egubakoitza eta

zapatua: 16:30, 17:20, 18:20, 19:25, 20:25, 22:30. Domeka: 12:00, 16:30, 17:20, 18:20, 19:25, 20:25. Astelehenetik egunera: 16:30, 17:20, 18:20, 20:25.

La memoria de un asesino Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:40, 22:00. Domekatik egunera: 17:20, 19:40.

Mia y yo Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30. Domeka: 12:00, 17:00.

Un novio para mi mujer Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30. Domekatik egunera: 16:30, 18:30, 20:30.

Hollyblood Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 22:00. Domeka: 12:00, 17:30.

Astelehenetik egunera: 17:30.

Men Egubakoitza eta zapatua: 18:50, 20:55. Domekatik egunera: 18:50.

BOULEVARD

Un novio para mi mujer Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:25, 20:30, 22:40.

La memoria de un asesino Egubakoitza eta zapatua: 17:45, 20:10, 22:35. Martitza: 17:45, 22:35.

Men Egubakoitza eta zapatua: 18:50, 20:55. Martitza: 18:50, 22:55.

La princesa Mononoke Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 17:00, 18:10, 19:10, 20:20, 21:20, 22:30.

Thor Egubakoitza eta zapatua: 15:45,

18:15, 20:45, 23:15. Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:45. Martitza: 17:15, 22:15.

Minions Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 16:50, 17:50, 18:50, 19:50, 20:50, 21:50.

Black phone Egubakoitza eta zapatua: 22:10, 23:30.

Elvis Egubakoitza eta zapatua: 21:15.

Jurassic world Egubakoitza eta zapatua: 19:15.

Llenos de gracia Egubakoitza eta zapatua: 16:30.

Top gun Egubakoitza eta zapatua: 21:35.

FLORIDA

Cinco lobitos Egubakoitza: 19:30. Zapatua eta domeka: 11:30, 19:30. Astelehenetik egunera: 20:00.

Elvis Egubakoitza eta zapatua: 20:35.

Minions Egubakoitza: 16:25, 18:45.

Zapatua eta domeka: 11:30, 17:10, 19:40, 22:10. Astelehena, eguaztena eta eguna: 17:30, 20:00. Martitza: 17:30.

Thor Egubakoitza: 17:10, 19:40, 22:10. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:10, 19:40, 22:10. Astelehena, eguaztena eta eguna: 17:30, 20:00.

Entre la vida y la muerte Egubakoitza eta zapatua: 19:35, 21:40. Astelehenetik egunera: 20:00.

Padre no hay más que uno 3 Egubakoitza: 16:40, 18:20, 20:25, 22:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:40, 18:20, 20:25, 22:30. Astelehenetik egunera: 17:00, 20:00.

KRITIKA

Delante de ti **Zuz.:** Hong Sang-soo. **Herr.:** Hego Korea (2021). **Aktoreak:** Hye-young, Kim Sae-byuk, Kwon Hae-hyo. ★★★★★

Lasaitasun eta argitasun puntua

ANTONIO ZABALA Martxoan, Hong Sang-soonen *Introducción* filma geneukan gure zinema aretoetan. Orain, uztailean, zuzendariaren *Delante de ti* filma estreinatuta da. Zuzendari korearrak film asko egiten ditu. Ez du baliabide askoren beharrik. Azkar filmatzen du, aktore gutxi erabiltzen ditu eta pertsonaien arteko elkarriketak izaten dira istorioen erdigunea. Kasu honetan, Sang Ok, urte batzuk Ameriketako Estatu Batuetan bizi ondoren, Koreara bueltatzen da. Urte askotan ikusi ez duen ahizpa bisitatuko du, txikitako etxea ikusiko du, eta gero, hura lehen aktorea zenez, zinema zuzendari batekin elkartuko da. Sang Okek orain bizi gura du, eta ez iragana ezta etorkizuna ere.

Hong Sang-soonen filmetan oso garrantzitsuak izaten dira



pertsonen artean sortzen diren intimitate-uneak. Paseoek eta, batez ere, mahai baten aurrean sortzen diren topaketek aukera ematen dute intimitate-une horietara heltzeko. Eta topaketak, une magiko horretara heltzeko, prozesu bat behar du, eta prozesu horren garapena maisutasunez azaltzen digu

zuzendariak. Ederra benetan Sang Oken eta zinema-zuzendariaren arteko sekuentzia. Zein ondo heltzen zaigu alkoholen laguntzarekin euren artean izaten den gerturatzeko prozesua. *Delante de ti*-k Sang Oken bizi-unea eta aurkitu duen lasaitasun eta argitasun puntua azaltzen dizkigu.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

25 urte

Melville idazlearen *Moby Dick* eleberriak jarri zuen mapan Massachussets estatuko Nantucket irla txikia. Hantxe nengoen edo nenbilen ni 1997ko uda hartan. Antonio eta Maxima aitona-amonek hegazkinekino billetea oparitu eta ingelesa ikasi alde, Straight Wharf jatetxean, bertako turista dirudunen platerak garbitzen, Eanel eta Wayne, lagun egin nituen bi jamaikarrekin batera.

Denbora librean, *Obabakoak* eta *El Fugitivo* izan ziren udako irakurgaiak. Gustura irakurtzen nuen, batez ere, *Obabakoak*; etxetik urruti egoteak sortzen duen herrimintxo horregatik, agian. *Euskal Herria askatu!!!* kamiseta izan zen uda hartako uniforme nagusia. Irla txiki hartan gutxi izango ziren nondik nentorren ez zekitenak.

Noizik behin gutuna eta astean behin edo, ez beti, telefono deiak ziren komunikazio bideak. Gogoan dut, lan-etenaldian, portuko barran eserita nengoela, nola gerturatu zitzaidan kapeladun adineko gizon bat, haserre samar, eta nola galdetu zidan ea zer gertatzen ari zen Euskal Herrian. Ikusten dut oraindik zein kale izkinako telefono kabinatik deitu nuen etxera, errutinazko "ze barri" baten aitzakian. Orduan jakin nuen gertatzen ari zen guztia. Uda hartako lurrikarak ozeano eta itsaso guztiak zeharkatu zituen.

GOIENA OKM GIDA

"Harritzekoa da, baina ez nuen arrainik jaten"

RAQUEL SOMALO FERNANDEZ ARRANDEGIA

Azafata eta harreman publikoen arloan lanean aritu bazen ere, Fernandez Arrandegiaren arduradunetako bat da; oso gustura dago bezeroen erantzunarekin

Idoia Aranbarri Arzuaga OÑATI

Mende erdia baino gehiago daramatza Fernandez Arrandegiak Oñatin. Negozio familiarra da, eta gaur egun, bigarren belaunaldia ari da aurrera ateratzen Antoniok eta Angelitak hasi zuten ibilbidea. Horietako bat da Raquel Somalo. Aurretik, azafata eta harreman publikoen arloan lan egin bazuen ere, oso gustura dabil arrandegian.

Azafata eta harreman publikoetan jardundakoa zara. Nolatan arrandegian lanean?

Amaginarrebari lepoko ebakuntza egin behar izan zioten. Lan pila bat zegoen, baina laguntzeko ez zegoen inor. Horregatik, ni hasi nintzen laguntzen eta hemen geratu nintzen, azkenean. Nire lanean oso gustura egoten naiz eta oso pozik nago.

Zein lan nahiago duzu?

Berdin zait. Orain, arrandegian oso gustura nago. Sakrifizioa eskatzen duen lanbidea da, baina zure negozioa bada, beti sakrifikatua izaten da.

Debagoiendarrek zein arrain jaten dute gehien?

Denboraldiaren arabera. Orain, adibidez, hegaluzea, antxoak, legatza, lupia... Denetatik



Raquel Somalo, Oñatiko Bidebarrieta kalean duten Fernandez arrandegian. I.A.A.

Kalitatearen aldeko apustua

"Jeneroa, zuzenean, Ondarroatik, Getariatik eta Pasaiatik ekartzen dugu. Gero, erosle bereziak ditugu Galizian, Frantzian, Danimarkan eta Norvegian. Mihi-arraina eta oilarra, esaterako, hemengo kostan ez badaude, Frantziatik ekartzen ditugu. Danimarkatik, berriz, Faroe bakailaoa ekartzen dugu; onena da. Norvegiako izokina ere badugu. Guk beti onena ekartzen dugu. Kalitatearekin egiten diogu aurre gure konpetentziari".

saltzen da. Izan ere, jendeak aukera zabala dauka.

Zein gustatzen zaizu gehien?

Harritzekoa bada ere, lehen ez nuen arrainik jaten, ez nekielako hezurtxoak non zeuden. Dakidanetik, denak jaten ditut.

Arraina zein erataria jatea duzu nahiago?

Aste honetan, marmitakoa egin dut zapoarekin, baina berdin zait saltsan, erreta... Egia da parrillan jatea sekulakoa dela, baina hori da konpainian jaten duzulako lagunekin edo etxekoekin. Bestela, berdin zait. Kozinatzea gogoko dut; orduan, denetik egiten dut.

Zure lanaren alderik onena? Eta gogorrena?

Jendearen erantzuna eta jendearekin egotea da onena. Gogorrena, berriz, oso fisikoa izatea. Mugimendu errepikakorrak egiten ditugu. Gainera, ordu asko dira eta pisu asko izaten dugu. Dena den, azkenean, kontsatu egiten du jendeak emandako erantzun horrek; bete egiten nau.

Zein zaletasun dituzu?

Irakurtzea, paseatzea eta nire lagunekin eta familiarekin egotea. Nire nebak Errioxakoak dira, eta udan Camerosera joaten gara. Oso garrantzitsua da familiarekin egotea.

Oñatiko komertzio txikiaren egoterra nola ikusten duzu?

Etorkizuna beltza da. Denda txikiok, azkenean, itxi egingo dugu jubilatzen garenean, eta ez dakit zer gertatuko den gure etorkizunarekin.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

ABUZTUAN ZABALIK!

**ABUZTUKO OPORRETAN ERE GERTUKO INFORMAZIOA ESKAINIKO DIZUEGU
GOIENA TELEBISTAN, GOIENA.EUS ATARIAN ETA GOIENA NAHIERAN APP-EAN.**



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!



goiena
Zu hemen zaude.